# Teaching and Learning through English: Classroom Strategies and Practices in CLIL

Ingelesa irakas-hizkuntza denean:
irakasleen estrategiak eta ikasgelako praktikak CLILen

Egilea: Nerea Villabona Perurena
Zuzendaria: Jasone Cenoz Iragui

Donostia, 2020

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoen Departamentuan aurkeztutako doktorego tesia
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Hezkuntza: Eskola, Hizkuntza eta Gizartea Doktorego programa

A dissertation submitted to the Department of Research Methods in Education of the University of the Basque Country, UPV/EHU.
Faculty of Education, Philosophy and Anthropology
Doctoral program of Education: School, Language and Society

ESKER ONAK

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiot lan honen zuzendari den Jasone Cenozi, bere laguntza guztiagatik eta nigan jarritako konfiantzagatik. Zurekin lan egitea plazer handi bat izan da.

Nola ez, ikerketa honetan parte hartu duten ikasle eta irakasleei nire eskerrik handienak, zuen geletako ateak ireki eta ikasgelan gertatzen denari begiratzen uzteagatik. Lan honetan protagonista nagusi diren lau irakasleei mila esker, ikertzaile rolaz aparte, zuen ondoan irakasle gisa ere asko ikasi dudalako.

Hezkuntza: Eskola, Hizkuntza eta Gizartea doktorego-programari eta Hezkuntza Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak sailari tesi hau egiteko aukera emateagatik. Era berean, DREAM ikerketa taldeari eta HABE liburutegiari, lan hau aurrera eramateko baliabideak emateagatik.

Special thanks to Diane J. Tedick and the Department of Curriculum and Instruction for hosting me in my international stay at the University of Minnesota.

Bulegoan lankide eta lagun izan ditudan guztiei, eskerrik asko. Bereziki, hurbilen izan ditudan Karin Van der Worp, Uxue Díez eta Eider Saraguetari. Atal honetan, bidelagun ezin hobea izan den Mikel Gartziarenari nire eskerrik beroenak, bene-benetan.

Azkenik, etxekoei eta lagunei eskerrak eman nahi dizkiet hiru urte hauetan izandako egun zailak alaitzeagatik.

LABURPENA

Europan zehar Content and Language Integrated Learning (CLIL) edo Edukien eta Hizkuntzen Ikaskuntza Integratua (EHII) programak ezartzen ari dira atzerriko hizkuntza-maila hobetu eta eleaniztasuna bultzatzeko helburuarekin. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hezkuntza-sistemak ere eman du pauso hori. Izan ere, EAEko hezkuntza-helburuetako bat da, euskara oinarri izanik, eleaniztasuna lortzea, eta, horregatik, atzerriko hizkuntza irakas-hizkuntza den programak ezartzen ari dira. Atzerriko hizkuntza hori, kasu gehienetan, ingelesa da.

Lan honen helburua da CLIL irakasgai horien inplementazioa aztertzea EAEko bigarren hezkuntzan. Zehatzago esanda, lan honek edukiak eta hizkuntza integratzean ematen diren praktikak deskribatzen ditu, bai eta edukiak modu ulergarri batean emateko estrategiak aztertu ere. Gainera, testuinguru eleanitz honetan, irakasle eta ikasleen errepertorio linguistikoaren erabilera ikusiko dugu ingelesa irakas-hizkuntza bihurtzen denean. Horretarako, lanak forma kualitatiboa hartu du. Kasu-azterketa bat dugu honakoa, non lau CLIL irakasgai aztertzen diren. Datuak ikasgelako behaketen, irakasleekin elkarrizketen eta klaseko dokumentuen bidez lortu dira.

Emaitzek erakusten dute, besteak beste, irakaslearen profilak eragin zuzena duela programa hauek inplementatzerako garaian. Izan ere, gure lanean, eduki-irakasle direnek atzerriko hizkuntza irakastearen ideiatik urruntzen dira, eta edukietan zentratzen dira soilik. Bestalde, hizkuntza-irakasle direnek hizkuntza-kontzientzia handiagoa erakusten dute, eta besteak beste, estrategia gehiago erabiltzen dituzte edukiak modu ulergarrian irakasteko atzerriko hizkuntzan. Ikasgela barruko praktikek ere translanguaging pedagogikoaren potentziala azaleratzen dute.

ABSTRACT

Most European educational systems are implementing *Content and Language Integrated Learning* (CLIL) programs as a new approach to multilingualism and foreign language learning, and the education system in the Basque Autonomous Community (BAC) is no exception. In fact, the education system in the BAC is making efforts in moving from bilingualism to multilingualism by offering subjects taught through the foreign language, which is most of the times English.

The aim of this study is to explore the way English-medium subjects are implemented in Secondary School in the BAC. More specifically, it describes how teachers integrate language and content in their classrooms, and how they manage to make content comprehensible when using English as the medium of instruction. It also seeks to investigate the presence of the students' and teachers' multilingual repertoire in CLIL lessons. For that, this study takes a qualitative approach. This is a multiple-case study where four classes taught through English are analyzed. Data was collected through classroom observations, semi-structured interviews with the four CLIL teachers and classroom documents.

Findings show how different teachers' backgrounds have an effect on the implementation of these programs: the teachers who have a content-teaching background exclude themselves from the responsibility of "teaching" the foreign language and tend to focus on content-matter only while those with a language-teaching background show more language awareness and see themselves as language and content facilitators. These teachers also show more strategies to make content comprehensible, among others. Classroom realities also show the potential of translanguaging, used with a pedagogical purpose, in these CLIL settings.

AURKIBIDEA

IRUDIEN ZERRENDA

TAULEN ZERRENDA

SARRERA

Ingelesaren 'lingua franca' estatusa dela-eta, munduko hezkuntza-sistema askok atzerriko hizkuntza gisa irakasteaz aparte, irakas-hizkuntza gisa ere erabiltzen dute. Horrela, hizkuntzarekiko esposizioa handitu eta hizkuntza-gaitasunak garatzea ahalbidetu nahi da. Hori, Content and Language Integrated Learning (CLIL) edo Edukien eta Hizkuntzen Ikaskuntza Integratua (EHII) gisako programen bidez ematen da. Esan bezala, programa hauen funtsa ikaslearena ez den hizkuntza bat erabiltzea da irakas-hizkuntza gisa. Gure testuinguruan, ingelesa da atzerriko hizkuntza hori kasu gehienetan. Gauzak horrela, edukiak ingelesez irakasteak eta ikasteak bi elementu horien (atzerriko hizkuntza eta edukiak) arteko integrazioa dakar, edo hori da behintzat programa horien helburua.

Kontua da, CLIL izenaren atzean inplementazio modu eta aukera oso anitzak daudela, testuinguruaren arabera aldatzen direnak. Hortaz, Pavón Vazquéz eta Ellison-ek (2013) dioten moduan "there is no single recipe for CLIL" (70. orr). Izan ere, CLIL inplementazio moduak oso ezberdinak izan ohi dira, kontutan hartzen badugu testuinguruaren egoera soziolinguistikoa, atzerriko hizkuntzan jasotako ordu-kopurua, CLIL derrigorrezkoa edo hautazkoa den, eskolaren planteamendua CLILekiko eta ikasgela barruko praktikak, besteak beste.

Gure testuingurura ere iritsi dira ingelesa irakas-hizkuntza duten programak, bai Oinarrizko Hezkuntzako mailetan, baita Goi-mailako ikasketetan ere. Izan ere, EAEko hezkuntza-sistemak gizarte eleanitz bat sortzeko helburuarekin, hezkuntza-sistema eleaniztuna sortu du. Elebitasuna lortzea da sistemaren oinarrietako bat, ikasleek bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelera) menpera ditzaten. Egoera honetan, aipagarria da gizarte mailan gaztelerak nagusitasuna duen arren, EAEko ikasleen %65ak baino gehiagok aukeratzen duela euskara irakas-hizkuntza gisa. Elebitasuna lortzea erronka txikia balitz, azken urteotan eleaniztasunerantz pausoak eman dira, EAEko ikasleek bi hizkuntza ofizialetan bakarrik ez eta atzerriko hizkuntzan oinarrizko gaitasunak lortu behar baitituzte. Esan bezala, EAEko eskola askotan CLIL edo EHII programak daude martxan, non nagusiki ingelesa erabiltzen den arloak eta edukiak irakasteko. Horrela, Lehen Hezkuntza nahiz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan historia, matematika, plastika edota gorputz-hezkuntza irakasten da ingelesa

erabiliz. Kasu batzuetan, ikasleek CLIL irakasgai bat edo bi dituzte, eta hortaz, euskara edota gaztelania irakas-hizkuntza gisa mantentzen dira.

Tesi honen helburua da EAEko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lau CLIL ikasgeletako praktikak deskribatu eta aztertzea, arreta berezia jarriz irakasleen esfortzuei egoera berri honetara egokitzeko. Zehatzago esanda, honakoak izango ditugu aztergai: ingelesez irakasten diren irakasgaietako hizkuntza eta edukiak integratzeko saiakerak, edukiak modu ulergarrian irakasteko estrategiak eta euskara eta gaztelaniaren presentzia. Hori guztia ikuspegi kualitatibo batetik egingo dugu, non ikasgela barruko behaketak, lau irakaslerekin elkarrizketak eta klaseko dokumentuak (materialak, errubrikak, etab.) erabiliko ditugun gure ikerketa-galderak erantzuteko.

Ikasleentzat bakarrik ez, irakasleentzat ere erronka bat suposatzen du CLILek. Izan ere, CLIL testuinguruetan, irakasleak irakasten dituen arloko aditua izan behar du, eta, aldi berean, atzerriko hizkuntza-maila ona izan edukiak transmititzeko gai izateko. Ikusiko dugunez, eduki eta hizkuntzaren integrazioa da CLILen ezaugarri nagusia, baina praktikan bi elementu horiek konbinatzeko aukerak ez daude argi: zer nolako arreta behar du hizkuntzak CLILen? Natur Zientzietako irakasleak bere ikasleen ingelesa zuzendu behar al du? Edo matematikako irakasleak klaseko metodologia eta dinamikak aldatu behar al ditu ingelesa irakas-hizkuntza denean? Gainera, CLIL irakasleek beste erronka bat ere badute: ikasleen mailara egokitutako inputa eskaini behar dute. Horretarako, materialak sortu eta egokitu behar dituzte, besteak beste. Ingelesa ikasgelako hizkuntza nagusia denean, hau da, edukiak irakatsi eta ikasteko erabiltzen denean, ikasleen ulermena bermatzeko estrategiak behar dituzte irakasle hauek.

Azkenik, eta testuinguru eleaniztun batean kokatutako lana denez, ikasgela barruko hizkuntza erabilera eta bereziki, irakasle eta ikasleen praktikak izango ditugu aztergai. Atzerriko hizkuntza bakarrik erabiltzen al da CLILen? Zer paper betetzen dute EAEko beste hizkuntza ofizialek (euskara eta gaztelerak) ingeles-bidezko irakaskuntzan? CLIL ikasgela barruan gerta daitezkeen eta hizkuntza ezberdinak erabiltzen dituzten praktikak aztertuko ditugu. Praktika hauek deskribatzeko, *translanguaging* espontaneoa eta *translanguaging* pedagogikoaren artean bereizketa egingo dugu (Cenoz eta Gorter, 2017b). Lehenak, modu naturalean sortutako praktikei egiten die erreferentzia; bigarrenak, helburu pedagogiko batean hainbat hizkuntza erabiltzen dituen estrategia pedagogikoei.

Tesiaren egitura

Tesi hau bi hizkuntzetan idatzi da, euskaraz eta ingelesez. Tesiaren lehen atala, hau da, sarrera eta atal teorikoa euskaraz daude, eta metodologia, ikerketaren emaitzak eta ondorioak ingelesez. Kapitulu bakoitzaren amaieran, laburpen bat eskaintzen da. Jarraian datozen lerroetan, kapituluen deskribapen zehatzagoa.

1. kapituluan, CLILi buruzko sarreratxo bat eskainiko dugu. Lehenik, CLIL zer den ikusi, jatorria aztertu eta ezaugarri nagusiak ikusiko ditugu. Gainera, CLILen inguruan egin den ikerketa laburtuko dugu. Kapitulu honetan, CLILen ezaugarri nagusienez arituko gara: edukia eta hizkuntzaren integrazioa. Ikuspegi teorikoak ikusi ondoren, ikasgelako praktikan bi elementuak elkartzeko esperientziak eta ahaleginak ikusiko ditugu.

2. kapituluan, CLILen inputa, erabilitako metodologiak eta materialak izango ditugu aztergai. CLIL testuinguruetan hizkuntzak duen papera ikusi ondoren, CLIL irakaslearen rola aztertuko dugu. Jarraian, metodologia eta materialetan arreta jarri ondoren, ulermena errazteko estrategiak aurkeztuko ditugu.

3. kapituluan, eleaniztasuna eta eskolan eman daitezkeen praktika eleanitzez arituko gara. Eleaniztasuna ulertzeko ikuspegi holistikoak ikusi ondoren, praktika eleanitzak sailkatzeko erabiltzen diren terminoetan jarriko dugu arreta. Azkenik, ikasgela barruan, eta bereziki CLIL ikasgela barruko hizkuntza-erabilera eta praktika eleanitzak deskribatu dituzten lanak ikusiko ditugu.

Testuingurura hurbiltzea du helburu 4. kapituluak. Bertan, EAEko hezkuntza-sistemaren ezaugarri nagusiak ikusiko ditugu, egoera soziolinguistikoa labur aztertu ondoren. Arreta berezia jarriko diegu hezkuntza-sistemak eleaniztasuna lortzeko bidean eman dituen pausoei.

5. kapituluan (chapter 5), tesi lan honek erantzun nahi dituen ikerketa-galderak aurkezten ditugu, bai eta eskolen testuingurura hurbildu ere. Gainera, metodologia atalean, lan hau egiteko erabilitako metodoa, ikerketaren diseinua, partaideak, eta datu-bilketaren nondik norakoak azaltzen dira.

Gure ikerketaren emaitzak izango ditugu aztergai 6. kapituluan (chapter 6). Ikerketa-galdera bakoitzari atal bat eskainiko diogu, eta ondoren emaitzen laburpen bat dugu.

Azkenik, 7. kapituluan (chapter 7) gure emaitzak beste ikerlan batzuekin erlazionatuko ditugu, eta ikerketaren ondorio nagusiak azpimarratuko. Ikerketaren mugak eta etorkizuneko bideak ikusi ondoren, inplikazio didaktikoekin amaituko dugu.

CLIL: DEFINIZIOA, EZAUGARRIAK ETA IKERKETA

1.1.   CLIL. Definizioa, ezaugarriak eta historia laburra

1.1.1. Definizioa eta ezaugarriak

Content and Language Integrated Learning (CLIL) edo euskaraz Edukien eta Hizkuntzen Ikaskuntza Integratua (EHII) metodologiaren inguruan definizio ugari eman badira ere, gaiari buruzko ikerketetan ziurrenik ezagunena eta erabiliena honako hau da: "Content and Language Integrated Learning (CLIL) is a dual-focused educational approach in which an additional language is used for the learning and teaching of both content and language" (Coyle et al., 2010, 1.orr). Argi geratzen da, beraz, planteamentu honen oinarria ikaslearena ez den hizkuntza bat erabiliz bestelako edukiak ikastea (eta irakastea) dela, modu horretan hizkuntza ikasten den bitartean. Horrela, CLIL ikasleek historia, natur zientziak edota plastikako edukiak beste hizkuntza batean lantzean, hizkuntza hori lantzen arituko dira. Terminoak dioen bezala, CLILen edukiak eta hizkuntza(k) modu integratuan lantzen dira, baina badirudi edukietan zentratzen dela ("content-driven") (Coyle et al., 2010). Ikasten den hizkuntza gehienetan atzerriko hizkuntza bada ere, bigarren hizkuntza (H2) edota komunitateko hizkuntza izatea ere posible dela dio autore horrek (Coyle et al., 2010).

CLIL akronimoa "umbrella term" gisa erabiltzen da, hainbat programa elebidunei erreferentzia egiteko ikerketa eta hezkuntza munduan. Izan ere, aplikatzen den testuinguruaren arabera hainbat aldagai, ikuspuntu eta metodologia hartzen ditu bere baitan. Gainera, Europako eta munduko beste tokitako hezkuntza errealitateak oso ezberdinak izan daitezke elkarrekiko (Dalton-Puffer eta Smit, 2007). Hortik, CLIL programen heterogeneotasuna azpimarra dezakegu ezagurri nagusi gisa. Heterogeneotasun hori hainbat modutan ematen da, testuinguruak helburuetan eta emaitzetan duen eragina kontutan hartuta (Nikula et al., 2013). Herrialde bakoitzeko testuinguruak (adibidez, hizkuntza- eta hezkuntza- politikek) ezarriko du oinarria CLIL programak hezkuntzan aplikatzerako garaian, eta herrialde baten barruan ere ezberditasun handiak egon daitezke komunitate autonomo edo probintzien

artean. Lasagabasterrek (2008) dioen moduan, CLIL ikerketak ipar-europan utzi dituen emaitzak, adibidez, ezin ditugu zabaldu Hego-Europako testuingurura, egoerak oso ezberdinak baitira. Gainera, CLIL programak hezkuntza-maila ezberdinetan ezar daitezke, haur hezkuntzatik goi-mailako ikasketaraino, eta ondorioz, ikasleen adinak eta horien gaitasunak ere eragin handia izango dute programa martxan jartzerakoan.

Dena den, CLIL nahiko malgua da eta testuinguru ezberdinetara egokitzen da (Coyle et al., 2010). Europa mailan egindako txosten baten arabera (European Commission et al., 2017), ia Europako herrialde guztiek eskeintzen dute CLIL moduren bat (14.orr). Kasu honetan, CLIL gisa ulertzen dituzte ikasleek berea ez duten hizkuntza batean ikasten dutenean. Horrela, bi motatako programak bereizten dituzte: alde batetik, *Type A*, atzerriko hizkuntza bat erabiltzen dutenak edukiak irakasteko; eta bestetik, *Type B*, hizkuntza gutxitu (euskara Espainian), bertakoa ez den hizkuntza bat (*non-territorial language*, samiera Suedian edo Finlandian, esaterako) edo estatuko beste hizkuntza bat (adibidez, Irlandan, non ingelesa eta Irlandako gaelera diren estatu-hizkuntzak) erabiltzen dutenak.

Herrialde ezberdinei begiratuz gero, badirudi Grezian, Bosnia eta Herzegovinan, Islandian eta Turkian ez dagoela inolako CLIL inplementaziorik (2017ko datuei erreparatuta) eta bestalde, Italia, Txipre, Luxemburgo, Austria, Maltan eta Liechtensteingo eskola guztietan eskaintzen dela nolabaiteko CLIL mailaren batean (European Commission et al., 2017, 57.orr). Estatu bakoitzak testuinguru ezberdinak biltzen dituenez, CLIL programak ikasleen behar ezberdinei egokitu behar dira.

Heterogeneotasun hori burutik kendu gabe, CLIL programen inplementazioetan ezaugarri nagusi batzuk ikustea interesgarria litzateke. Honako hauek dira Dalton-Puffer eta Nikula-k (2014) azpimarratzen dituztenak. Lehenik, definizioan agertzen den "additional language" hori normalean atzerriko hizkuntza bat dela diote, eta ez herrialdeko bigarren hizkuntza. Hortaz, ikerlari hauek CLIL atzerriko hizkuntzaren erabilerarein lotutako terminoa dela diote, Europako Batzordeak (2017) *Type A CLIL* deitzen duena. Beste modu batera esanda, ikasleek bizi diren testuinguruan presente ez dagoen hizkuntza bat erabiltzen da ikasgelan. Atzerriko hizkuntza hori normalean ingelesa da, eta horrexegatik hainbat ikerlarik (Dalton-Puffer, 2011; Dalton-Puffer et al., 2010; Paran, 2013), *Content and English Integrated Learning* (CEIL) kontzeptua erabili dute CLIL programetan ingelesak duen nagusitasuna azpimarratzeko.

Bigarrenik, irakasleen profilari dagokionez, CLIL irakasleak eduki irakasleak izan ohi dira, eta ez hizkuntza-irakasleak. Hauek, gainera, ez dute zertan atzerriko hizkuntzaren jatorrizko hiztun izan edo jatorrizko hiztunen maila eduki (García, 2009a, 130.orr). Gainera, CLIL irakasgaiek eduki-irakasgai gisa hartzen dira, eta ez dituzte bigarren edo atzerriko hizkuntza irakasgaia ordezkatzen. Beste modu batera esanda, ikasle horien ordutegian CLIL ikasgaiez aparte, atzerriko hizkuntza irakasgaia izan ohi dute.

Hala ere, aipatu behar da zenbait kasutan tradizionalki programa elebidunak edo murgiltze-programak deitu direnak oso gertu daudela CLILen definizioetatik. Antzekotasun eta ezberdintasun horiei buruz sakonago hitz egingo dugu 1.1.3 atalean. Orain, CLILen aurrekariez arituko gara, bere jatorriaz, hain zuzen.

1.1.2. CLIL eta bere aurrekariak: jatorria

Ikaslearena ez den hizkuntza bat eskolako komunikazio-hizkuntza bihurtze hori ez da gauza berria. Izan ere, jada duela 2.000 urte erromatar imperioak Grezia bereganatu zuenean, Erromako ume askok grekeraz ikasi zuten, hizkuntza horrek ate asko irekiko zizkielakoan (Coyle et al., 2010). Autore batzuk lehenago ere ikusten dute data hau (5000 urte) (Mehisto et al., 2008). Egun ezagutzen dugun CLIL kontzeptua 1990 inguruan hasi zen zabaltzen Europan, eta geroztik eduki duen hedapena izugarria izan da, baina CLILen aurrekariei begirada bat botatzea komeni da beste programa batzuk beregan eduki duten eragina ikusteko.

Europako hezkuntza eleaniztuna CLIL baino lehen

CLIL 1990.hamarkadan garatutako ikuspuntua dela ikusi dugu. Hala ere, Europan lehenago existitu dira eduki/irakasgai batzuk atzerriko hizkuntzan, eskualdeko hizkuntzan edo hizkuntza minorizaturen batean ematen diren eskolak (Eurydice, 2006, 7.orr). Esate baterako, 1953an sortu ziren *European Schools* deiturikoak, non ikaslearena ez zen hizkuntza batean edukiak ikasten ziren betiere alfabetatzea ikasleen ama-hizkuntzan bermatuz. Egia da, hala ere, eskola horiek Europako sektore elitista minorizatu bati mugatuta zeudela (Tragant et al., 2016, 579.orr), batez ere funtzionario europarren seme-alabek ikasten baitzuten bertan. Baetens Beardsmore-k (1991) azaltzen duen moduan, ingelesa, frantsesa eta alemanaren artean aukeratu behar dute beraien bigarren hizkuntza (H2) eta eskolako komunikazio-hizkuntza izateko edukiak ikasterako garaian. Gainera, ikasle hauentzat hirugarren hizkuntza (H3) ikastea

derrigorrezkoa da bigarren hezkuntzatik aurrera (Baetens Beardsmore, 1991, 7.orr).

Badirudi duela urte batzuk atzerriko hizkuntzak ikastearena gutxi batzuen pribilegio bat zela (Cenoz, 2012; Pérez-Vidal, 2015). Eurydice-k (2006, 7.orr) azaltzen duenez, hezkuntza eleanitza eskeintzen zuten eskualdeak "linguistikoki bereziak" ziren mugan zeudelako edo eskualdea bera elebiduna zelako. Gauzak horrela, Baetens Beardsmorek (1993) *international schools*ez gain Europako hezkuntza elebiduneko honako adibideak azaldu zituen bere lanean: Luxenburgoko sistema, Bruselako Foyer proiektua eta azkenik, katalan eta euskara murgiltzeak espainian.

Luxenburgoko sistemaren bitartez, biztanleria guztia hirueledun bihurtzen da eskola eta testuinguaren bitartez (Baetens Beardsmore, 1993, 201.orr). Sistema honetan ikasleak ama-hizkuntzan jasotzen zituen/ditu klaseak hasieran, gradualki eskolako komunikazio-hizkuntza alemana bihurtzen den arte (lehen hezkuntza bukaeran). Jarraian frantsesa pixkanaka gehitzen dute eta berriro ere gradualki komunikazio-hizkuntza bihurtzen da (Horner eta Weber, 2015).

Bruselako Foyer proiektua etorkinei zuzendutako lehen hezkuntzan ezarritako programa hirueleduna izan zen. Honela definitzen zuen Baetens Beardsmorek (1991) helburua: "this project is a unique Belgian initiative aimed at producing bicultural children with trilingual competence"(8.orr). Eskola hauetan ikasle etorkinek neerlandera ama-hizkuntza zuten ikasleekin ikasten zuten eskola orduen portzentai batean, baina klasetik ateratzen zituzten beraien ama-hizkuntza, neerlandera eta frantsesa aparte ikasteko.

Azkenik, katalan eta euskara murgiltze-programak/hezkuntza elebiduna aipatzen ditu Baetens Beardsmorek. Murgiltze-programa hauek 1980 hamarkadan jarri ziren martxan, eta hizkuntza gutxituaren normalizazio prozesuan pauso garrantzitsua izan ziren. Programa hauen bitartez ikasleek edukiak katalanez edo euskaraz ikasteko aukera izan zuten, herrialdeko hizkuntza nazioanala (gaztelera) hizkuntza irakasgai gisa ematen jarraitzen zen bitartean. Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza elebidunaren nondik-norakoak sakonago aztertuko ditugu 4. kapituluan.

Esan bezala, aipatutako eredu hauek Europako hezkuntza elebidunaren lehen urratsak izan ziren, eta badirudi esperientzia hauek mesedegarri izan zirela CLIL ikuspuntua sortzerako garaian.

Ipar Amerikako murgiltze eta programa elebidunak

CLIL Kanadako frantses murgiltze-programetan eta Ipar Amerikako hezkuntza elebidunean jatorri duen programa dela ere esan dezakegu (Pérez Cañado, 2012). Lehenak 1960ko hamarkadan sortu ziren Quebecen; ingeles-hiztun ziren familiek beraien seme-alabak frantsesez ikastea nahi zutelako, frantsesa nagusi zen leku batean bertako hizkuntza menperatzea ezinbestekoa iruditzen baitzizaien (Eurydice, 2006; Paran, 2013). Horretarako, haur hezkuntzako ikasle talde batek frantsesez jasoko zituen eskolako ordu guztiak, eta pixkana beren ama-hizkuntza txertatzen hasiko ziren gradualki (7 urterekin, grade 2) %50 era iritsi arte 12 urte zituztenean (Pérez-Vidal, 2007). Helburu konkretu batzuk lortu nahi izan zituzten (Baker eta Jones, 1998, 496.orr): (1) frantsesez hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko gaitasuna lortzea, (2) ingeles hizkuntzan eta curriculumeko beste irakasgaietan beharrezko maila lortzea eta (3) Kanadako frantses hiztunen eta ingeles hiztunen tradizio eta kulturak balioestea. Beste modu batera esanda, lehen murgiltze-programa horren helburua ikasle elebidunak lortzea izan zen, edukien maila gutxitu gabe. Arrakasta izan zuenez, herrialde guztian zehar zabaldu zen. Gerora, Kanadako testuinguru anitzei eta helburu ezberdinei erantzuna emateko, murgiltze-programa ezberdinak sortu ziren ikasleen adinaren arabera (*early immersion, middle immersion* eta *late immersion* bigarren hezkuntzan) eta murgiltzen pasatako denboraren arabera (*total immersion* eta *partial immersion*) (Baker eta Jones, 1998). Murgiltze-programek bigarren hizkuntzen irakaskuntza ikuspuntua aldatu zuen, eta gaiari buruz egindako ikerketak informazio asko eman zuen Europan antzeko programak martxan jartzerako orduan. Esaterako, eta gure testingurura hurbilduz, esan dezakegu iadanik Euskal Herrian martxan zeuden programa elebidunetan Kanadako murgiltze-programek eragina izan zutela.

Ipar Amerikan jarraituz, Amerikako Estatu Batuetako (AEB) hezkuntza elebidunak ere izan du eragina CLIL programen sorreran. Testuingurua nahiko ezberdina dugu hemen; Kanadan lortu nahi zena herrialdeko bi hizkuntza ofizialak nabarmendu eta sustatzea izan bazen, AEBn bestelako hizkuntza minoritarioak sartu ziren jokoan. Izan ere, herrialde horretako ume askoren ama-hizkuntza ez zen (eta ez da) ingelesa, eta beraz, populazioaren zati honi bertako gizartean bizitzeko beharrezko tresnak hezkuntza elebidunaren bidez ematea erabaki zen (Kim et al., 2015). Hezkuntza elebidunak AEBn hainbat programa hartzen ditu bere baitan; kasu gehienetan hizkuntza minorizatuetan mintzo diren jende-taldeei zuzenduriko programak dira. Hauetatik aipatu ditzakegu,

adibidez, *English as a Second Language (ESL)* programak, non ikasleek atentzio indibidualizatua jasotzen duten ingeles hizkuntza ikasteko garaian; *Transitional Bilingual education (TBE)* eta *Developmental Bilingual Education* non ikagelan bi hizkuntza presente dauden edukiak ikasteko garaian. Agian ezagunena eta arrakastatsuena *two-way immersion (TWI)* da; bertan, bi ikasle profil nahasten dira ikasgelan: hizkuntza minorizatua ama-hizkuntza duten ikasleak eta bigarren hizkuntza ikasi nahi duten ikasleak (ama hizkuntza ingelesa dutenak). TWI programen barruan ere aukera ezberdinak daude, *partial immersion* egiten dutenak (eskola bizitzan zehar %50 ingelesez eta beste %50a hizkuntza gutxituan) edo *full immersion* egiten dutenak, 2. mailara iritsi arte %90 hizkuntza minorizatuan ematen dutenak eta hortik aurrera 50:50 programara pasatzen direnak. Badago ere *one-way immersion* programa, lehen hizkuntza (H1) ingelesa dutenei zuzendua (Tedick eta Wesely, 2015), *foreign language immersion* ere deitzen zaiona. Testuinguru zabal honetan egin diren ikerketak askotarikoak izan dira, bai prozesua aztertu dutenak baita emaitzak neurtu dituztenak ere. Gauzak horrela, AEBko esperientzia eta gaiari buruzko literatura lagungarri suertatu zen Europako CLIL programen ezaugarriak zehazterako orduan.

Inspirazio iturri izan baziren ere, CLIL aurreko programetaz ezberdintzen da aspektu batzuetan. Alde batetik, helburuak bestelakoak dira: Kanadan xedea tokiko hizkuntza ofizial bat menperatzea edo AEBn hizkuntza nagusian arazorik ez izatea (ingelesa) bilatzen bazuten, CLIL programek atzerriko hizkuntzan gaitasun komunikatiboak garatzea bultzatzen dute, Europar kontinenteko hizkuntza aniztasuna kontutan hartuz eta eleaniztasunerantz begiratuz. Egia dena zera da, Lorenzok (2007b, 27.orr) dioen moduan programa hauek guztiak gizarte beharrei erantzuteko sortutako ekimenak direla, eta CLIL, modu berean, hezkuntza behar bat baino gehiago dela.

1.1.3. CLIL ,CBI, eta murgiltze-programak: berdina ala ezberdina?

Gaur egun, ugariak dira munduan zehar hizkuntza gehigarri bat (atzerriko hizkuntza, H2 edo H3) edukiak irakasteko erabiltzen dituzten programak. *Hezkuntza elebiduna, murgiltzea, Content-based Instruction (CBI), English as a Medium of Instruction (EMI)* edota *CLIL* izenpean ezagutzen ditugu, eta dirudienez, ez dago bat-etortzerik terminologia bat edo bestea aukeratzerako garaian.

Hezkuntza elebiduna termino anbiguo bat dugu. Baker eta Wright-ek (2017), definizioa argitzeko asmotan, bi adiera bereizten dituzte. Alde batetik, hezkuntza elebidunak ikasle elebidunez osatutako hezkuntza islatzen du, bi hizkuntzen erabilera sustatzen ez duen eta elebitasuna xede ez duten programetaz ari gara. Programa hauek gehienetan ama-hizkuntza hizkuntza minorizatu duten eta gehiengoaren hizkuntzan ikasten duten ikasleez osatuak egoten dira. Bestetik, bi hizkuntza (edo gehiago) komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzen dituzten programak ditugu (197.orr). Arestian ikusi dugunez, Garciak (2009a) adiera hau jarraitzen du eta hezkuntza elebiduna definitzerakoan honako hau dio: "bilingual education programs use the language *as a medium of instruction*; that is, bilingual education programs teach content through an additional language other tan the children's home language" (6.orr). Hezkuntza elebidunak, beraz, bere baitan hartzen ditu murgiltze-programak, *two-way immersion programs*, Content-Based Instruction (CBI), CLIL eta antzekoak (ikus sailkapenak Baker eta Wright, 2017, 199.orr; García, 2009a, 123.orr).

Asko dira, ordea, CLIL terminoaren originaltasuna azpimarratzen duten ikertzaileak. Hauek hezkuntza elebidunak eta murgiltzeak CLILekin dituzten antzekotasunak onartzen dituzte (Coyle et al., 2010, 1.orr), baina bi bereizgarri azpimarratzen dituzte: lehenik, hizkuntza eta edukien artean ematen den integrazioa; eta bestetik, testuinguru europearrean sortu eta garatutako programa izatea (Coyle, 2007, 545.orr). Lorenzok (2007b) ere CLILek bere ezaugarri propioak dituela dio: "The time when it has appeared, the places where it has been adopted and the learning theory behind it turns CLIL into a successful attempt at language and social change in 21st century Europe" (27.orr).

Autore batzuk CLIL, CBI eta murgiltze-programen arteko desberdintasunak azpimarratzen saiatu dira (Dalton-Puffer et al., 2014; Lasagabaster eta Sierra, 2010), baina badirudi orokorrean CLIL eta murgiltzearen arteko aldeak gehiago lotzen dituztela testuinguruarekin ezaugarri pedagokiokin baino. Horregatik, ondorengo parrafoetan ikusiko dugunez, zalantzan jartzen da bi termino hauen esanahia hain ezberdina denik (Cenoz, 2015; Cenoz et al., 2013; Paran, 2013; Somers eta Surmont, 2012).

Dalton-Puffer-ek (2011) aipatzen du programak izena hartzerako garaian testuinguruaren ezaugarriak ere hartzen direla kontutan, eta ez programaren ezaugarriak soilik: "In fact, whether a concrete program is referred to as

immersion or CLIL often depends as much on its cultural and political frame of reference as on the actual characteristics of the program" (183.orr).

Murgiltze-programez ari garenean, esan dezakegu normalean ikaslearena ez den hizkuntza erabiltzen dela irakas-hizkuntza gisa gutxienez eskola-ordutegiko %50ean. Portzentai hori handitu daiteke %100ra iritsi arte. Programa hauen barruan, bereiz daitezke adin txikietan hasten direnean (*early immersion*) edo maila altuago batean daudenean hasten direnean (*late immersion*) (Dallinger et al., 2016). Dena den, CLIL eta murgiltzeak oso hurbil daude elkarrekiko, esan bezala, ezaugarri pedagogiko nagusiak elkarbanatzen baitituzte eta ezberdintasunak testuinguruari lotutakoak baitira nagusiki.

Izan ere, historikoki berezia eta bakarra izateak, ez du esan nahi CLIL pedagogikoki ere hala denik. Horixe argudiatzen dute Cenoz et al.-ek (2013) CLIL eta murgiltze-programei eman zaizkien definizioak aztertzen dituzten lanean. CLIL, murgiltzeak, CBI eta antzeko programetaz isolatzeak ekar ditzaken arazoak aipatzen dituzte. Izan ere, lan honetan, CBI programa bat, murgiltze-programa bat eta CLIL programa baten ezaugarriak aztertzen dituzte, kontutan hartuz programa bakoitzaren helburuak, ikasle eta irakasleen profilak, irakas-hizkuntza, eduki eta hizkuntzaren arteko balantza eta azkenik, materialen sorrera edo irakaste-moduak bezalako beste ezaugarri batzuk. Ondorioztatzen dute funtsean ez duela zentzurik bi horien arteko bereizketa kategorikorik egitea. Bat-egiten dugu horiekin murgilketan egin den ikerketa CLILentzat oso lagungarri izan daitekela esaten dutenean:

> First, by isolating CLIL, advocates are depriving CLIL educators of valuable information from research on immersion education and related forms of CBI that could inform and improve their efforts in CLIL classrooms and programs in Europe and else- where. Secondly, a pre-occupation with the uniqueness of CLIL isolates CLIL theoreticians and researchers from mainstream research on multilingual and L2 education, as, logically, anything that is unique is unrelated to other forms of L2 education. Rather than insisting on the uniqueness of CLIL, efforts might be better spent establishing a taxonomy of different common forms of CLIL/CBI so as to circumscribe the diverse contexts in which CLIL is found (Cenoz et al., 2013, 16.orr).

Bestalde, CBI eta CLILen arteko antzekotasunak aztertu dituzten lanak ditugu. Izan ere, normalean sinonimo gisa erabiltzen dira, CLIL Europan gehiago erabiltzen delarik eta CBI, berriz, Ipar-amerikan. Cenozek (2015) CBI eta CLIL

programen arteko funtsezko ezaugarriak eta testuinguruaren araberako ezaugarriak aztertzen ditu, ondorioztatzeko ezaugarri garrantzitsuenak elkarbanatzen dituztela programa horiek. Horretarako, funtsezko ezaugarriak (*essential properties*) eta testuinguruaren araberako ezaugarriak (*accidental properties)* bereizten ditu. Funtsezko ezaugarrien artean, aipatzen ditu irakas-hizkuntza, hizkuntza-helburuak, hezkuntza- eta gizarte- helburuak, eta ikasle mota, eta continuum batzuen bitartez azaltzen ditu, 1.1 irudian ikus dezakegun bezala.

1.1 Irudia. CLIL/CBI funtsezko ezaugarriak. Cenoz (2015). Euskarara itzulia.

Horrela, continuum hauetan koka daitezke CLIL/CBI programa ezberdinak, beren funtsezko ezaugarrien arabera, eta ikus daiteke nola aldentzen diren EZ-CLIL programetatik. Esaterako, irakas-hizkuntzaren continuuma hartzen badugu, ikus dezakegu CLIL/CBI programa ezberdinak bertan kokatu daitezkeela irakasteko hizkuntzen arabera. Adibidez, continuumaren eskuin aldean kokatuko genuke hizkuntza nagusi bat, ikasleen H1a, erabiltzen denean klaseak emateko (EZ-CLIL/CBI), eta ezker aldean berriz, atzerriko hizkuntzaren bat edo bigarren hizkuntza bat erabiltzen denean edukiak ikasteko. Berdin aplikatzen da hizkuntza-helburuei dagokion continuuma. CLIL/CBI programek eleaniztasuna izan ohi dute helburu, nahiz eta programa ezberdinak izan. CLIL/CBI programen beste helburuetako bat da ikasleak aberastea helburu dutela. Ikasle hauek kultura ezberdinak ezagutzera bultzatzen da, elkarrekin komunikatzera eta hortaz, gizarte eta hezkuntza helburua ez da kultura batean asimilatzea baizik eta aberastea. Continuumaren beste ertzean, asimilazioa deitzen duenean, kokatu daitezke testuinguru ezberdin batetik datozten ikasle

etorkinak. Azkenik, funtsezko ezaugarrietako bat ikasle profila da Cenozen (2015) ustez, CLIL/CBI programetan ikasleak hizkuntza nagusi baten hiztun izan ohi dira-eta. Hala ere, kasu batzuetan salbuespenak ere egon daitezke, *two-way immersion* programetan bezala, zeinetan ama-hizkuntza ezberdinetako ikasleak biltzen diren. Dena den, continuum horretan kokatu daitezke ezaugarri horien araberako CLIL/CBI eskolak.

Esan bezala, Cenozek (2015) testuinguruaren arabera alda daitezken ezaugarriak ere azpimarratzen ditu (*accidental properties*), hala nola, irakas-hizkuntza izateko aukeratutako hizkuntza, irakasleak jatorrizko hiztun edo ez izatea, ikasleen adina eta programaren jatorria. Hauek ez direla funtsezko ezaugarriak argi argudiatzen du. Gauzak horrela, defendatzen du funtsean CLIL eta CBI berdinak direla eta ikerketari eta hezkuntza adituei lagungarri izango zaiela bi termino hauek sinonimo gisa erabiltzea.

Dena den, termino baten edo bestearen aukeraketa ez luke hain garrantzitsua izan beharko, betiere kontutan hartzen baditugu hizkuntza eta edukien integrazioa oinarri duten planteamendu guztiak (Ruiz de Zarobe eta Cenoz, 2015, 91.orr). CLIL kontzeptuari buruzko ikuspegi ezberdin hauek direla eta, esan dezakegu CLIL definizio unibertsal bat ematea zaila dela (Oattes, Oostdam, de Graaff, eta Wilschut, 2018). Honek, gainera, CLIL ulertzeko modua ez ezik, CLIL inplementatzeko moduetan ere eragina du (Martí eta Portolés, 2019).

Gure testingurura etorriz, 4. kapituluan ikusiko dugu Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ikasle askok ikasten dutela euskaraz. Eredu hau murgiltze eredu gisa hartzen da, baina CLILetaz oso hurbil dagoela ondoriozta dezakegu. Askorentzat, euskara H2a da, eta ez atzerriko hizkuntza, baina zenbait kasutan kontaktu bakarra hizkuntzarekin eskolan ematen da. Gainera, edukia ematen duten irakasleek euskaraz irakasten dituzte edukiak eta euskarako klaseak ere badaude curriculumean. Ikusten da, beraz, CLIL eta murgilketak ezaugarri komunak dituztela. Tesi lan honetan ingelesa irakas-hizkuntza gisa erabiltzen denean aztertu behar dugunez, eta klase horiek %50ra iristen ez direnez (murgilketan bezala) CLIL erabiliko dugu hemendik aurrera gure lanean, baina ezaugarri komunak onartzen ditugu.

1.1.4. Ikerketa lehen eta orain

Ikuspegi pedagogiko berri honen aurrean asko izan dira guraso, irakasle eta ikerlarien galderak programa hauen eraginkortasunari buruz. Hortaz, asko ikertu da CLILi buruz. Atal honetan azken urtetan argitaratu diren ikerketa batzuk aipatuko ditugu, inplementazioaren arlo ezberdinak ikertu dituztenak. Gure kasuan, bat egiten dugu CLIL eta beste programa elebidunen antzekotasunak azpimarratzen dituzten lanekin, baina arestian esan bezala, literatura mugatzearren, atentzioa jarriko dugu Europar Batzordeak *Type A CLIL* deitzen dionean, hau da, atzerriko hizkuntza bat (eta ez herrialde horretako beste hizkuntza bat, esaterako) erabiltzen denean edukiak transmititzeko.

Atzerriko hizkuntza eta CLIL

Asko aztertu da CLILek ikasleen hizkuntzetan duen eraginari buruz. Izan ere, CLILen inguruan egin diren ikerketa gehienak atzerriko hizkuntzan CLILek duen eragina aztertu nahi izan dute. Paran-ek (2013) honi azalpena bilatzeko asmoarekin, ikerketa egiten duen pertsonarekin lotzen du, honako hau esanez: "CLIL research is conducted by language educators rather than subject specialists, and therefore focuses almost exclusively on language, with content knowledge rarely examined or measured" (323.orr).

Ikerlan horietako askok CLIL programak eta atzerriko hizkuntza ikasteko metodo tradizionalak konparatu nahi izan dituzte. Jarraian ikusiko dugunez, positiboa dirudi, oro har, CLILek hizkuntzaren ikaste prozesuan duen eragina ikasleak maila berdinean daudenean. Admiraal et al.-ek (2006) CLIL programak Herbereetan ezartzen hasi ziren garaian (1993 inguruan) bildutako datuekin, bigarren hezkuntzako CLIL ikasleak eta EZ-CLIL ikasleak alderatu zituzten lau urteko luzetarako ikerketa batean. CLIL taldearen emaitzak hobeak zirela ikusi zuten irakurmenean, mintzamenean eta ahoskeran, ikasleen ingeles maila neurtu ondoren. Gainera, ez zuten efektu negatiborik aurkitu ikasleen edukien ikaste prozesuan ezta ikasleen ama-hizkuntzan ere.

Ildo beretik eta testuinguru ezberdinetan antzeko ikerketak errepikatu dira. Esate baterako, Lorenzo et al.-ek (2010) Andaluziako lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako atal elebidunen (*secciones bilingües*) eragina aztertzeko asmotan, adin bereko CLIL eta EZ-CLIL ikasleak (ingelesa soilik irakasgai gisa ematen dutenak) alderatu zituzten. Ikasle hauen CLIL hizkuntza ingelesa zen lehenengo taldearentzat, alemana bigarrenarentzat eta frantzesa azken

taldearentzat. Atzerriko hizkuntza edozein izanda ere, CLIL ikasle talde guztiek EZ-CLIL ikasleak baino emaitza hobeagoak lortu zituzten neurtutako lau trebetasunetan, hau da, irakurmenean, idazmenean, entzumenean eta mintzamenean.

Gure testuinguruan, Lasagabaster (2008) eta Ruiz de Zaroberen (2008) ikerketak ditugu aipagai. Bietan bi hizkuntza maneiatzen dituzten eta atzerriko hizkuntza gisa ingelesa duten ikasleen profila dugu. Lehenengoan, bigarren hizkuntzako 4. mailako CLIL eta EZ-CLIL ikasleei lau trebetasun nagusiak neurtzeko azterketak egin zitzaizkien. Emaitzek CLIL ikasleen alde egin zuten berriro ere, trebetasun bakoitzean eta ingeles maila orokorrean lortutako emaitzak hobeak izan ziren-eta. Bigarrenak, berriz, hiru urteko luzetarako ikerketa batean hiru talde bereizi zituen: CLIL1 taldea, CLIL irakasgai bakarra zuten ikasleena; CLIL2, bi CLIL irakasgai zituzten ikasleena; eta azkenik, EZ-CLIL taldea, derrigorrezkoa den ingeles irakasgaia soilik zuten ikasleena. Bi CLIL taldeek azken taldeko ikasleak baino emaitza hobeak lortu zituzten, eta zehazki, CLIL2 taldeak lortu zituen emaitza hoberenak.

Ikerketa hauetatik ondorioztatu dezakegu CLILen lortutako emaitza positibo horiek CLILen eraginagatik ez ezik, ikasleak atzerriko hizkuntzarekiko duen esposizioa handitzen delako justifikatu daitezkela (Ruiz de Zarobe eta Lasagabaster, 2010). CLIL ikasleek derrigorrezko atzerriko hizkuntza irakasgaia egiten jarraitzen dute, eta beraz, logikoa da atzerriko hizkuntzan emaitzak hobeagoak izatea (Dalton-Puffer, 2011). Gauzak horrela, CLIL ikasleak EZ-CLIL ikasle zaharragoekin alderatzen dituzten ikerketak egin dira, atzerriko hizkuntzarekiko esposizio ordu kopurua berdina izanik benetan CLILek ikasleen hizkuntza ikaste prozesuan duen eragina ikusi ahal izateko.

Esate baterako, Navés eta Victorik (2010) maila ezberdinetako 837 ikasleen maila neurtu zuten entzumena eta gramatika azterketa, cloze test bat eta diktaketa baten bidez. Ikerketa berdinean, idazmena ere neurtu zuten. Ikerlarien helburu nagusia CLIL ikasleen maila EZ-CLIL ikasle zaharragoen mailara iristen zen ikustea zen. Hizkuntza-maila orokorra neurtzeko eta idazmena neurtzeko erabili ziren tresnen bidez ikusi zen DBHko 1. Mailako CLIL ikasleek bi maila altuagoko EZ-CLIL ikasleen antzeko emaitzak ateratzen zituztela test guztietan. Gainera, CLIL egiten zuten 2. DBHko ikasleek 3. DBHko EZ-CLIL ikasleen emaitzak hobetu zituzten. Hala ere, lan honen autoreek onartzen dute hauek kontuz aztertu beharreko emaitzak direla, eskola partehartzaileek ingeles ordu kopuru

ezberdinak eskaintzen baitzituzten, beraz, ordu kopurua ez zen osotara kontrolatu.

Euskal Herrian ere egin dira ikerketa mota horiek. Ikasle elebiduneko testuinguru batean, Ruiz de Zarobek (2010) eta Lasagabasterrek (2008) antzeko ikerketetan bigarren hezkuntzako CLIL ikasle batzuk konparatu zituzten CLIL egiten ez zuten ikasle zaharragoekin. Bi ikerketen emaitzak antzekoak izan ziren: adin eta maila ezberditasuna kontutan hartuta, CLIL ikasleek beren EZ-CLIL ikasleen mailara iritsi eta hobetu zutela idazmena neurtzerakoan (Ruiz de Zarobe, 2010) eta maila orokorra neurtzerakoan (Lasagabaster, 2008).

Ikerketa berriago batean, Martínez Adrián eta Gutiérrez Mangadok (2015) hiru taldetan sailkatu zituzten Euskal Herriko D ereduko (euskara irakas-hizkuntza nagusia den eredua) bi ikastetxeko ikasleak ingelesarekiko edukitako esposizio ordu kopuruen arabera. Lehena, CLIL1, 4. DBHko ikasleek osatzen zuten (1155 ordu); bigarrena, EZ-CLIL1, CLIL egiten ez zuten 4. DBHko ikasleek (1148 ordu); eta azkenik, EZ-CLIL2, 2. Batxilergoko ikasleez osatuta zegoena (990 ordu). Lehen taldeko ikasleak 8 urterekin hasi ziren ingelesa ikasten, eta 12rekin sartu ziren CLIL programa batean (arloak ingelesez). Beste bi taldeko kideek 4 urterekin eta 8 urterekin hasi ziren ingelesa ikasten, hurrenez hurren. CLIL taldearen emaitzak hobeagoak izan ziren EZ-CLIL taldearenak baino, ingelesarekiko esposizio ordu kopuru berdina bazuten ere. Gainera, CLIL taldeak bi urte zaharragoak ziren ikasleen maila hobetzea ere lortu zuten. Autoreek ondorioztatu zuten ingelesez emandako ordu kopuruagatik beharrean, CLIL programa berak lortzen dituela emaitza positibo hauek (Martínez Adrián eta Gutiérrez Mangado, 2015, 67.orr).

Hizkuntzarekiko gaitasun orokorrak aztertu ez ezik, CLIL ikerketa hizkuntza aspektu zehatzagoen analisia egiten ere saiatu da. Esaterako, azken urtetan idazmenean zentratutako ikerlan ugari argitaratu dira (Gené-Gil et al., 2015; Jexenflicker eta Dalton-Puffer, 2010; Lahuerta, 2017; Ruiz de Zarobe, 2010), baita hiztegiaren jabetzean zentratu direnak ere (Agustín Llach, 2015; Canga Alonso, 2015; Ruiz de Zarobe et al., 2006; Ruiz de Zarobe eta Jiménez Catalán, 2009; Tragant et al., 2016) edota ahozko adierazpenean (Gallardo del Puerto eta Gómez Lacabex, 2013; Juan-Garau, 2010; Rallo Fabra eta Jacob, 2015). Arestian aipatutako ikerlanei esker badakigu, ordea, hizkuntza atal batzuk beste batzuk baino etekin gehiago ateratzen diotela CLILi. CLILek hizkuntza ikaste prozesuan eskeintzen dituen onurei buruz Pérez-Cañadok (2012) horrela laburtzen du:

> The positive effect is felt on global communicative competence, on receptive skills, speaking (a greater fluency is displayed), morphology (with increased automatization and appropriacy of use being found), vocabulary (particularly technical and semi-technical terms), writing (fluency and lexical and syntactic complexity), creativity, risk-taking, and emotive/affective outcomes (learner motivation). Furthermore, students with average FL talents and interest have also been shown to benefit from CLIL instruction, so that this sort of program seems to make language learning more accessible to all types of achievers. However, pronunciation, syntax, writing (accuracy and discourse skills), informal and nontechnical language, and pragmatics remain largely unaffected, perhaps owing to an insufficient focus on form in CLIL classrooms (329-330.orr)

Badirudi, beraz, nahiko positiboak direla ikasleen atzerriko hizkuntza ikasterakoan CLILek dituen ondorioak, abantaila horiek hizkuntzaren aspektu zehatz batzuetan beste batzuetan baino gehiago nabarmentzen badira ere (ikus Roquet eta Pérez-Vidal, 2015). Interesgarria da aipatzea, Perez-Cañadok (2012) dioen moduan, badirudiela emaitza positiboagoak lortzen direla batez ere ulermenean edo hizketaldian, adibidez, eta ordea, emaitzak ez direla hain onak idazmenean, sintaxian edo ahoskapenean. Ikerlari honek arrazoi posible bat ematen du, hain zuzen, klasean hizkuntzari arreta esplizitua ez jartzearena. Hurrengo atalean aztertuko dugu CLIL klaseetan hizkuntzari jartzen zaion arreta.

Hala ere, eta emaitzekin jarraituz, kontutan hartu behar dugu CLILen arrakasta hainbat eragileei lotuta dagoela, testuinguru eta hezkuntza faktoreei eta batez ere eskolan erabiltzen diren pedagogiei, hain zuzen (Cenoz eta Ruiz de Zarobe, 2015).

Hori kontutan hartuta, CLILi buruzko ikerlan batzuk aztertu eta ikuspuntu kritikoa hartu dutenak ditugu. Bruton-ek (2011) dio egin diren ikerketetan ez ezik, emaitzen analisian ere anomaliak daudela (523.orr), eta zalantzan jartzen ditu lan horietatik ateratako ondorioak. Autore honek azpimarratzen du ikerlan gehienetan CLIL ikasleak nolabaiteko "aukeraketa" baten ondorio direla, eta beraz EZ-CLIL ikasleekin egindako konparaketak ez direla parekagarri. Kontua da, arestian aipatutako ikerlan askok ez dutela zehazten CLIL ikasle horien profila zein den, ea nolabaiteko balintzarik betetzen duten CLIL egiteko edo ikasle orok parte hartu dezaketen ingelesez bidezko ikasgaietan. Gainera, Brutonek (2011) kontutan hartu beharreko aldagai batzuk ere aipatzen ditu,

besteak beste, ikasleek eskolaz kanpo jasotzen dituzten ingeles klase partikularrak edota eskola bakoitzeko testuinguru konparaezina (530.orr). Egia da ikerlan askotan emaitza positiboagoak lortzen direla CLIL ikasleekin, baina kontutan hartu behar da kasu askotan CLILen dauden ikasleak ikasle hobeak izan daitezkela, edo CLILen sartzeko maila konkretu bat izan behar dutela. Hortaz, elitista dela argudiatu da. Gainera, kasu askotan, ikerlanek ez dute zehazten CLILen dauden ikasleen profila EZ-CLIL ikasleenekin alderatzeko. Era berean, azken urteetan egon dira edukiei erlazionatutako hizkuntza-maila edo hizkuntza akademikoa neurtzen duten ikerketak eta emaitza ez hain positiboak lortu dituztenak (Dalton-Puffer, 2013).

Badirudi, beraz, ikerketa solidogoen alde egiteko beharra dagoela (Cenoz et al., 2013; Pérez Cañado, 2012, 2016b), betiere kontutan hartuz zein den horrelako programa bat ezartzearen helburua eta ekar ditzaken onura eta kalteak.

Ikasleen hizkuntza(k) eta CLIL

Canadako eta AEBko ikerketek erakutsi dute murgiltze-programek ez dutela ikasleen ama-hizkuntzan eragin negatiborik (Cummins, 1995). Gutxiago ikertu da ikaslearen ama-hizkuntzan edo hizkuntzetan CLILek eduki ditzaken efektuetan.

Adibide horietako bat dugu esaterako, Finlandian Merisuo-Storm-ek (2007) lehen hezkuntzako haurrekin egindako ikerketa. Bertan, CLIL egiten zuten ikasleak (%20 ingelesez egiten zutenak) alderatu zituen Finlandieraz ikasten zutenekin. Bi urtez ikasleen emaitzak aztertu zituen eta ondorioztatu zuen CLILek ez zuela negatiboki eragiten ama-hizkuntzan alfabetatze prozesuan, ez behintzat atzerriko hizkuntzak eskolen %20 hartzen duenean.

Bere doktorego tesian Egigurenek (2006) atzerriko ikaste goiztiarrak eta CLILek ikasleen hizkuntza-mailan (euskara eta gaztelera) eraginik ba ote zuen ikertu zuen. Horretarako, bi talde konparatu zituen: alde batetik, atzerriko hizkuntza lau urterekin ikasten hasi ziren ikasleak; eta bestetik, astean bi egunetan plastika ingelesez egiten zuten ikasleak (CLIL), 8 urterekin ingelesa ikasten hasi zirenak. Autoreak ondorioztatu zuen CLILek ez zuela ondorio negatiborik uzten ikasleen euskara eta gaztelera jabetzea-prozesuan. Berdina ondorioztatu zuten Merino eta Lasagabasterrek (2015) ikerketa berriago batean.

Jarraian aipagai dugun ikerketa Andaluziako testuinguruan kokatzen da. Ramos García et al.-ek (2011), lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako bi CLIL

eredu EZ-CLIL ereduekin alderatu zituzten, besteak beste, H2an (ingelesa) emandako ordu kopuruak H1en (gaztelera) garapenean eragin negatiborik bazuen ikusteko. Lehen CLIL ereduko ikasleek eskolen herena ematen zuten ingelesez, hau da, 920 ordu (lehen hezkuntzako taldean) eta 1.680 ordu (bigarren hezkuntzako taldean) izan ziren ingeles esposizio denbora. Bigarren CLIL ereduko ikasleek ingeles gehiago zeukaten curriculumean, %50a, eta beraz, ingelesarekiko esposizio denbora handiagoa zen talde horientzat (1.900h lehen hezkuntzan eta 3.150 ordu bigarren hezkuntzan). Gainerako ikasleak ez ziren Andaluziako Hezkuntza Elebiduneko proiektuko parte, eta ondorioz, ingelesarekiko esposizio ordu kopurua txikiagoa zen (385 ordu lehen hezkuntzako taldean eta 805 ordu bigarren hezkuntzako taldean). Lehen-hezkuntzako azken urtean (12 urte) eta bigarren hezkuntzako azken urtean (16 urte) egin zituzten gaztelera (H1) probak adin bereko EZ-CLIL ikasleen emaitzekin alderatu eta gero, ondorioztatu zuten H2an eskeinitako ordu kopuruak ez zuela ama-hizkuntza-maila negatiboki eragiten.

Espainiako testuinguruan jarraituz, Navarro-Pablo eta López Gándararen (2019) lanean ikusi zuten, eragin negatiborik ez, eta gainera, CLIL ikasleek kurtso bukaerako Gaztelerako frogan EZ-CLIL ikasleek baino emaitza hobeak zituztela. Sevillako zazpi eskoletako ikasleen lagina hartuta (N=271), argudiatzen dute emaitza horiek CLIL klaseetan H1 eta atzerriko hizkuntzaren erabileraren ondorio izan daitezkela. Dena den, eskolako irakasle eta ikasleen hitzetan, CLILek eragin positiboa izan dezake, batez ere ikasleak hobeto ulertzen baitu hizkuntzen funtzionamentuari buruz.

CLIL egiten duten ikasleek ama-hizkuntza eskola ordu asko edukitzen jarraitzen dute (Dalton-Puffer, 2008), eta baliteke hori izatea atzerriko hizkuntzak beraien ama-hizkuntza gaitasunetan eragin negatiborik ez edukitzearen arrazoia. Ikusi dugunez, CLILek ama-hizkuntza trebetasunak garatzerakoan ez du oztoporik jartzen, ikerketak aho-batez ondorioztatu duen bezala.

CLILen eragina edukiak ikastean

Hizkuntza gehigarri batean edukiak ikastearen kontuak hizkuntzengan duen eragin positiboa ikusi dugu, baina edukien barneratze prozesuan gertatzen dena kezkagarria izan daiteke irakasle eta familia batzuentzat. Izan ere, ikasleak ondo dominatzen ez duen hizkuntza batean edukiak barneratzeari eragingo ote dion pentsatzea arrunta da (Dalton-Puffer, 2008).

Orokorrean, ordea, CLIL ez dirudi kaltegarria ikasleek edukiak barneratzerakoan (Ruiz de Zarobe eta Lasagabaster, 2010; Seikkula-Leino, 2007; Serra, 2007). Esaterako, aurreko atalean aipatutako Admiraal, et al.-en ikerlanean (2006) ez zuten ezberdintasun esanguratsutik aurkitu ingelesez ikasten zuten eta nederlanderaz (H1) ikasten zuten ikasleen artean geografia eta historia azterketak egin ondoren.

Gure testuinguruan, Eusko Jaurlaritzak ISEI/IVEI-en bitartez zuzendutako ikerketa (ISEI-IVEI, 2007) edo Grisaleña Urrecho, Alonso García eta Campo Postigorena (2009) dugu. Lan honen helburua "DBHko zenbait ikastetxetan ezarritako esperientzia eleaniztunaren (…) balio hezigarria eta eraginkortasuna egiaztatzea" izan zen (ISEI-IVEI, 2007, 17.orr), gero beste ikastetxe batzuetan aplikatu ahal izateko. Ingelesez irakatsitako irakasgaietan eskuratutako ezagutza-maila eta ama-hizkuntzean ikasten (euskaraz edo gazteleraz) dutenen maila parekoa dela egiaztatu zuten, eta zenbaitetan, maila altuagoa dela CLIL egiten duten ikasleetan.

Aldiz, emaitza hain positiboak lortu ez dituzten lanak argitaratu dira. Seikkula-Leino-k (2007) erakutsi zuen matematika ama-hizkuntzan ikasten zuten ikasleek aukera gehiago zutela emaitza hobeak lortzeko matematika ingelesez egiten zuten ikasleek baino. Ikerketa berriago batean, Asturiasen egindako kokatutako ikerketa batean (Fernández-Sanjurjo et al., 2017) zientziak ingelesez ematen zituzten lehen hezkuntzako seigarren mailako ikasleak maila bereko ikasle elebakarrekin alderatu zituzten. 709 ikaslek parte hartu zuten ikerketan eta gazteleraz erantzun beharreko zientzia azterketa batean, CLIL egiten ez zuten ikasleek emaitza hobeak lortu zituzten.

Laburbilduz, edukien jabetzeari buruz egindako ikerketa gehienak emaitza positiboak eman baditu ere, edo behintzat, ondorio negatiboak erakutsi ez baditu ere, ikerketa gehiago behar da, faktore ezberdinak hobetu aztertu eta ondorioak atera ahal izateko.

CLILen inguruan egindako bestelako ikerketak: prozesua

CLILek ikasleengan eduki ditzaken onura edo kalteetan arreta jarri duten lanez aparte, azken urteotan prozesuan arreta jarri duten lanak ugariak izan dira. Izan ere, CLIL inplementatzeko moduak landu dituzten lanak, metodologiak aztertu dituztenak, CLIL ikasgelako diskurtsoaren ezaugarriak azpimarratu dituztenak, eta azken finean, eskola praktikak eta irakasle eta ikasleen hitzak bildu dituzten

lanak asko dira. Tesi honetan, helburu nagusia CLIL inplementazio zehatz batzuk aztertzea izango da.

Ondorengo atalean, hizkuntza eta edukiak integratzeari buruz arituko gara, bai eta integrazio hau eskola praktiketan nola islatzen den ikusiko dugu.

1.2.   Hizkuntza eta edukien integrazioa

Ikusi dugu CLILen historiako lehen urteetan emaitzen berri izatea zela nagusi, ikasleen hizkuntza eta eduki maila eta protagonisten iritziak biltzen zituzten lanen bidez. Ikerlan berriagoak, ordea, integrazio kontzeptuari buruz aritu dira bai CLILen bai antzeko programa elebidunetan, eta eduki eta hizkuntzak modu integratuan nola irakasten diren azaltzeko irakasleen pedagogiak eta praktikak aztertu dituzte. Integrazioa zer den eta nola gertatzen den oso garrantzitsua da ez bakarrik programa elebidunak aztertzen dituzten ikerlarientzat baizik eta ikasleen garapena bultzatzen duten irakasle eta eskola agintarientzat ere (Jakonen, 2019, 428.orr).

1.2.1. Integrazioa eta balantzea bilatuz: teoria

CLIL "umbrella term" gisan erabiltzen dela ikusi dugun arren, terminoa definitzerako garaian hizkuntza eta edukiaren arteko erlazioan jarri izan da garrantzia, Do Coyleren definizioan ikus daitekeen bezala: "an integrated approach where both language and content are conceptualized on a continuum without an implied preference for either" (Coyle, 2007, 545.orr). Hala eta guztiz ere, CLIL programa batzuk, praktikan, ez dute biekiko arreta berdin hori erakusten (Lin, 2016b).

Hizkuntza edota edukian jartzen duten atentzio hori irudikatzeko hainbat izan dira CLIL eta antzeko programa elebidunak continuum-etan ezarri dituzten autoreak. Izan ere, eta aurreko atalean ikusi dugun bezala, ezberdintasun ugari egon daitezkeen arren, CLIL eta murgilketak, content-based instruction edo beste programa elebidunek ezaugarri nagusiak elkarbanatzen dituzte (Cenoz, 2015). Honek esan nahi du helburua hizkuntza eta edukia integratzea denean sortu daitezken arazo eta erronkak oso antzekoak izango direla (Morton, 2016). Integrazioaz aritzean, beraz, CLIL deitu ez diren testuinguruak ere kontutan hartuko ditugu, helburu komun hori banatzen dutelako.

Aski ezaguna dugu Met-en (1999) continuuma 'content-based' programetaz ari zenean. Bertan, Metek 'content-driven' eta 'language-driven' ardatzak erabili zituen programa ezberdin horiek sailkatzeko. Content-driven ereduek honako ezaugarriak dituztela dio: 1) edukia H2a erabiliz irakasten da, 2) edukia ikastea lehenesten da, 3) hizkuntza ikastea ez da funtsezkoa, 4) edukiari lotutako helburuak curriculumeko helburuen araberakoak dira, 5) irakasleek hizkuntza-helburuak aukeratu behar dituzte, eta azkenik, 6) ikasleak ikasitako edukiaren

arabera ebaluatzen dira. Bestalde, language-driven programetako ezaugarri nagusien artean, honakoak aipatzen ditu: 1) edukia H2a ikasteko erabiltzen da, 2) hizkuntza ikastea lehenesten da, 3) edukia oharkabean ikasten da, 4) hizkuntza-helburuak curriculumaren araberakoak dira, 5) ikasleak integratutako edukiaren arabera ebaluatzen dira, eta azkenik, 6) ikasleen hizkuntza trebetasun edo maila ebaluatzen da.

1.2 Irudia. A continuum of content and language integration, Met (1999).

Content-driven   Language-driven

Meten continuum sinple hori erabili eta egokitu dute beste askok. Esaterako, Lyster eta Ballingerrek (2011) testuinguru ezberdinetako ereduak kokatu zituzten Meten continuuman. Alde batetik, content-driven ardatzaren inguruan murgiltze ereduak kokatzen dituzte; language-driven ardatzaren inguruan, ordea, hizkuntza irakasgaiak non hizkuntza praktikatzeko edukia/unitate tematikoak erabiltzen diren, adibidez. Haien hitzetan:

> Content-driven programs promote language and literacy development through subject-matter learning and assess both content knowledge and language development in substantive ways. In contrast, language-driven programs focus on the development of target language proficiency but entail no high-stakes assessment of content knowledge. Towards the middle of the continuum are program models in which students study one or two subjects in the target language, usually in tandem with a foreign language or language arts class. (Lyster eta Ballinger, 2011, orr. 280)

Hortaz, gure aztergai den CLIL, continuumaren erdialdean kokatuko lukete. Eredu hau Europan eta beste herrialde batzuetan inplementatu den eredua da, non ikasleek irakasgai kopuru bat atzerriko hizkuntzaren bitartez jasotzen duen, eta aldi berean, atzerriko hizkuntza irakasgaia curriculumean mantentzen den (Lyster, 2018, orr. 2).

Tedick eta Cammaratak (2012) continuuma axis bihurtu zuten Met (1999) eta Cumminsen (1982) ereduak erreferentzia gisa hartuta; lerro horizontalean content- edo language-driven continuuma ezarri eta lerro bertikalean denbora kokatu zuten, high time-intensive eta low time-intensive abiapuntuak erabiltzen dituztelarik. 1.3 irudian ikusten den bezala, eredu ezberdinak lau lauki horien

barruan jartzen dituzte: murgiltzeak, H2a erabiliz ematen diren irakasgaiak, edota CLIL. Izan ere, CLIL puntu ugaritan kokatzen dute bere izenpean ematen diren programak onartuz, hau da, bere aniztasuna azpimarratuz.

1.3 Irudia. Hizkuntza eta edukiak integratzen dituzten programak (Tedick eta Cammarata, 2012, 31.orr)

CLIL ereduetan soilik zentratu zen Paran (2013), antzeko axisa sortu zuenean. Honek, alde batetik, helburuak (hizkuntza edo edukia) sailkatu zituen axis batean; bestean, berriz, arreta hizkuntzan edo edukian. Horrela, a) koadrantean edukia lantzen den irakasgai tradizionalak kokatuko genituzke, matematika edota historia, esaterako, H1ean ematen direnak eta arreta eta helburuak edukiari lotutakoak direnak. Bestalde, d) koadrantean, hizkuntza irakasgai tradizionalak kokatuko lirateke, hizkuntzan arreta jartzen dutenak eta hizkuntza-helburuak dituztenak. B) eta c) koadranteetan CLIL kokatzen du, eta CLIL ahula (weak) eta CLIL indartsua (strong) bereizten ditu. Paranek CLIL ahula (b) deitzen die edukian arreta jarri eta hizkuntza-helburuak dituzten programei. Ikerlariak dio CLIL mota hau ez dela berria, baizik eta hizkuntza klase batzuetan aspaldidanik egiten den zerbait dela. Kasu hauetan, gaur egun, testuliburuek ere beren burua identifikatzen dute "CLIL inside" edo "with CLIL activities" erabiliz (Paran, 2013, 322.orr).

Bestalde, CLIL indartsua (c) dira beretzat hizkuntzan arreta jarri eta edukiari lotutako helburuak dituzten programak, munduan zehar eta testuinguru ezberdinetan aurkitu daitezkeenak. Hemen kokatuko lirateke egungo CLIL programak.

1.4 irudia. Hizkuntza eta edukien arreta eta helburuak elkartzen diren intersekzioak Paran (2013).

Hortaz, ikusi dugu hainbat ikerlarik CLIL eta antzeko programa elebidunak sailkatzeko ahalegina egin dutela programen ezaugarrien arabera. Orokorrean esan dezakegu hizkuntza eta edukia integratzen dituzten programen arteko aniztasuna azpimarratzen dutela eredu ezberdin hauek, faktore soziokultural eta hezkuntza faktoreen araberakoak baitira (Ruiz de Zarobe eta Cenoz, 2015, 93.orr). Azken faktore horien artean, besteak beste, ikasleen hizkuntza-maila, derrigorrezko edo hautazkoa den, CLIL irakasgaien ordu kopurua edota programaren iraupena daude (Tedick eta Cammarata, 2012, 34.orr). Izan ere, CLIL testuinguruaren arabera asko alda daiteke, ez bakarrik herrialde batetik bestera baizik eta ikasgela zehatz batetik bestera ere bai, bertako beharren arabera ezartzen baita (Tedick eta Cammarata, 2012). Ruiz de Zaroberen (2017) hitzak hartzen ditugu CLIL "as a dynamic process of a contextualized nature" (156.orr) gisa ulertzen duenean.

1.2.2. Edukia eta hizkuntza praktikan: integrazioa edo oreka ikasgelan

CLILen barruko aniztasunak esan nahi du praktikan jartzeko modu ezberdinak daudela testuinguru ezberdinetan eta hortaz, ikerlari ugarik atentzioa jarri dute CLIL praktika eta pedagogiak aztertu nahian. Gainera, CLIL programak modu egokian inplementatzeko idealak liratekeen ezaugarrietaz ere hitz egin da. Atal honetan, hortaz, begirada bat botako diegu CLIL inguratzen duten eta edukia eta hizkuntzaren arteko loturan oinarritutako estrategia pedagogikoei.

Ez dago CLIL pedagogia konkreturik, baina esan dezakegu CLIL pedagogiak gehienetan atzerriko hizkuntza ikaskuntza eraginkorrean oinarritzen direla (van Kampen et al., 2018). Horietako bat da Krashen-en (1985) input-aren hipotesia, zeinak argudiatzen duen hizkuntza ikaste prozesua soikik ematen dela input esanguratsua eta sakona tartean dagoenean. Tan-ek (2011, 327.orr) laburtzen duen moduan Krashenen teoria azalduz, "language learning happens when students engage in texts and activities that are meaningful to them and relevant to their needs, without explicitly focusing only on the linguistic forms and structures". Horrela, badirudi hizkuntza ikaste prozesua, hipotesi honen arabera, instrukzio esplizitirik gabe eman ahal dela, eta input kantitate eta kalitate egoki batekin ematen dela.

Hainbat autorek azpimarratu dute, input-aren hipotesian oinarritutako praktikak ematen direla CLIL eskola askotan. Praktika hauei Dalton-Pufferrek (2007) 'language bath' deitzen die, erreferentzia egiteko irakasleak klasea H1ean izango balitz bezala ematen duenean. Modu honen oinarria input-aren garrantzian dago, irakasleari iruditzen baitzaio edukiak ingelesez edo H2aren bitartez transmititzea nahikoa dela CLIL egiteko eta ikasleek hizkuntza barneratzeko. Horrela dio Dalton-Pufferek (2007):

> In the European context at least, CLIL classrooms are widely seen as a kind of language bath which encourages naturalistic language learning and enhances the development of communicative competence. In other words, CLIL classrooms are seen as environments which provide opportunities for learning through acquisition rather than through explicit teaching (3.orr).

Lin-ek (2016a) aipatzen duen moduan, kasu hauetan, ohikoa da klasea teacher-centered izatea eta ikasleei egindako galderen erantzunak motzak izatea. Gainera, CLIL praktika hauek eduki ditzaketen hutsuneaz dio: "(They) give the impression of smooth content delivery but leave us unsure as to whether students have actually taken up the content or have been helped to talk, read, think, write and argue about the content topics" (Lin, 2016a, 153.orr). Izan ere, ikasleen hizkuntza garapena atzerriko hizkuntzaren esposizioa handitzearekin soilik lotzeak ez ditu CLILen helburuak betetzen (Lo, 2015).

Horren harira, Ipar-amerikako murgiltze-programetaz ari zenean, Swain-ek (1998) aipatzen zuen edukia irakasterako garaian irakasle askok oso atentzio gutxi jartzen ziotela ikasleen hizkuntza erabilerari, beraz arreta minimoa jartzen zela ikasleen hizkuntza produkzioari. Ikerlari honen *output-hypothesis* (1985,

1995) ere kontutan hartu da ikerketa arloan CLILen pedagogiak lantzerako orduan. Hipotesi honek azpimarratu zuen ikasleak inputa bakarrik ez, baizik eta hizkuntza akademikoa erabiltzeko aukerak ere eduki behar zituela, bai ahozkoak bai idatzizkoak, hizkuntza barneratzea helburu bazen.

Ikerketa ugarik azpimarratu dute, input eta outputaren garrantzia onartu arren, edukian ez ezik, forman ere, hau da, hizkuntzan ere arreta jartzea mesedegarri dela helburuak bete nahi badira CLIL eta antzeko testuinguruetan (Lin, 2016a; Lyster, 2007).

Lysterrek (2007, 2018) proposaturiko *counterbalanced approach* ezaguna dugu aipagai atal honetan. Izan ere, honek defendatzen du edukietan oinarritutako klaseetan (CBI) klaseetan hizkuntzan arreta jartzen den momentuak (*focus on form*) egon behar direla, atentzioa forman ezarri behar dela neurri batean, hizkuntza eta edukiaren arteko oreka bat egon dadin. Horrela, berak proposaturiko counterbalanced approach *proactive* edo *reactive* izan daiteke, eta Lysterren aburuz, bien arteko konbinazioa gomendagarri litzateke. Egoera proaktiboek erreferentzia egiten die irakasleak aurretik planteatutako ariketei, non hizkuntza eta eduki helburuak konbinatzen diren eta ariketaren fase ezberdinetan ikasleek aukera duten "for noticing, manipulating, and using the target forms in meaningful ways" (Lyster, 2017). Bestalde, forman arreta jartzeko modu espontaneogoetan eman daitezken momentuen bidez ere integratu daiteke hizkuntza. Lysterrek *reactive*-n barruan sartzen ditu hauek: alde batetik, ikasleen outputaren kantitatea eta kalitatea handitzea helburu duten irakasleen galderak; eta bestetik, *corrective feedback*, irakasle-ikasle interakzioan gerta daitezkeenak eta ikasleen erantzunak zuzentzeko modu ezberdinak bereizten dituena, betiere, ikasleak atentzioa jar dezan egindako akatsean. Izan ere, "corrective feedback provided during teacher-student interaction is one way for teachers to integrate a focus on language into their instructional practices" (Lyster eta Tedick, 2014, 215.orr).

Lyster eta Rantaren (1997) lan ezagunean, *corrective feedback* edo erroreak zuzentzeko moduak sailkatu zituzten, irakasleak erabiltzen dituenak ikasleen erroreen aurrean. *Corrective feedback* ezberdin horiek 1.1 taulan ikus daitezke laburtuta.

1.1 Taula. Corrective feedback motak Lyster eta Ranta (1997) eta Llinares, Morton eta Whittaker-en (2012) oinarritua.

Argitze-eskaera *(Clarification request)*	Esaldi edo hitz bat entzun edo ulertu ez denean egiten den eskaera, batzuetan forma konkretuengan atentzioa jartzeko helburuarekin egiten dena.
Zuzenketa esplizitua *(Explicit correction)*	Hitzaren edo esaldiaren bertsio zuzena ematen denean, zerbait gaizki zegoela argi uzten duena.
Birformulazioa *(Recast)*	Esandako forma birformulatzen denean, inplizituki, zuzen dagoen forma eskainiz.
Sorraraztea *(Elicitation)*	Forma zuzena zuzenean eskatzea, teknika ezberdinak erabiliz. Esaterako, ikasleari esaldi bat bukatzea eskatzen zaionean.
Errepikapena (*Repetition*)	Errorea errepikatzea, goranzko entonazioarekin.
Erreakzio metalinguistikoa (*Metalinguistic feedback*)	Ikasleak egindako errorearen forma komentatzea, zuzenketa esplizitua egin gabe.

Corrective feedback alde batera utzita, Linek (2016a) ere modu espontaneoan gerta daitezken eta hizkuntzari arreta jartzen dioten momentuetaz aritzean, *spontaneous embedding of language support* momentuak aipatzen ditu, Gibbons-ek (2009) *spontaneous scaffolding* deitzen dionari erreferentzia egiteko. Adibide gisa ematen ditu matematikako irakasle batek "numerator" edo "denominator" terminoak ahozkatu ahal izateko estrategiak azaltzeko momentu bat hartzea; edo fisikako irakasle batek momentu batean "media" "medium" hitzaren plurala dela azaltzen gelditzen denean (154.orr). Horrela, irakasleak momentu txiki horiek erabiltzen ditu hizkuntzan arreta jartzeko.

Lehenago aipaturiko *Second Language Acquistion* (SLA) arloko teoria ezberdinetan oinarritako Westhoff-en (2004) penta-pie eredu hartuta, Holandako ikerlari batzuk behaketa instrumentu bat garatu zuten CLIL klaseetan aplikatzeko (De Graaff et al., 2007).

1.5 Irudia. The SLA penta-pie. (De Graaff et al., 2007).

Horien aburuz, H2aren irakaste prozesua eraginkorra izateko CLIL testuinguruetan eta edukien eta hizkuntzaren arteko integrazioa lortzeko, 5 elementu hauek egon behar dira klasean: 1) *exposure to meaningful input*; 2) *meaning-focused processing*; 3) *form-focused processing*; 4) *opportunities for output production* eta 5) *awareness and use of language learning strategies* (603.orr). Hortaz, irakaslearen esku dago, lehenik eta behin, ikasleei input aberatsa eskeintzea CLIL klaseetan, aurretik material egokiak edota egokitutako irakasle-inputa eskeiniz. Aldi berean, edukiaren esanahiak ulertu diren jakiteko hainbat estrategia erabili behar ditu irakasleak, baita esanahi hori sakon lantzeko ariketak sortu. Aurretik aipaturiko ikerlariek esandakoa ere kontutan hartu zuten De Graff et. al -ek (2007), hizkuntzari arreta jarri eta zuzenketak egitea ere CLIL klasean egin beharreko zerbait bezala ikusten baitute ikerlari hauek. Gainera, ikasleek atzerriko hizkuntza erabiltzeko aukera izan behar dute, output idatzia zein ahozkoa sortzeko, hain zuzen. Irakasleen galdera motak ere eragina dute honetan, Dalton-Pufferrek (2006) defenditu zuen bezala, irakasleek datu konkretu eta erantzun motzak behar dituzten galderak alde batera utzi eta ikasleen iritziei buruzko galdera gehiago egin beharko lituzte, gauzak azaldu, definitu eta argudiatzeko eskatzen duten galderak, hain zuzen. Azkenik, CLIL irakasleak ikasleek eduki ditzaketen komunikazio edo ulermen arazoei aurre egiteko behar dituzten estrategiak erabiltzen laguntzeko prest egon behar direla argudiatzen da.

Hizkuntza eta edukiak integratzeaz ari garenean, azken urteotan, hainbat CLIL adituk eta hizkuntzalarik defendatu dute hizkuntza eta edukia banaezinak direla (Gierlinger, 2017; Llinares, 2015; Llinares et al., 2012; Morton eta Jakonen, 2016).

Ideia honen oinarria hizkuntzalaritza funtzional sistemikoan dago *(systemic functional linguistics)*. Perspektiba honetatik, *genre-based* pedagogiak sortu dira, hizkuntza, edukia eta testuingurua elkartzen dituztenak, zeinak defendatzen duten irakasgaiari lotutako diskurtso eta *genre* konkretuak irakatsi behar direla CLILen helburuak bete ahal izateko. Esaterako, zientzia CLILen egiten duten ikasleek, zientziaz ikasteko fenomenoen deskripzio, txosten eta arloko testu ezberdinak ulertu eta sortzeko ahalmena eduki behar dutela argudiatzen da (van Kampen et al., 2018, 224.orr). Horrela, genre-based gisako pedagogiek esaten dute CLIL klaseetan edo atzerriko hizkuntza klaseetan ikasleei testu hauen helburu eta testuen oinarrizko ezaugarriak esplizituki landu behar direla, *subject-specific genres* eta horien ezaugarri linguistikoak identifikatuz (Lo et al., 2018), eduki eta hizkuntza modu integratuagoan eman dadin.

1.2.3. Eskola praktikak eta hizkuntzari arreta CLILen: ikerketak

Ondorengo atal honetan eskola praktiketara joko dugu, eta begirada bat botako dugu CLILen hizkuntza eta edukien arteko erlazioa eta oreka neurtu duten lanei. Izan ere, ikerketa ugarik azpimarratu dute irakasleek hainbat zailtasun erakusten dituztela edukiak eta hizkuntza balantzan jartzerako orduan (Cammarata eta Tedick, 2012; Koopman et al., 2014; Oattes, Oostdam, de Graaff, eta Wilschut, 2018).

Badirudi, Europako testuinguruan behintzat, edukiari ematen zaiola preferentzia CLILen, hizkuntza bigarren maila batean dagoen bitartean, hizkuntza-helburuak ez baitira esplizituki definitzen (Dalton-Puffer, 2011). Horregatik, hainbat ikerlanek fokua jarri dute CLIL klaseetan irakasleek hizkuntzari eman dioten arretan.

Horri erreferentzia egiteko, *Focus on Form* (Doughty eta Williams, 1998), *Language Related Episodes* edota bestelakoak erabili izan dira, betiere hizkuntzari arreta jartzeko moduaz hitz egiteko. Izan ere, *Focus on Form*en definizioa honako hau litzateke "(…) brief attention, either planned or incidental, to (problematic) language items within a larger communicative context" (Loewen, 2011, 579.orr). Era berean, *language-related episodes* (LRE) terminoa ere erabili izan da elkarrizketa edo momentu batean hiztunak "talk about the language they are producing, question their language use, or correct themselves or others" (Swain eta Lapkin, 1998).

Ipar-amerikako esperientziari gehiago begiratu beharko genukela dio Pérez-Vidalek (2007) bere lanean, Lysterren aholkuen alde. Lan honetan, Perez-Vidalek ingelesez irakasten ziren zientziako irakasgai ezberdinetan jarri zuen arreta, Kataluniako hiru eskola ezberdinetan. Klaseak bideoz grabatu eta irakaslearen estrategiak kualitatiboki kategorizatu zituen, besteak beste, kode hauek erabiliz: *focus on form, output, code-switching, adaptation of meaning, adaptation of language.* Emaitzek erakutsi zuten irakasle gehienek modu komunikatiboan enfokatzen zutela klasea, hau da, irakasleen azalpenak denbora asko hartzen bazuten ere, ikasleen hizkuntza erabiltzeko aukerak oso altuak zirela. Testuinguru komunikatibo horietan, ordea, edukiaren esanahiari lotutako interakzioak ziren nagusi, edukia bera lantzen zuten egoerak, hain zuzen. Datu horietan ez zuen *Focus on Form* momenturik topatu, eta ikerketa gehiagoren beharra azpimarratu zuen arren, ondorioztatu zuen hizkuntzari arreta jartzeko *Focus on Form* momentuak CLIL klaseetan inkorporatzeko ahalegina egin behar zela (50.orr).

Unibertsitate mailako CLIL testuinguruetan landu zuen Costak (2012) *Focus on Form* gaia. Italiako unibertsitate ezberdinetako sei irakasleen zientzia klaseak, ingelesez ematen zirenak, aztertu zituen *Focus on Form* momentuen bila. Osotara 76 FoF identifikatu zituen, baina ikusi zuen irakasle bakoitzak hizkuntzari arreta jartzeko modu ezberdinak zituela. Gainera, ikusi zuen FoF momentu gehienak hiztegiari lotutakoak zirela, hau da, esanahia argitzeko beharrezko ziren hitzetan jartzen zuela atentzioa irakasleak, gramatikari lotutakoak gutxiago ziren bitartean.

Holandako testuinguruan egindako lan batzuk ditugu orain aipagai, antzeko emaitzak eman dituztenak eta irakasleek beraien praktikei buruz esaten dutenan oinarritzen direnak. Hauek hizkuntzari arreta ez ezik, bestelako eskola praktikei ere begiratu diete. Koopman et al.-ek (2014) 6 CLIL irakasleei egindako ariketa baten bitartez ikusi zuten irakasle horietako gehienek, *Focus on Form*-i buruz galdetzean, hori ingeleseko irakaslearen lana zela eta ez beraiena (133.orr) aitortzen zutela. Hizkuntza erroreei dagokienez, ikusi zuten irakasleek *recast-ak* erabiltzen zituztela batez ere, ikaslearen akatsa beren ahotan birformulatuz. Era berean, CLIL klase hauek 'language bath' delako eredutik aldentzen zirela diote, hizkuntza lantzearen garrantziaz konsziente zirela erakusten zuten ariketa eta egoera ezberdinak aipatu baitzituzten (ikasleen hizkuntza erabilera bultzatzen zuten ariketak, esaterako). Ondorio moduan, ikerlariek irakasleen formakuntzak gehiago landu beharreko atalak identifikatzen dituzte: "We have also identified specific areas where (Dutch) CLIL teachers might benefit from further training:

teaching language 'chunks', focus on form and learner readiness in relation to SLA" (Koopman et al., 2014, 134.orr).

Antzeko emaitzak ikusi zituzten Van Kampen et al.-ek (2018) beren CLIL irakasleen praktikak deskribatzen zituen lanean. Hauek, galdetegi eta elkarrizketen bidez CLIL eta EZ-CLIL irakasleen praktikak bildu zituzten, non teorian CLIL pedagogiei lotutako *language, literacies, scaffolding eta input* -ei lotutako pedagogiei buruz galdetzen zuten. Emaitzek alde handiak erakutsi zituen teorian CLIL ereduetan eman beharreko praktiketatik (De Graaff et al., 2007 en oinarritutako penta-pie-a, esaterako) errealitatean irakasleek onartzen zituzten praktiketara. Esaterako, ikusi zuten hizkuntzari lotutako praktikak leku txikia okupatzen zutela, ikusi baitzuten ia ez zegoela *Focus on Form* edo hizkuntzari lotutako zuzenketarik. Hala eta guztiz ere, CLIL eta EZ-CLIL irakasleen arteko *hizkuntza*-ri lotutako perspektiben aldea ikusi zuten, eta ondorioztatu CLIL irakasleak ez dutela CLIL Dalton-Pufferrek (Dalton-Puffer, 2007) "language bath" deitzen duena gisa ikusten, hizkuntza erabiltzeko aukerak ematea beharrezko ikusten zuten-eta, besteak beste. Holandako testuinguruan berriki egindako eta ikasgelan behaketa erabili duten ikerketek (Oattes, Oostdam, de Graaff, Fukkink, et al., 2018) emaitza berdinak erakutsi dituzte. De Graaff et al.-en (2007)-en behaketa tresna erabiliz, ikusi zuten irakasleek ez dutela hizkuntzari arreta espliziturik jartzen (focus on form eta bestelako estrategiak), baina aldi berean, edukiari lotutako hizkuntza irakasteko ahalmena zutela, eta aldi berean, ikasleek ingelesez entzun, irakurri, hitz egin, interaktuatu eta idazteko aukera anitzak zituztela (170.orr).

Bestelako behaketa tresnak erabili eta klaseko praktikak deskribatu dituzten lanak ere badaude. Esaterako, Mahan et al.-ek (2016) *Protocol for Language Arts Teaching Observation* (PLATO) erabili zuten Norvegiako zientzia eta matematikako 12 klase ikertzeko. PLATO (Grossman et al., 2013) eredua ingelesa hizkuntza gisa irakasten denerako diseinatu zen arren, ikerlari hauek CLIL praktikak aztertzeko erabiltzen dute, edukia eta hizkuntzaren aspektuak lantzen baititu. Ebaluatzen dituen gauzen artean, beren lanerako aukeratzen dituztenak honako hauek dira: *purpose* (klasearen eta ariketen helburua irakasleak argi azaltzen duen), *representation of content* (irakaslearen azaltzeko modua eta azalpenen aberastasuna neurtzeko), *intellectual challenge* (ariketek eskatzen dutena maila altukoa edo baxukoa den), *classroom discourse* (ikasleen hizkuntza aukerak eta irakaslearen erantzun motak ikertzeko), *text-based instruction* (irakurmena eta idazmena nola eta zenbat lantzen den ikusteko) eta

accommodations for language learning (ikasleek uler dezaten irakasleak erabiltzen dituen estrategiak eta materialak). Hizkuntza eta edukiak balantzan jartzen jarrita, emaitzek erakusten dute testuinguru konkretu honetan, matematikako eta zientziako klase hauek, azalpen aberatsez betetako *content-driven* CLIL direla. Izan ere, irakasleek ez zuten inongo momentutan hizkuntzari lotutako helburuak aipatu, baina edukiari lotutako helburuak oso garbi eta esplizituki azaltzen zituzten. Gainera, aztertutako 12 klase horietan ikusi zuten ikasleek hizkuntza erabiltzeko dituzten aukera asko zituztela, baina ahozkoan soilik, irakurtzeko eta idazteko aukerak urriak ziren bitartean.

Kontua da, CLILen aniztasun horren barruan, irakasgai bakoitzak behar eta ohitura ezberdinak dituztela (Mahan et al., 2016; van Kampen et al., 2018). Hala ere, oso ikerketa gutxi daude CLIL testuinguruan irakasgai konkretuetan arreta jarri eta arlo konkretu bateko hizkuntza lanketa edo *genre-specific teaching* aztertu dutenak. Horietako bat da, esaterako Morton-en (2010) lana, Madrilgo bigarren hezkuntzako 2 ikastetxetako CLIL historia klaseak aztertu zituenean. Klaseko audio eta bideo grabaketaz baliatuz, Morton-ek (2010) historia arloari lotutako testu motak lantzeko momenturik ez zuen topatu, "either as texts to be understood or deconstructed or as texts to be produced by the students" (87.orr). Testuliburuak aztertzean ordea, ikusi zuen ikasleei eskatzen zitzaiela testu mota ezberdinak erabiltzea idatzizko ariketetan, hala nola, Greziako zaharreko pertsonai baten biografia idaztea, edo iritzizko testu bat idaztea Iberiar Penintsulan bizi izan ziren pertsonei buruz, baina horiek lantzeko inolako laguntza 'scaffolding' eskeini gabe. Aipatzen du, gainera, *genre* ezberdinetako testuak sortzeko laguntza hori ez dela ohikoa "Even when specific text types are mentioned in curricular guidelines, (…), they are not normally the focus of explicit instruction" (88.orr). Testuliburu zehatz hori aztertzean, aipatzen du bertako ariketa gehienek erantzun motzak (batzuetan hitz bakarrekoak) eskatzen zituztela, eta beraz, CLILen helburu bikoitza, hau da, eduki eta hizkuntza garapena, praktika horiekin ez dela betetzen. Dalton-Pufferrek (2007) ere errealitate berdina ikusi zuen Austriako CLIL klaseak aztertzean, idazmenari eta hizkuntza idatziz erabiltzeari arreta gutxi jartzen zitzaiola ikusi baitzuen. *Genre-based* pedagogien alde eginez bukatzen du bere lana, beste autore batzuk ondoren egin duten bezala (esaterako Lo et al., 2018; Meyer et al., 2015). Izan ere, lan berriagoek erakutsi dute irakasleek beren praktika pedagogikoak planteatzerako garaian gaiari lotutako *genre* edo testu motak lantzearen ideia ez dela ohikoa, esaterako, Van Kampen et al.-en (2018) lanean ikusi zen bezala.

1.2.4. CLIL irakasleak eta hizkuntza-edukia konbinazioa

Klaseko praktikak aztertu ondoren, azpiatal honek irakasleen rol eta iritziei buruz gehiago zabaltzea du helburu. Iritziak jarrera eta esperientzietan oinarritutako aldagai-multzo konplexu gisa definitu izan da (Skinnari eta Bovellan, 2016). Izan ere, irakasleak hartzen dituen erabakien arabera ematen dira praktika konkretu batzuk (Lo eta Macaro, 2015). Egiten duten guztia hauen aurreko esperientzia eta ezagutzan oinarrituta dago, bai eta beren iritzi, jarrera eta pertzepzioetan ere (Lyster eta Tedick, 2014, 218.orr). CLIL eta antzeko testuinguruetan, erronka ugariri aurre egin behar diete, eta badirudi horietako bat hizkuntza eta edukiari lotutako helburuak integratzea dela, atzerriko hizkuntzan irakasteak irakasleen rola aldatzen baitu (Karabassova, 2018). Jarraian datozen lanek irakasleen iritzi eta praktikak, CLIL irakasle gisa dituzten rolak eta hizkuntza eta edukiaren arteko integrazioa nola ulertzen duten aztertzen dute.

Ipar-amerikako testuinguruan egindako lan fenomenologiko batean, Cammarata eta Tedickek (2012) murgiltze ereduetako irakasleen esperientziaz jakin nahi izan zuten. Horretarako, murgiltze eredu ezberdinetan lan egiten zuten 3 irakasleei egindako elkarrizketak eta beren esperientziak deskribatzen zituzten testuak bildu ondoren, murgiltze ereduetan irakastearekin lotutako 5 dimentsio identifikatu zituzten: (1) identitate aldatzea, hau da, eduki-irakasle izatetik eduki- eta hizkuntza- irakasle gisa beraien burua ikustea; (2) kanpo-erronkak, esaterako, denbora falta, baliabide falta, presioak edo irakaslearen esku ez dauden kanpo-faktoreak; (3) bakardadea, edo isolazio sentsazioa edukitzea; (4) esnatzea, hau da, hizkuntza eta edukien arteko interdependentziaz jabetzea; eta (5) zer nolako hizkuntza-arreta jartzea identifikatzeko arazoak. Ikerlari hauek ondorioztatzen dute bigarren hizkuntza jabekuntzan formakuntza faltak edukian zentratzea eramaten diela, nahiz eta integrazio hori klasean aplikatzen saiatu zirenean, irakasle hauek edukien eta hizkuntzaren arteko erlazioaz jabetu ziren.

Malasiako bigarren hezkuntzako ingelesez bidez ematen ziren klaseetan jarri zuen arreta Tanek (2011), 2 eskola ezberdinetako datuak bilduz. Matematikako, zientzietako eta ingeleseko irakasleen iritziek ikasgelako praktiketan zuen eragina ikusi nahi izan zuen bere lan kualitatiboan. Horretarako, dokumentu ofizialen analisiaz gain, batez ere irakasleekin elkarrizketak eta klase behaketak egin zituen. Eskola horietako matematika eta zientzietako irakasleek ikasleek

edukia barneratzea eta nota onak ateratzea bilatzen zutela ikusi zuen, eta kanpo azterketen balioaren presioa aipatzen du arrazoi gisa. Orokorrean ikusi zuen irakasleek beren rola 'eduki-irakasle' bakarrik edo 'hizkuntza-irakasle' bakarrik ulertzen zutenez, ikasleen hizkuntza ikaste prozesua mugatzen zela. Gainera, ezberdintasun txikiak ikusi zituen matematikako eta zientziatako irakasleen artean. Matematikako irakasleei arreta jarriz, aipatzen du hauentzat hizkuntza bera ez zela garrantzitsua, matematika-problemak erraz eta azkar soluzionatzeko ahalmena izatea baitzuten helburu: "I'll only look for facts. The language is the secondary part there. So we don't really bother" dio irakasle batek (Tan, 2011, 332.orr). Beste irakasle batek, esaterako, hizkuntzari erreparatzen jarriz gero, klaseko erritmoa mantsotuko zela aitortzen du (333.orr). Matematikako eskola praktiketan ere antzeman zuen hori bera, ez baitzituen topatu ikasleen hizkuntza garapena bultzatzen zuten momenturik. Zientzietako irakasleei dagokionez, hauek ere argi zuten ez zirela 'hizkuntza-adituak' (333.orr) baina behintzat beraien praktiken artean zeuden hizkuntza erabilera bultzatzen zituzten ariketak edota talde osoko eztabaidak. Beste alde batetik, ikusi zuen ingeleseko klaseetan ere irakasleak beren burua ikusten zutela 'hizkuntza irakasle' bezala, hortaz, eta nahiz eta CLIL klase horri laguntzea helburu izan, hizkuntza irakasleek ez zutela matematika eta zientzietako edukiekin loturarik egiten beren klaseetan. Arrazoi horiengatik irakasleen koordinazio beharra azpimarratzen du bai eta irakasleen formakuntza hizkuntza eta edukiak integratu ahal izateko.

Hüttner et al.-en (2013) lanak Austriako bigarren hezkuntzako irakasle eta ikasleen iritziak bildu zituen ikusteko hizkuntza ikaste prozesua CLILen nola ulertzen zuten. Ikerketa honetako irakasleek hizkuntza ikaste prozesua CLILen modu naturalean ematen zela pentsatzen zuten, hau da, "using the language as much as possible, and being exposed to it as much as possible" (275.orr), eta beraien esperientzia propioaz hitz egiten zuten ideia hori defendatzeko. Horrela, beraien burua eduki-aditu gisa ikusten zuten, eta era berean, hizkuntza-ikasle gisa ere bai. Izan ere, eduki-irakasleek ikuspegi dinamikoago eta kolaboratiboago batetik ikusten zuten hizkuntza ikastearen prozesu hori. Bestalde, irakasle hauek CLIL ulertzen zuten ingelesa praktikan jartzeko aukera extra bat bezala, ingeleseko klaseekin batera ikasleen hizkuntza garapenean lagunduko zuena. CLIL irudikatzean, irakasle hauek ez zuten beraiek egiten zuten CLIL CLILek teorian biltzen dituen helburu bikoitz horrekin lotzen. Gainera, CLILen helburu bikoitzari buruz galdetzerakoan, hau da, edukia eta hizkuntzari buruz, galdera horrekin nahiko harrituta geratu zirela aipatzen du

(278.orr). Horri lotuta, hizkuntza modu esplizituan irakastearen ideiak ere ez du garrantziarik irakasle hauen hitzetan. Hizkuntzari lotutako helburuak ez egoteak ere laguntzen du, hauen ustez, CLIL modu positiboan eta giro lasai horrekin ikusteak.

Skinnari eta Bovellan-en (2016) lanak Austria, Finlandia eta Espainiako bigarren hezkuntzako irakasleen hitzetan jartzen du arreta, horien integrazioari eta beraien rol profesionalari buruzko pentsamenduak bilduz. Zientzia eta historia ingelesez irakasten zuten 12 irakasleei egindako elkarrizketetatik ikusi zuen, espero bezala, arreta nagusia edukiak barneratzean jartzen zutela, hauen ikasketak kontutan hartuta (zientzia eta historia ikasitako irakasleak). Hizkuntzaren paperaz galdetzean, badirudi batzuk atentzio gutxi behar zuen zerbait bezala ikusten zutela, naturalki ikasten zena egunero erabiltzen dutelako. Beste batzuk, 'language as a tool' hizkuntza *tresna* moduan ikusten zuten, azalpen garbiagoak emateko, komunikazioa oztopatzen zuten hizkuntza erroreak zuzentzeko, etab. erabiltzen zutelarik. Horrela, ikusi zuten irakasleen iritziak integrazioaren ideiari buruz eta beraien rolari buruz nahiko ezberdinak zirela elkarrengandik. Izan ere, uste horien atzean irakasle bakoitzaren esperientziak eta hizkuntzarekin duten harremanak eragina izan dezake. Esaterako, irakasleetako batek pentsatzen zuen bere umeek etxean bi hizkuntza modu naturalean ikasi zituztela, eta beraz CLILen antzeko gauzak gerta litezkeela; bestalde, ingelesez klaseak ematean ziur sentitzen ez zen irakasle batek esaten zuen ez zuela uste bere ikasleek, bere klasean behintzat, ingelesa ikasiko zutenik, eta horien hizkuntza garapena oztopatu zezakeela ere pentsatzen zuen (155.orr). Hortaz, irakasleen usteen atzean dauden faktoreak (hala nola, kultura, formakuntza, aurreko ezagutzak, irakaskuntzan esperientzia edota bestelako jarrerak) kontutan hartzea ezinbestekoa dela ondorioztatzen dute Skinnari eta Bovellan-ek (2016), irakasle horien usteak ulertu nahi baditugu (164.orr).

Antzeko ondorioak ere atera dira testuinguru eleaniztunetan ere. Esaterako, Karabassovak (2018) Kazahkstan-go eskola hirueledun batean egindako lanean, ikusi zuen irakasleek CLIL ulertzen zutela "merely as just teaching through another language" (1.orr), non edukiari lotutako helburuak nagusi ziren, irakasleek hizkuntza esplizituki irakastearen errespontsabilitateari uko egiten zioten, eta non ikusi zuen CLILen atzean dauden 'pedagogical intentions'-etaz gutxi zekitela. Hala ere, pentsatzen zuten CLIL programetan denbora gehiago pasa ahala, ikasle horiek hizkuntza-maila altuagoa lortzen zutela, hortaz,

Skinnari eta Bovellanen (2016) lanean bezala, irakasleek ulertzen dute ikasleek hizkuntza modu naturalean ikasten dutela.

Testuinguru ezberdinetako lanei erreparatuz ikusi dugu CLIL irakasleak ez dutela uste hizkuntza irakasteari lotutako praktikak egin behar dituztenik, eta gainera, ikusi dugu ez dutela hizkuntza kontzientzia handirik, gehiengoak (batez ere bigarren hezkuntzako irakasleek) eduki-arloko espezialistak baitira eta ez baitute prestakuntzarik jaso hizkuntzen irakasketari dagokionez (Cenoz et al., 2013; Tan, 2011). Gainera, irakasleen formakuntza ikertu duten lanek egiaztatu dute CLIL modu egokian inplantatzeko teoria eta printzipioak ulertzeko formakuntza eskatzen dutela irakasleek (Barrios eta Milla Lara, 2018; Pérez Cañado, 2014). Oraindik gutxi dira irakasleei formazio zehatza eman eta iritzi aldaketak aztertu dituzten lanak, baina testuinguru batzuetan behintzat onuragarri dirudi. Hortaz, ikerlan ugarik ondorioztatu dute irakasleen hizkuntza kontzientzia garatzen duten formakuntza ematea beharrezkoa dela (Lo, 2017; Skinnari eta Bovellan, 2016). Tedick eta Cammaratak (2012) egindako literaturaren errebisioan, honako hau ondorioztatzen dute:

> Subject-specific and generic elementary education programs reinforce teachers' view of themselves as content teachers alone, and language teacher preparation programs reinforce teachers' view of themselves as language teachers alone. Several of the studies reviewed herein revealed that teachers who were more successful at language and content integration were those who were prepared as both language and subject (content) teachers (Milne & García, 2008; Pessoa et al., 2007; Wannagat, 2007), though we cannot say with certainty that a teacher with preparation in both areas will necessarily be a more effective CBI teacher than one who is prepared only as a language or a content teacher (48.orr).

Tedick eta Cammararen hitzak jarraituz, esan dezakegu hizkuntza eta edukiak irakasteko formatuta dagoen irakasle bat ez dela zertan hizkuntza-irakasle edo eduki-irakasle soilik dena baino hobea izan. Hala ere, interesgarria da hizkuntza irakasle gisa esperientzia duten irakasleak eta eduki irakasle gisa esperientzia dutenen praktikak aztertzea atzerriko hizkuntza irakas-hizkuntza bihurtzen denean, tesi lan honetan egingo dugun bezala.

1.3.   Kapituluaren laburpena

Lehen kapitulu honetan CLILi buruzko sarreratxo bat egiten saiatu gara. Ikusi dugu definizio ezagunenetariko bat honako hau dela: "Content and Language Integrated Learning (CLIL) is a dual-focused educational approach in which an additional language is used for the learning and teaching of both content and language" (Coyle et al., 2010, 1.orr). Ikusi dugu, beraz, termino generiko gisa erabiltzen dela munduko leku ezberdinetan inplementatutako programa elebidunei erreferentzia egiteko, hala nola, Content-Based Instruction edo murgiltzeei. Hala ere, ohikoa da CLIL terminoa erabiltzean, erreferentzia egitea atzerriko hizkuntza bat (askotan ingelesa) erabiltzen denean edukiak transmititzeko. Gainera, testuinguru honetan, ikerketa ildo nagusiak ikusi ditugu. Hainbatek CLILen forma europearra azpimarratzen dute, baina beste hainbatek, CLILek murgiltze eredua eta CBI programekin dituzten antzekotasunak azpimarratu dituzte. Izan ere, eredu horiek ezaugarri nagusi bat dute amankomunean: hizkuntza eta edukien integrazioa.

Hizkuntza eta edukiak integratzearen inguruan aritu gara jarraian, eta ikusi dugu, integrazio maila ezberdinak egon daitezkela CLIL eredu ezberdinetan, kontutan hartuta hizkuntzan edota edukian jartzen den fokua. Irakasleek arreta jarri behar dute bi osagai horiek integratzeko, eta hainbat proposamen ikusi ditugu. Esaterako, Lysterren (2007) *counterbalanced approach*, zeinak defendatzen duen ikasgelan fokua jarri behar dela edukiari eta esplizituki hizkuntzari ere, ikasleek hizkuntzan arreta jarri dezaten. *Genre-based pedagogiak* dira beste aukera bat. Horiek hizkuntza eta edukia banaezinak direla dute oinarri, eta arlo konkretuetako testu motekin lan egitera bultzatzen dute.

Atal honetan, integrazioa aztertu duten lanei begirada bat ere bota diegu. Atzerriko hizkuntza irakas-hizkuntza bihurtzen denean dauden praktikak aztertu ditugu, batez ere hizkuntzari jartzen zaion arretari erreparatuz. Ikerketa ezberdinak dauden arren, irakasle askok zailtasunak dituztela onartzen dute hizkuntza edukiekin txertatzerakoan. Gainera, irakaslearen formakuntza edo esperientziaren araberako praktikak egon ohi direla ikusi dugu. Batzuk ez dute ia klaseko dinamikarik aldatzen CLIL egiten dutenean, beste batzuk, ordea, kontziente dira hizkuntza eta edukiak integratzea CLILen helburuetako bat dela, eta hortaz, beraien errespontsabilitate ere bai.

Jarraian datorren kapituluan, CLILen beste parte garrantzitsu bat aztertuko dugu, inputaren garrantzia, metodologiak eta materialak, hain zuzen.

CLIL: INPUTAREN GARRANTZIA, METODOLOGIAK ETA MATERIALAK

Ikusi dugu ez dela erraza irakaslearen papera atzerriko hizkuntzan edukiak ematerakoan. Izan ere, edukia eta hizkuntza nolabait integratzeaz aparte, irakasleak esfortzua egin behar du transmititu beharreko hura ikasleengana ailegatzeko eta ulermena lortzeko. Atal honek arreta jarriko dio gai honi, hau da, irakaslearen esku dagoen eta ematen duen inputari arreta jarriko diogu, bai eta klasean erabilitako material eta diseinatutako ariketei ere. Azkenik, input hori ulergarri izateko erabilitako estrategia pedagogikoei ere erreparatuko diegu.

2.1.   Hizkuntza CLIL ikasgelako diskurtsoan

CLIL eta antzeko testuinguruetan, hizkuntzak rol berri bat hartzen du. Izan ere, ikasgela tradizionaletatik haratago doanez, hizkuntza ikastea helburu nagusi izatetik, ikaste prozesu interesgarriago batera pasatzen gara: hizkuntza erabiliz ikasi eta ikasiz hizkuntza erabili ("learning to use language and using language to learn" Coylen, 2007, 552.orr).

Hizkuntzak betetzen duen rol hau kontutan hartuta, honako Hizkuntza Triptiko (Language Triptych) hau proposatu izan da (Coyle, 2007; Coyle et al., 2010). Horrela, triptiko honek CLILen parte hartzen dutenek (ikasle eta irakasle) behar eta garatzen dituzten hizkuntza motak errepresentatzen ditu. Lehenik, *language of learning*, hau da, oinarrizko kontzeptu eta gaitasunak lortzeko beharrezkoa dena, adibidez, edukiari lotutako terminologia edo esaldiak. Bestetik, *language for learning*, ikasleek ariketak egin ahal izateko behar duten hizkuntza motari egiten dio erreferentzia. Azkenik, *language through learning* dugu, zeinak ikaste prozesuan bat-batean ager daiteken hizkuntza motari egiten dion erreferentzia, ikasleak lanean ari diren bitartean. Azken hau, dio Banegas-ek (2013) "cannot be managed and it depends on the teacher's ability to make room for students' demands in situ" (8.orr). Beraz, irakasleak abilezia behar du ikasleen behar horiei erantzuteko.

Ikasgelako hizkuntzaz ari garenean, ez dugu ahaztu behar atzerriko hizkuntza ikasgelako hizkuntza bihurtzen denean, eguneroko hizkuntza eta hizkuntza

akademikoa presente daudela. Cumminsen (1979, 2008, 2017) sailkapena hartuz, esan dezakegu CLILen, ikuspuntu dinamikoa den heinean, BICS (Basic Interpersonal Comunication Skills) eta CALP (Cognitive Academic Language Proficiency) ditugula. Lehena, BICS, eguneroko egoeretan erabiltzen dugun hizkuntza mota da, eta CALP, berriz, helburu akademikoekin erabiltzen dena. CLIL testuinguruetan maneiatu beharreko hizkuntzaz ari garenean, esan dezakegu hizkuntza akademikoaz gain, eguneroko hizkuntza, komunikatiboa ere lantzeko aukerak ere daudela dela. Irakasleak hizkuntza-helburu komunikatiboekin erabiltzeko eta edukiari lotutako hizkuntza akademikoa erabiltzeko gaitasuna behar du atzerriko hizkuntzan klaseak eman ahal izateko (Pavón Vázquez eta Ellison, 2013).

2.2.   CLIL irakaslea: ikasgelako input nagusia

2.2.1. Irakaslearen ingeles maila eta hizkuntza kontzientzia

Perez-Cañadok (2016a) CLIL irakasleen zailtasunak aipatzean, honako hauek azaltzen ditu. Lehenik eta behin, proiektuaren gaztetasuna, esaten baitu "teachers who embark on this difficult enterprise can apply little of others' navigational knowledge" (2.orr). Bestetik, CLILek irakasleei eskatzen dien lan-karga handia izatea, besteak beste, esfortzu asko eskatzen baitu irakaslearen partetik, eta integrazioa helburu hartuta, beste irakasleekin koordinatzea ere eskatzen baitu. Azkenik, eta asko aipaturiko arazoa dugu hau, irakaslearen prestakuntza. Izan ere, irakasleek "(…) must not only master the foreign or second language, but must also have expertise in the subject content and training in second language pedagogy" (2.orr).

Argi dago, beraz, CLIL ezartzen denean, eta ingelesa irakas-hizkuntza bihurtzen denean, irakasle kualifikatuak behar direla arlo konkretuetan eta hizkuntza-maila altua eskatzen zaiela programa arrakastatsua izateko (Pavón Vázquez eta Ellison, 2013). Orokorrean, irakaslea gai izan behar da bigarren hizkuntza horretan eduki akademikoa irakasteko, baina ez dago argi zer nolako maila beharko luketen. Herrialde edo eskolaren arabera, irakasleen hizkuntza eskakizun maila aldatu egiten da. Espainiar testuinguruan, B2 maila gutxienez eskatzen dela komunitate gehienetan, eta batzuetan, Nafarroa edo Madrilen, esaterako, irakasleek C1 maila behar dute CLIL programetan egoteko (Alcaraz-Mármol, 2018).

Gainera, irakasleak "content-trained" (eduki-irakasleak) edo "language-trained" (hizkuntza-irakasleak) izan ohi dira gehienetan, nahiz eta testuinguru batzuetan "dual-certification" edo titulazio bikoitza duten irakasleak dauden (Kong, 2009). Nolanahi ere, CLIL irakaslea bere hizkuntza-mailataz kontziente izan behar du, eta maila mugatua ikusten duten irakasleek bere eduki eta metodoak egokitu behar dituzte, bai eta klaseko plangintza zehatza jarraitu bere buruaz ziurrago egoteko (Papaja, 2013, 149.orr).

Hüttner, et al. -en (2013) lanean ikusi zen bezala, badirudi irakasleentzat CLILen irakasteak ikaste-prozesu bat ekartzen duela. Bertan, irakasleek onartzen zuten CLILen irakasteak ingelesa ikasten jarraitzea esan nahi zuela, eta besteak beste,

"egunero zerbait berria ikasten zutela" hizkuntzari dagokionean. Izan ere, ikasle eta irakasleen rolak ezberdinak dira CLIL testuinguruetan eta ikasgela tradizionaletan. CLILen, aurreko lanean ikusi bezala, irakaslea ikasle ere bada zentzu batean, eta horrek antzeko maila ("equal footing") batean ezartzen ditu. Irakasle batek, esaterako, ongi laburtzen zuen egoera hau:

> It is a more equal basis. The student corrects the teacher's English. The teacher accepts this gratefully. What the teacher is still better at, are the content and theoretical issues and in this way it is complementary. And this is beautiful to observe [...] it is a mutual completion (Hüttner et al., 2013, 276.orr).

Horrela, ikasleek ere onartu zuten CLIL klaseetan giroa 'lasaiagoa zela' (276.orr). Nikulak (2010) ere ondorioztatu zuen, irakasle-ikasle rol horien ondorioz, ikasleek antsietate gutxiago erakusten zutela atzerriko hizkuntza erabiltzeko, eta ikasgelako diskurtsoan espazio gehiago hartzen zutela. Badirudi, hortaz, CLILen hizkuntza ikaste prozesu kolaboratibo bat azaleratzen dela, non klaseko partaide guztiak, modu batean edo bestean, ikasle bihurtzen diren. Hala eta guztiz ere, esan dezakegu goian aipatutako praktika horiek EZ-CLIL klaseetan ere gerta daitezkeela, eta gainera, CLIL testuinguruetan ez direla beti gertatzen.   Berriz ere aipagarria da, beraz, CLIL programen arteko heterogeneotasuna.

CLILen irakasteak, ordea, atzerriko hizkuntza maneiatzea baino zerbait gehiago eskatzen du. CLIL irakasleak hizkuntza kontzientzia erakutsi behar du, hizkuntzak nola funtzionatzen duen ezagutu eta aldi berean, hizkuntza tresna gisa erabiltzen jakin behar du (Papaja, 2013, 149.orr). Irakasleen hizkuntza kontzientzia edo *Teacher Language Awareness* (TLA) "focuses on the interface between what teachers know, or need to know, about language and their pedagogical practice" (Andrews eta Svalberg, 2017, 220.orr).

Aurreko kapituluan ikusi bezala, irakasle askok ez dute hizkuntzari lotutako pedagogiarik landu (Karabassova, 2018), CLILen hizkuntzak duen papera modu ezberdinean ulertzen dute (Skinnari eta Bovellan, 2016) eta ez dute beren burua ikusten 'hizkuntza-irakasle' gisa (Airey, 2012). Ikusi da, beraz, eduki-irakasleek hizkuntza-kontzientzia gutxi dutela (Lo, 2017). Badirudi, gero eta hizkuntza-kontzientzia gehiago eduki, orduan eta hobeto integratuko direla edukia eta hizkuntza CLIL eta antzeko testuinguruetan (Xu eta Harfitt, 2019).

Linen (2016b, 155.orr) hitzetan, egoera honen aurrean, irakasleen formazioan arreta jarri behar da. Alde batetik, kontzientzia areagotu eta bestetik, konfiantza

hartzen lagunduko duten formazioak behar dira, eduki-irakasleak hizkuntza-kontzientzia handitu dezaten eta bestalde, hizkuntza-irakasleak eduki-kontzientzia hori ere handitzeko.

2.2.2. Irakaslearen hizketaldia CLILen

CLIL irakasleentzat, ikasleentzat bezala, klaseko hizkuntza atzerriko hizkuntza da, ez baitira jatorrizko hiztunak kasu gehienetan. Horregatik, interesgarria da arreta jartzea CLIL irakasleen hizketaldietan, besteak beste, esfortzu gehiago eskatzen duelako ama-hizkuntza ez den hizkuntza batean edukiak transmititzea. Gainera, irakaslearen hizketaldia ikasleek jasotzen duten input nagusia da. Input hau, gainera, modu ulergarrian eman behar da ikasleek edukia ulertu ahal izateko, eta eguneroko hizkuntza, hizkuntza akademikoa, H1 eta H2ko baliabideak, etab. har ditzake bere barne (Lin, 2016a, 186.orr).

Irakasle eta ikasleek beraien artean interakzionatzeko duten modua Content-based Instruction (CBI) testuinguruetan gai nagusia da (Lyster, 2017). CLILen ikasgelako diskurtsoa aztertu duten lanak ugariak izan dira azken urteotan, esaterako Dalton-Puffer (2007) eta Nikula et al.-ena (2013). Ikusiko dugunez, ondorio interesgarriak atera dituzte irakasle-ikasle interakzioen inguruan CLIL testuinguruetaz ari garenean. Dalton-Pufferrena (2007) da klaseko interakzioa sakon landu duen lanik handienetakoa. Dalton-Pufferrek, diskurtsoaren analisia erabiliz, Austriako lehen hezkuntzako CLIL 40 klase ordu grabatu zituen, irakasle eta ikasleen arteko interakzioak ikertu nahian. Bertan, konturatu zen irakasleen partetiko *Initiation-Response-Follow-up (IRF)* egiturak oso ohikoak zirela eta ikasleek aukera gutxi zutela gaiari buruzko hizkuntza erabiltzeko. Beste hitz batzuetan, IRF egiturak erreferentzia egiten dio irakasleak galdera bat egiten duenean (*initiation*); ikasleak erantzun egiten du (*response*); eta azkenik, irakasleak erantzuna onartu, zuzendu edo ebaluatzen du (*follow-up*). Hortaz, ikusi zuen ikasleek ez zutela behar bezain input aberatsa jasotzen eta era berean, ez zutela atzerriko hizkuntza erabiltzeko aukera handirik. Horrenbestez, sintaktikoki sinplea zela beren hizkuntza erabilera eta esaldi motzak erabiltzen zituztela ondorioztatu zuen. Gainera, ikusi zuen irakasleak asko kontrolatzen zuela bakoitzaren hizketaldia, eta hortaz, teknikoagoa zela, eta adibidez, ama-hizkuntza erabiliz emandako klase batean baino umorea gutxiago erabiltzen zuela klaseak ingelesez ematean.

Nolabait irakasle diskurtsoa mugatua ikusi zuen Nikulak (2010) ere bere lanean. Honek Finlandiako irakasle baten diskurtsoa ikertu zuen, biologia klaseak finlandieraz (H1) ematen zituenean eta ingelesez ematen zituenean. Horrela, irakasle bakar baten diskurtso praktikak aztertu nahi zituen bi testuinguru horietan (CLIL eta ez-CLIL), atzerriko hizkuntza erabiltzeak bere irakaste-estiloa nola aldatzen zuen ikusteko. Kasu-ikerketa honetan ezberdintasunak ikusi zituen ama-hizkuntzan klaseak ematean eta ingelesez ematean, ikusi baitzuen finlandieraz aritzean "estilo monologikoagoa" erabiltzen zuela eta ingelesez aritzean, berriz, "dialogikoagoa" (114.orr). Horrela, CLIL klaseetan ikusi zuen irakasleak aukera ugari ematen zituela parte hartzeko, finlandieraz aritzean bere hizketaldiak luzeagoak ziren bitartean.

Berdina ondorioztatu zuten van Kampen et al.-ek (2018). Azalpena bilatu nahian, honako hau diote: (…) when teaching through a foreign language, teachers may more consciously focus on providing students with opportunities to participate in classroom interaction, in order to help them to practice and learn the target language" (114.orr). Bestetik, ikusi zuten azalpenak ematean, irakaslearen hizkuntza erabilera "pragmatically less varied and less subtle" zela (120.orr).

Bestelako emaitzak erakutsi zituzten Mahan et al.-ek (2016) beren lanean, non ikusi zuten irakaslearen inputa aberatsa, luzea eta egokia zela (13.orr), Norvegiako CLIL testuinguruan egindako ikerketa batean. Bertan, *Protocol for Language Arts Teaching Observation* (PLATO) (Grossman et al., 2013) erabili zuten zientzia eta matematikako CLIL klaseetako praktikak aztertzeko. Espero bezala, irakaslearen inputa ezberdina zen arlo ezberdinetan ari zirelako, zientzietako irakaslearen arreta nagusia kontzeptuen ulermenean jartzen zelako, eta matematikako irakaslearena, berriz, matematika arau eta prozesuetan. Horren harira, zientzietako irakasleak erabiltzen zituen *visual a*ids aipatzen ditu, prozesu horiek ulertzeko lagungarri egiten zutenak. Oro har, lan honetan ikusi zen, testuinguru honetan behintzat, klaseak ingelesez jasotzen zituzten ikasleek "complex instructional explanations and intellectually challenging tasks through the L2" jasotzen zituztela (14.orr).

Papaja-k (2013) Poloniako bigarren hizkuntzako 31 CLIL irakasleekin elkarrizketak egin eta eskola-behaketak egin zituen. Matematika eta fisikako irakasleekin bildutako datuekin ondorioztatu ahal izan zuen CLIL klaseak eta ama-hizkuntzan emandako klaseak berdin ematen zituztela. Bestalde, Biologia,

historia eta geografiako irakasleek aipatzen zuten ingelesa erabiltzeak aldaketak ekarri zituela klaseak emateko moduan: besteak beste, hizkuntzari arreta gehiago jartzen zutela aipatu zuten batzuk; beste batzuk, ingelesezko terminoak itzuli eta lantzeko denbora gehiago hartzen zutela. Orokorrean, irakasleek aipatu zuten klasea atzerriko hizkuntzan irakasteak ez zuela edukian eragin handirik, baina onartu zuten esfortzu eta denbora gehiago eskatzen zuela.

Aski ezaguna da CLIL irakasleak eduki edo hizkuntza espezialista izan ohi direla, baina atzerriko hizkuntzan klaseak ematen hasteak berengan duen eragina gutxi ikertutako arloa da. Moate-k (2011) Finlandiako 6 CLIL irakasleekin egindako elkarrizketak erabili zituen ikusteko nola eramaten zuten hizkuntza aldaketa hori, eta nola erantzuten zieten behar berri horiei. Lan honetan ikusi zuen CLILen irakasteak, hau da, atzerriko hizkuntza erabiltzeak klaseak emateko, irakasleengan estres sentsazioa pizten zuela. Gainera, irakasle hauek ere aipatu zuten CLIL klaseetan, besteak beste, umore gutxiago erabiltzen dutela.

Oattes, Oostdam, de Graaff, eta Wilschuten (2018) lanean ere aipatzen zuten irakasleek umore eta espontaneitatea galtzen zutela CLIL klase batzuetan, ikasleen ingelesez mailari atxikitzen ziotena. Irakasle batek, esaterako, honako hau dio: "It's difficult to be the teacher you are if students don't understand the jokes you make or the expressions that you use" (Oattes, Oostdam, de Graaff, eta Wilschut, 2018, 172.orr). Irakasle hauek aipatzen zuten lehen urteak zailagoak direla, erronka bat suposatzen duela eta nekagarria ikusten zutela, eta ondorioz, intseguritateak sortzen zitzaizkiela, baina esperientziari esker, erosoago sentitzen zirela CLILen ingelesa erabiltzen zutenean. Batzuk, esaterako, onartzen zuten nahiago zutela ingelesez irakatsi Nederlanderaz baino, nahiz eta momentu batzuetan hitz egokiak aurkitzeko zailtasunak eduki. Gainera, ondorioztatzen dute CLILen irakastea historia irakastean ingelesezko hitz egokiak erabiltzea baina gehiago eskatzen zuen programa dela (173.orr).

Atal honetan ikusi dugu zein garrantzitsua den irakaslearen inputa CLIL klaseetan. Izan ere, hizkuntza-aditu eta eduki-aditu izatea ez da erraza. Horien hizketaldia aztertu duten lanak ikusi ondoren, ikasgelako beste inputean, materialetan, eta input hori ematen den moduan, metodologietan, murgilduko gara hurrengo atalean.

2.3. CLIL metodologiak eta materialak

2.3.1. CLIL eta metodologia aktiboak

Dalton-Pufferren (2011, 182.orr) hitzak hartuz, esan dezakegu batzuetan badirudiela CLIL inplementatzeak nolabaiteko metodologia eta pedagogia aldaketa handiak dakartzala, irakaslean zentratutako praktiketatik (tradizionalak) ikaslean zentratutako praktiketara (berritzaileagoak). Esaterako, Coonan-en (2007) ikerketan parte hartu zuten Italiako 33 CLIL irakaslek aitortu zuten CLIL testuinguru bikaina zela inobazio didaktikoak aurrera eramateko (643.orr). Gainera, irakasle profilari buruz dio: "It has to be noted that this type of teaching should be carried out by teachers with an open mind to teaching, that is, with a non-traditional view of teaching and with a positive attitude to use quite varied approaches to methodology" (50.orr). Pavón Vázquez eta Ellisonek (2013) metodologia aldaketa bati egiten diote erreferentzia, esanez, "it would not be effective to teach the same content, the same way, with another language" (72.orr). Hala eta guztiz ere, badirudi irakasle batzuk ez direla kontziente CLIL testuinguruek eskatzen duten metodologia aldaketei buruz (Pavón Vázquez eta Rubio, 2010, 50.orr), eta ikerketak ere ez du argi zehaztu pedagogia berri horiek zertan oinarritu beharko liratekeen (Martí eta Portolés, 2019).

Alde batetik, eta beste behin oinarri hartuta ez dagoela CLIL metodo eta forma konkreturik, metodologia aldaketarik sumatu ez duten lanak ditugu. Esaterako, Badertscher eta Bieri-k (2009) Suizako CLIL eta EZ-CLIL ikasgaietan behaketak egin ondoren, ondorioztatu zuten ez zeudela ikasgaien oinarrizko diseinuan alderik. Ondorio berdinak atera zituen Dalton-Puffer (2007)-ek Austriako eskoletan egindako behaketetan.

Aurreko atalean ikusi bezala, badirudi CLIL testuinguruak EZ-CLIL testuinguruetan hain ohikoak ez diren klase interaktiboagoak izan ohi direla (Nikula, 2010; van Kampen et al., 2018), batez ere, irakasleak kontziente direlako ikasleei hizkuntza erabiltzeko aukerak eman behar zaizkiela. Esaterako, honako hau zion van Kampen et al.-en (2018) lanean irakasle batek:

> I teach biology and there are no differences in the teaching approaches when we do practical work, while in theory lessons there are. In regular lessons I give a short lecture. In the CLIL lessons I try to find forms where the students need to speak to each other (229.orr).

Nikularen (2010) lanean ere ikusi zen ikasleek gelako diskurtsoan parte-hartzeko leku gehiago zutela, nahiz eta metodologia aldaketa handirik ikusi ez. Ikasleei hitz egiteko aukera gehiago emateaz aparte, beste ikerlan batzuk, metodologia aldaketa eta berrikuntzen azterketa egin dute. Coylek (2013), esaterako, Ingalaterra eta Eskoziako bigarren hezkuntzako 11 ikastetxe ezberdinetako CLIL ikasleen ahotsak entzun nahi izan zituen, pedagogia arrakastatsuen bila, eta datu horiei esker CLILen irudi bat sortu ahal izan zuen: ikasleek zioten CLIL ikasgelak, besteak beste, ikasteko autonomia gehiago ematen zietela, analisi, argudiaketa eta beraien kabuz egiten zituzten lanketei esker.

Badirudi, CLIL inplementazio batzuk praktika berritzaile eta aktiboekin lotuta daudela. Esaterako, Barrios eta Milla Larak (2018) Andaluzian ezarritako programa elebidun bati buruzko iritziak jaso zituzten CLIL programa ebaluatzeko asmotan. Horretarako, 544 ikasle, 92 irakasle eta 237 gurasoei egindako galdetegiez baliatu ziren. Metodologiari lotutako gehien baloratutako ezaugarria zen "… its use of innovative, student-centred, practical approaches such as task- and project-based learning and group-work" (6-7.orr) praktika pedagogiko berritzaileak izan ziren. Izan ere, testuinguru honetako CLILen behintzat Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) lanabes eta baliabideak erabili eta lanketa autonomoan oinarritutako proiektu eta talde-lanak egiten dituztela ikusten da, eta horiek guztiak ondo ebaluatuta daudela irakasle eta ikasleengandik. Irakasleek, adibidez, komentatzen zuten ikasleetan zentratzen ziren *task-based* eta *project-based* moduko irakaste metodoak ikasleen goi-mailako trebetasunak (*higher order thinking skills*) garatzen laguntzen zutela, eta gainera, argi zeukaten ikasleek gehiago ikasten zutela proiektuen bidez eta informazioa beraien kabuz bilatuz. Ikasleen aldetik, CLILeko ariketak deskribatu zituzten honako hauek aintzat hartzen zituztela esanik: norberak zuzendutako ikaste prozesua, analisia, eztabaida, talde-lana, internet bidezko informazio bilaketa eta prozesatzea, eta azkenik, eduki ikasketa gidatua baina aldi berean modu independentean ematen dena.

Badirudi CLILen erabilitako metodologia edo pedagogiak, eraginkor direla ikusita, EZ-CLIL klaseetan ere aplikatzen hasi direla (Oattes, Oostdam, de Graaff, eta Wilschut, 2018; van Kampen et al., 2018). Van Kampen et. al-en (2018) ikerketako irakasleek CLILen erabiltzen zituzten teknika eta pedagogiaz baliotzen zirela onartu zuten EZ-CLIL klaseetan ere erabiltzen hasi zirelarik, pedagogia eraginkorrak zirela ikusi zutelako. Oattes et al.-en (2018) lanean ere, antzeko iruzkinak egin zituzten CLIL irakasleek: "CLIL forces you to be more

creative and to offer the students more variation when teaching. When things work well in CLIL it is just as easy to translate and use them also in the regular classes" (172.orr). Izan daiteke irakasle hauek motibazio gehiago dutela eskolak ingelesez ematean, adibidez, irakasteko modu berria delako, eta interakzio forma berriak sortzen direlako.

Dalton-Puffer et al.-ek (2010) irakasleen motibazio horri buruz diote: "CLIL-teachers are special in that they are willing to take on a considerable amount of extra work, which usually implies higher levels of motivation and pedagogical interest than teachers taken more generally" (282.orr). Ezin dugu, beraz, ondorioztatu CLIL metodologia aktibo eta berritzaileekin lotuta dagoela, ikusi baitugu beti ez direla praktika berritzaileak ematen. Argi dagoena da, modu batean edo bestean, klaseko dinamika aldatu egiten dela, atzerriko hizkuntza irakas-hizkuntza bihurtzen denean.

2.3.2. Materialak, baliabideak eta IKTak CLILen

Materialak

Ikasgelako materialez aritzean, ikaste-prozesuan tresna gisa erabil ohi diren idatzizko edo ahozko testuetaz ari gara. Hauek testuliburu tradizionalak, artefaktu digitalak, etab. izan daitezke.

CLILen helburu bikoitza kontutan hartuta, testuinguru honetan material egokien diseinu edo aukeraketa irakasleentzat erronka bat dela ikusi da (Banegas, 2012; Tedick eta Cammarata, 2012). Izan ere, Morton-ek (2013, 117.orr) dion moduan, material hauek bi helburu bete behar dituzte: alde batetik, edukia, eta bestetik, hizkuntza. Aldi berean, atzerriko hizkuntzan idatzitako materialek edukia modu ulergarri batean azaldu behar ditu, eta ikasleen beharrak ere aintzat hartu. Honek lan-karga handia ezartzen du CLIL irakaslearen gainean, ikerketa ugaritan irakasleek onartu duten bezala (Alonso García et al., 2008; Morton, 2013).

Lau herrialde ezberdinetako datuak erabilita, Mortonek (2013) lau material motekin lan egiten zutela ikusi zuen, eta nahasketa egiten zutela ikusi zuen. Alde batetik, CLIL testuliburu konkretuak, jatorrizko hiztunentzat sortutako testuliburua, egokitutako jatorrizko materialak, eta azkenik, beraien kabuz sortutako materialak.

Testuliburuei dagokienez, badirudi CLIL testuliburu espezifikoak urriak direla (Coyle et al., 2010, 86.orr). Hortaz, ikerketa gutxi dago testuliburu konkretu hauei

buruz. Argitaletxe batzuk 'CLIL testuliburuak' deituriko liburuak argitaratzen hasi dira, baina askotan erreferentzia egiten diote atzerriko hizkuntzako klaseetako liburuei, 'CLIL' etiketa erantsiz. Banegas-ek (2014) argitaletxe ezberdinetako EFL testuliburuak ikertu zituen Argentinako bigarren hezkuntzako testuinguruan, 'CLIL' etiketa zutenak, ("language-driven CLIL materials" deitzen diona) eta ikusi zuen, alde batetik, korrelazio gutxi zegoela irakasgaiari lotutako eduki espezifikoaren eta eskolako kurrikulumaren artean; eta bestetik, edukiak gehiegi sinplifikatuak zeudela eta ikasleak bete beharreko ariketak ere maila-baxukoak zirela (345.orr). Hortaz, ondorioztatzen du material hauek CLILetaz aldentzen direla eta "should be locally produced as a joint enterprise between publishers, curriculum designers, content teachers and teachers of English so that contents accurately reflect the complex curricula of secondary education" (Banegas, 2014, 357.orr).

CLIL material eta testuliburu espezifikoen urritasuna dela eta, eta kontutan hartuta CLIL ikasgaiek herrialde bakoitzeko curriculuma bete behar dutela, irakasle askok beste bide batzuk hartzen dituzte, esaterako ama-hizkuntzan idatzitako testuliburuak hartu eta itzuli egiten dituzte (Bovellan, 2014). Hala ere, ikerlari ugarik itzulpenaren aurka egin dute, eta egokitzeari buruz diote: "Mere translation of these materials, therefore, is rarely a successful policy for CLIL provision. Adaptation of L1 materials should also, wherever possible, avoid simplification—either linguistic or conceptual, because this makes no sense in hard CLIL" (Ball, 2018, 228.orr). Hitz hauek jarraituz, materialak egokitzeak ez luke edukien sinplifikazioa ekarri beharko. Hala ere, batzuetan kontestuari egokitutako materialez baliatu behar dira irakasleak, kurrikuluma jarraitu ahal izateko.

Beste aukeretako bat da atzerriko hizkuntzan idatzitako eta jatorrizko hiztunentzat diren materialak erabiltzea (*authentic materials*). Material hauen erabilera ere zalantzan jarri izan da. Izan ere, material mota hauetan hizkuntzaren erabilera erreala islatzen da, eta hori alde ona dute (Moore eta Lorenzo, 2007, 29.orr), baina hizkuntza ikasten ari den ikasleari zuzenduta ez dauden tresnak dira, eta nolabaiteko egokitzapena eskatu ohi dute (Martín del Pozo eta Rascón Estébanez, 2015). Gainera, jatorrizko materialak erabiltzeak dakarren beste alde txar bat tokiko testuinguru falta da, bertako adibide eta gaiez (normalean, Britainia Handikoak eta Estatu Batuetakoak) osatzen baitira (Banegas, 2014, 348.orr). Gainera, kulturen arteko ezberdintasunak azpimarratzen dira. Hortaz, irakasleen lan bihurtzen da, alde batetik, hizkuntza-

mailari dagokionez maila egokitzea, eta bestetik, adibide eta gai horiek bertako herrialdera egokitzea.

Martin del Pozo eta Rascón Estébanezek (2015) diotenez, egokitutako material horien erabilerari buruzko ikerketak emaitza ezberdinak erakutsi dituzte. Aipatzen dute, esaterako Kelly-k (2014) British Councilekin formatzen ari ziren irakasleekin egin zuen ikerlanean, adibidez, CLIL irakasleen artean oso ohikoa zela Britainiako edo AEBko ikasleentzat prestatutako materialak erabiltzea; baina bestetik, Hego Amerikan eta Europako testuinguruetan egindako beste ikerlan batzuk ez dutela jatorrizko materialen erabilera erakutsi, Banegasen (2013) eta Mortonen (2013) lanean bezala. Azken honen lanean, non, Austria, Finlandia, Espainia eta Herbereetako eskoletan bildu zituen datuak, irakasleen %90ak aitortu zuen nahiago zuela materialak beraiek sortzea edo nolabaiteko egokitzapen bat egitea. Moore eta Lorenzoren (2007) lan deskriptiboan, historiako testu akademiko erreal bat (egokitu gabea) hartu eta irakasleei eman zien egiten zituzten aldaketak ikusteko. Horrela, egiaztatu zuen irakasleen artean estrategia ezberdinak erabiltzen zirela testua ulergarriago egiteko eta beraien testuingurura egokitzeko. Horien artean, *simplification* (sinpleago eta motzago egitea), *elaboration* (beste hitz batzuekin azaltzea) eta *discursification* (mezua beste modu batean ematea, edota irudi, grafiko, bideoak txertatzea) aipatzen ditu.

Aurreko paragrafoan azaldutako material horiek egokitu beharrean, badirudi CLIL irakasleek beraien kabuz materialak sortzeko beharra ere ikusten dutela. Horrela, hizkuntza-maila, eduki-maila eta eskola testuinguruari egokitutako baliabideak jartzen ditu irakaslean mahai gainean. Bestalde, lan ordu asko eskatzen dituen lana izan daiteke materialen sorrera. Badirudi, ordea, nahiko ohikoa dela. Mortonen (2013) lanean, esaterako, irakasleen %90ak baino gehiagok aitortu zuten material propioak sortzen zituztela, eta lan-karga eta esfortzu handia eskatu arren, beraien testuinguruko baliagarri ziren materialak sortzeak gogobetetasun profesionala ere ematen ziotela (126.orr).

Gauzak horrela, argi dago material eta baliabideen aukeraketa eta erabilera asko ikertu ez den gaia den arren, beste behin ere CLIL programen heterogeneotasuna erakusten duela, eta irakaslearen esku geldizten dela beste behin ere erabakiak hartzearena. Izan ere, CLIL kurtsoaren beharrak bete eta ikasleen mailara egokitzen den materialak aurkitzea hizkuntza edo eduki irakasgai tradizional batean baino lan zailagoa bilakatzen da CLILen (Elwood, 2018, 44.orr).

IKTak CLILen

Egungo hezkuntza-sistemetan IKTen presentzia gero eta handiagoa da, eta tresna digital hauek CLIL bezalako testuinguru baten duten lekua aztergai interesgarria dugu. Izan ere, teknologia berriek tresna eraginkorrak dira ikasleen atzerriko hizkuntza gaitasunak eta konpetentzia interkulturala garatzeko, bai eta ikasi beharreko edukiari buruzko ulermena handitzeko ere (O'Dowd, 2018, 232.orr).

Ikusi dugun bezala, CLIL irakasle gehienentzat interneta oso iturri ona da materialak gelara eramateko, beraz teknologia berriak kontrolatzeko ahalmena eduki behar dute alde horretatik. Bovellanek (2014) dioen moduan: "Accessing Internet materials banks and numerous video clips, sounds and images enables a teacher to create varied multimedia materials, keeping up learners' attention and thus contributing to better learning results" (76.orr). Material horietan iturri ezberdinetan bildutako informazioa egon ohi da, batzuetan kurrikulumarekin zuzenean bat egiten ez duena, eta ikasleek ikuspegi kritikoa garatzeko aukera du material hauetan dagoen informazio hori kritikoki ebaluatzeko. Material digitaletan, gainera, irakasleak ikaslearen esku utzi ohi ditu informazio gehiago lortu ahal izateko bestelako baliabideak, esteka moduan, esaterako. Arnold eta Rixon-ek (2008) ere, ezaugarri honi buruz diote, ikasleen ikasteko eta lan egiteko independentzia bultzatzen duela.

Ikusita CLIL irakasle askok hizkuntzari behar lukeen garrantzia jartzen ez diotela, Gierlinger-ek (2017) SALT deituriko eredu pedagogiko bat proposatzen du bere lanean, non helburu nagusia den irakasleak formatzea hizkuntza-kontzientzia duen irakasleak izateko (*language-aware teacher*) bilakatu ahal izateko. SALT akronimoa honako terminoetan du jatorri: 1) *Strategic languaging*; 2) *All languages available in the classroom*; 3) *Multimodal Literacies*; 4) *Topic-relevant language*. Eredu hau garatzerako garaian, Gierlingerrek argudiatzen du CLIL irakasleak, SALT eredua jarraituz, gai izan behar direla hizkuntza ikasteko tresnak ikasleengana hurbiltzeko eta kontutan hartzen du irakasleak hizkuntzari lotutako tresna edo baliabide ugari IKTetatik datozela gaur egun. Hortaz:

Becoming a successful text decoder is one of the primary challenges in a CLIL classroom. Therefore, creating space for the strategic use of language-learning tools appears to be of vital importance; for example, how to efficiently use (electronic) dictionaries, thesauri, web-based translation tools, web-based reference materials, such as general and academic wordlists, or language visualization tools, such as graphic organisers, infographics (…), etc. These questions need to be addressed by the SALT teacher. (Gierlinger, 2017, 199.orr)

Izan ere, ikastetxe askok CLIL teknologia berriekin lotzen dute eta eredu berritzaileak inplementatu. Adibide dugu, esaterako Barrios eta Milla Lara (2018) lanean aurkezten den Andaluziako programa elebidun bat. Programa honen oinarrietako bat IKT tresna eta baliabideen erabilera zela aitortzen zuten, besteak beste. Irakasle eta ikasle gehienek aitortzen zuten programa elebidun konkretu horretan jatorrizko (authentic) materialak eta egokitutakoak erabiltzen zirela, eta horiek berritzaileak eta interesgarriak zirela (7.orr). Lan honetan ikusi zuten CLIL programa honek IKTeen erabilera bultzatu zuela; aztertutako lau eskoletan blog eta wikiak erabiltzen ziren, adibidez, ikasleen lanak bertara igotzeko bai eta irakasleak igotako materialak ikasleek eskuragarri edukitzeko. Ordenagailu eta arbel-digitalak ere asko erabiltzen zirela ikusi zuten, bai eta Moodle gisako plataforma digitalak ere. Honela diote: "These resources can definitely increase students' exposure both to general English and to specific content-related language" (Barrios eta Milla Lara, 2018, 9.orr). Azkenik, interneten lortutako material pedagogikoen erabilera oso ohikoa zela ikusi zuten, irakasle gehienek ohiko iturria zela esan baitzuten. IKTei lotutako programa izanik, aipatzen zuten internet konexio arazoak zeudenean, material tradizionalagoei eutsi eta hortaz, ikasleei eskainitako materialek ingelesarekiko ahozko esposizioa gutxitzen zutela, eta ondorioz, programaren helburuetako bat hautsi (10.orr).

Internet bidez material ezberdinak lortzearena ohikoa dela ikusi da beste testuinguru batzuetan (Lancaster, 2016; Pladevall-Ballester, 2015). Lancaster-en (2016) lanean, adibidez, ikasleek esaten zuten klasean erabilitako material horiek interesgarriak eta berritzaileak zirela, baina aldi berean, IKTen presentziari buruz, hobetu litekeela zioten; irakasleek berriz, ikuspuntu positibogo bat erakusten zuten teknologia berrien erabilerari buruz.

Material eta baliabideen iturri izateaz gain, teknologia berriek ikaste-prozesuan forma ezberdinak hartu ahal ditu, input moduan, adibidez, bideo formatua duten klaseak, azterketa/quiz interaktiboak, irakasleak sortutako podcast-ak,

etab. Internetak beste kulturetako ikasleekin harremana egin eta elkarrekin lana egiteko aukerak ere ematen ditu, eta 'virtual exchange' hauek CLILen presente egoteak ikasleen motibazioa handitzea ekar dezake (O'Dowd, 2018). 'Virtual exchange' edo 'telecollaboration' hauen bidez, ikasleek aukera dute lankidetza proiektuak aurrera eramateko beste herrialde eta kultura ezberdineko kideekin, betiere irakaslearen gidaritzapean. O'Dowd-ek (2018) dioen moduan, "virtual exchange is based on student-centred, intercultural, and collaborative approaches to learning where knowledge and understanding are constructed through learner interaction and negotiation" (233.orr).

Bukatzeko aipatu behar dugu CLIL testuinguruetan IKTen erabilerari buruzko hainbat ikerlan aurkeztu direla lerro hauetan, baina ez dela CLILen ezaugarri inplizitu bat. Izan ere, IKTen erabilera eta internetaren rola EZ-CLIL ikasgela arruntentan ere puntu garrantzitua izan daiteke gaur egun.

2.4.   Ulermena errazteko estrategiak

Atal honetan ikusten ari garen bezala, ikasleek jasotzen duten inputa izugarri garrantzitsua da. Irakasleen lanen artean dago, hortaz, input egokia ematea eta material egokiak aukeratzea. Gainera, horien ardura handienetako bat da atzerriko hizkuntza ikasleek erraz ulertzeko moduan erabiltzea (Lyster, 2007), eta aldi berean, hizkuntza eta eduki horiek modu ulergarrian transmititzea. Atal honetan, honi begiratuko diogu.

Ikasleek jasotako inputaren artean, leku garrantzitsua hartzen dute irakasleek egindako galderak. Pavón Vázquez eta Ellison-ek (2013) dioten moduan, irakasleak galdera mota ezberdinak erabili behar ditu ulermena errazteko:

> To facilitate understanding of content and language and promote the development of thinking skills, teachers should vary their use of question types to include simple closed display questions and referential ones which require more thought (73.orr)

Galdera motak sailkatzerako garaian, autore hauek *display questions* eta *referential questions* bereizten dituzte. Lehenak, erreferentzia egiten dio igorleak jadanik erantzuna dakien galdera bati, esaterako, irakasle batek edukia ulertu duten ikusteko egindako galdera bati. Bigarrenak, berriz, erantzun konplexuagoak eman ahal ditu. Hortaz, edukiari lotutako galderek ikasleak hitz egitera bultza dezakete, eta era horretan hizkuntza garapena bultzatu, baina baita ere, irakaslearentzat ulermen froga gisa ere funtzionatu dezakete. Dalton-Pufferrek (2007) irakasleak egindako galdera posibleen sailkapena egin zuenean beste honako hauek bereizi zituen (98.orr): (*1) questions for facts; (2) questions for explanations; (3) questions for reasons; (4) questions for opinion; (5) meta-cognitive questions*. Austriako CLIL klaseetako interakzioa eta klaseko praktikak aztertu zituen lanean, ikusi zuen lehen galdera motak, hau da, *questions for facts*-ek galderen %89a hartzen zutela, gehiengoa, hain zuzen. Gainerako galdera motak %11a besterik ez ziren.

Espainiako testuinguruan kokatutako lan batean, Llinares eta Pascual Peñak (2015) ere berdina ondorioztatu zuten, hain zuzen, CLIL klaseetan egindako galderak oso maiz *questions for facts* zirela eta hortaz, beste motatako galderekin alderatuta, erantzun motzagoak eta ez hain konplexuak sortzen zirela.

Galderak alde batera utziz, ulermena bultzatu eta irakasleak CLILera egokitzeko erabiltzen dituen estrategiaz aritzean, irakasleari lotutakoak aipa ditzakegu

(hizketaldia egokitzea, esate baterako) baina baita ariketak egiten laguntzeko erabiltzen diren estrategiaz ere (hiztegia lantzeko zerrendak, material audiobisualak erabiltzea, etabar). Esaterako, bi hauek aipatzen dira 297 irakasleei egindako galdetegiak erabiliz van Kampen et al.-ek (2018) egindako lanean. Beraien eskola praktikak definitzean, irakasle hauek onartzen zuten CLIL klaseetan *scaffolding* gehiago egiten zutela klase erregularretan baino (ama-hizkuntzan emandako klaseetan baino). Irakasle horien %14ak aipatu zuen hiztegia lantzeko glosario edo hitz zerrendak egiten zituztela. Beste guztiek, ariketei lotutako *scaffolding*-ari egiten zioten erreferentzia, testu bat aztertzeko baliabide gehiago eskeintzean, adibidez, eta irakasleari lotutako *scaffolding*, keinuen erabilera edo gauza bera modu ezberdinean errepikatzea, esaterako. *Scaffolding* atal horretan sartzen dituen beste adibide batzuk honako hauek dira: ulermena errazteko tresna eta baliabide ezberdinak eskaintzea, gai konkretu bati buruz aurretik dakitena aktibatzea, gorputz-mintzaira erabiltzea, gaiari lotutako terminologia espezifikoa erabiltzea eskatzen duen ariketak egitea, eta arrazoitzea eskatzen duten galderak egitea, mota ezberdinetako galderak egitea, besteak beste.

Ikasleek atzerriko hizkuntzan azaldutako eduki horiek ulertu ahal izateko eta ariketak egin ahal izateko, irakasleek hainbat estrategia erabil ditzakete. Esate baterako, mantsoago hitz egin dezakete, edo sinonimo eta antonimo ugari erabili (Pavón Vázquez eta Ellison, 2013). Ikerlari hauek ere aipatzen duten estrategietako bat isiluneak luzatzearena da. Izan ere, CLIL testuinguruan oso garrantzitsua da eduki eta hizkuntza prozesatzeko denbora edukitzea (Pavón Vázquez eta Ellison, 2013, 73.orr). Errepikapena, parafrasia edota adibide anitzen erabilera ere hizkuntza egokitzeko beste estrategiak dira (Lyster, 2017; Lyster eta Tedick, 2014). Espainiako testuinguruan kokatutako lanean, Dafouz Milne eta Llinares Garcíak (2008) ikusi zuten errepikapena oso ohikoa zela ulermena bermatzeko estrategia bezala, batez ere, hizkuntzarekiko esposizioa txikia zenean (atzerriko 'low immersion' testuinguruetan).

Bestalde, hizkuntza egokitzapena eskatzen ez duten estrategiak aipatzen dituzte Lyster eta Tedick-ek (2014), esaterako, keinuak, grafikoak edota multimedia baliabideak (211.orr), hauek ere edukiak ulertzen lagundu baitezakete. Estrategia hauen erabilerari buruz esaten du kontuz ibili behar dela ulermenerako laguntza hau eskaintzean: "Teachers need to engage in a delicate balancing act of providing just the right amount of support to make the target language

comprehensible while being demanding enough to ensure that learners engage in higher-order thinking skills" (Lyster, 2017, 28.orr).

Bestalde, ulermena errazteko estrategia ezaguna dugu ama-hizkuntzaren erabilera ere. Kasu hauetan, irakasleak ama-hizkuntzara jotzen du kontzeptu konplexuak azaltzeko edota ulermena errazteko baliabide gisa (Gierlinger, 2015; Mahan et al., 2016). Asiako testuinguruan kokatutako lanean, Tavaresek (2015) irakasleak erabilitako estrategietan jarri zuen arreta, Hong Kongeko eskola batean kokatutako kasu-ikerketa batean. Ikasgelako behaketak eta irakasle eta ikasleekin elkarrizketak erabiliz, ikusi zuen irakasleak estrategia ezberdinak erabiltzen zituela, esaterako, "noticing, syllabification, morphological cues, think-pair-share, vocabulary-building strategies, questioning techniques, immediate correction and others" (319.orr). Gainera, irakasle konkretu honek ama-hizkuntza erabiltzen zuen modu estrategikoan ikasleak CLILera egokitzeko. Hortaz, H1 erabiltzen zuen momentu zehatzetan eta ikasleen arteko interakzioan egotea ahalbidetzen zuen baita ere.

Honen inguruan ikertu duten lanetan estrategia horien erabilera ikusi da. Esaterako, Tanek (2011) Malasiako testuinguruan egindako lanean, non matematika eta zientzietako irakasleen praktikak ikertu zituen klaseak atzerriko hizkuntzan ematen zituenean. Bertan ikusi zuen oso ohikoa zela irakasleek hizkuntza sinplifikatzea, hitz-gakoak ematea edota itzulpena/ ama-hizkuntza erabiltzea ikasleei ulertzen laguntzeko.

Beste ikerlan ugarik ama-hizkuntzaren funtzio hau azpimarratzen dute (Arocena Egaña, 2018; Luk eta Lin, 2015). Hurrengo kapituluan hizkuntza ezberdinen klaseko presentziaz arituko garenez, sakonago landuko dugu atal hau.

2.5.   Kapituluaren laburpena

Kapitulu honetan inputaren inguruan aritu gara. Izan ere, atzerriko hizkuntzan irakastean, irakasleak input egokia eta aberatsa eman behar du modu ulergarri batean. CLIL testuinguruetan hizkuntzaren erabilera aipatuz hasi dugu atala, eta ikusi dugu BICS, eguneroko komunikazio-hizkuntza, eta CALP, hizkuntza akademikoa lantzen den testuingurua dela.

Ondorengo atalean irakaslean jarri dugu arreta. Ikasgelako hizketaldia eskola askotako input nagusia dela ikusi dugu, eta horretarako irakasleari eskatzen zaio hizkuntza-maila ona izatea, ikasleentzat input egokia izateko, eta bestetik, hizkuntza kontzientzia ere izatea (Gierlinger, 2017; Xu eta Harfitt, 2019).

Irakasleen hizketaldi horiek eta klaseko interakzioa aztertu duten lanetara jo dugu ondoren. Lan batzuetan, irakasleen hizketaldia mugatuagoa da inputa atzerriko hizkuntza batean eman behar dutelako (Dalton-Puffer, 2007; Nikula, 2010), eta beste batzuetan, berriz, input egokia eta aberatsa ematen dela ondorioztatzen da (Mahan et al., 2016; Papaja, 2013). Irakasleek atzerriko hizkuntza erabiltzean estres edota ansietate puntu bat eduki dezaketela erakusten duten lanak ere ikusi ditugu.

2.3 atalean metodologia eta materialetara jo dugu. CLIL askotan metodologia aktibo, parte-hartzaile eta berritzaileekin lotzen dela ikusi dugu, eta baita IKTen erabilerarekin ere. Aldi berean, onartu dugu ezaugarri hauek ez direla CLILen berezko ezaugarri, baina egoera berri honen aurrean, klaseko dinamika aldatu daitekela. Materialak aukeratzea, sortzea edo egokitzea irakasleentzat beste erronka bat da, testuinguruari egokitutako materialak izatea oso garrantzitsua baita ikasleek edukiak uler ditzaten.

Azkenik, input hori (bai irakaslearen azalpenetatik datorrena bai material ezberdinetatik datorrena) modu ulergarrian emateko estrategiei buruz aritu gara. Izan ere, atzerriko hizkuntzan inputa ematean, modu ulergarri batean eman behar da, eta ulermen arazoak daudenean, irakasleek estrategia ezberdinak erabiltzen dituzte. Estrategia horietako batzuk hitz-zerrenda, visuals, edo IKTeen erabilera izan daiteke, bai eta hizketaldian errepikapena, mantsoago hitz egitea, sinplifikatzea edota H1a erabiltzea.

3. kapituluan, H1aren erabilera honi buruz arituko gara sakonago, hizkuntza praktika eleanitzak aztertuko ditugu-eta.

ELEANIZTASUNA ETA PRAKTIKA ELEANITZAK ESKOLAN

Gaian sartzeko, lehenik, eleaniztasuna zer den eta nola ulertzen den ikustea ezinbestekoa iruditzen zaigu, hiztun eleaniztunen hizkuntza praktikak ulertu eta deskribatzen lagunduko digulako. Ondorengo azpiatalean *translanguaging* eta antzeko terminoei hurbilduko gara, eta garatu diren teoriak aztertuko ditugu. Azkenik, hirugarren azpiatalean, antzeko testuinguruetan egindako lanetan jarriko dugu arreta; besteak beste, CLIL ikasgelan irakasle eta ikasleen ama-hizkuntz(ar)en erabilerari buruz arituko baikara.

3.1. Eleaniztasuna

Kontrakoa uste den arren, munduko biztanle gehiengoa eleaniztun/elebidunak gara. Horrek esan nahi du, gure egunerokoan edo testuinguru ezberdinetan hizkuntza bat baina gehiago erabiltzeko ahalmena dugula. Atal honetan eleaniztasuna ulertzeko ikuspegi tradizionala eta gaur egungoa, holistikoagoa, alderatuko ditugu. Ikuspegi tradizionalaz aritzean, hizkuntzak konpartimentu banatuetan mantentzearen ideiak hezkuntzan izan zuen eragina ere ikusiko dugu. Izan ere, metodo zuzena gisako metodoak hezkuntza-sisteman itzulpenaren eta ama-hizkuntzaren presentziaren aurka egiten zuen (Cummins, 2009). Gaur egungo ikuspegi holistikoek berriz, hiztunen errepertorio linguistikoak aintzat hartzen ditu (Cenoz eta Gorter, 2017b). Kapituluaren azken atalean hiztun eleaniztunek egiten ditugun praktika eleanitzen inguruan sarreratxo bat egingo dugu.

3.1.1. Eleaniztasuna lehen eta orain

Eleaniztasuna fenomeno interesgarria den heinean, eleaniztun izatearen inguruan asko ikertu eta idatzi da. Eleaniztasuna ulertzeko modu tradizionalari hainbat modutara deitu zaio, esaterako *parallel monolingualism* (Heller, 1999) edo *the two solitudes assumption* (Cummins, 2007). Termino horiek islatzen duten moduan, hizkuntzen arteko banaketa eta ideia elebakarrak ziren nagusi duela hamarkada batzuk. Ikuspegi honen arabera, "elebiduna bi elebakarren batura" ('the bilingual as two monolinguals in one') (Baker eta Wright, 2017, 9.orr) bezala ulertzen zen; hortaz, idea hau kontutan hartuta, espero zen hiztun eleaniztunak hiztun elebakarren maila berdina edukitzea hauen hizkuntza guztietan. Garciak

(2009a) aipatzen duen moduan, eleaniztasun mota horri, *balanced bilingualism* deitu izan dena, ez da existitzen:

> Early scholars of bilingualism, in particular Bloomfield (1933), only considered native-like control of two languages as a sign of bilingualism. (…) *Balanced bilingualism* presents a picture of children and adults who are equally competent in two languages in all contexts and with all interlocutors. Although this is still a widely accepted idea, especially among educators, it has long been recognized that such a form of bilingualism does not exist. (44.orr)

80. hamarkada aldera ideia haien aurka egingo zuten eredu eta ideia berriak sortzen hasi ziren. Grosjean-ek (1985, 2008), esaterako, argudiatu zuen, pertsona elebidun bat ez zela bi pertsona elebakarren gehiketa, baizik eta elebidunek hizkuntza bat baino gehiago biltzen dituen errepertorioa dutela, beraien ezaugarri propioekin. Horrela, beraz, eleaniztasuna/elebitasunaren irudi osoago eta holistiko bat proposatu zuen. Ildo beretik, Cook-ek (1992) *multi-competence* terminoa proposatu zuen, eta argudiatu ez zuela zentzurik hiztun elebidun bat pertsona elebakar batekin alderatzea. Honen hitzetan, pertsona elebidunak ezberdinak dira, eta jariotasuna duen hiztun elebidun baten helburua ezin da jariotasuna duen elebakar baten berdina izan. Idea honek, hau da, *multi-compence* terminoak, gainera, erreferentzia egiten dio hizkuntza bat baino gehiago jakiteari baina hizkuntza bakoitzean maila ezberdinak edukita.

Gaur egun, beraz, ezberdin ulertzen dugu eleaniztasuna, besteak beste, Europako Batzordeak (2008) emandako definizio honek adierazten duen bezala:

> Multilingualism is understood as the ability of societies, institutions, groups and individuals to engage, on a regular basis, with more than one language in their day-to-day lives. In this context, a language is defined neutrally as a variant which a group ascribes to itself for use as its habitual code of communication. This includes regional languages, dialects, and sign languages. In addition, the term multilingualism is used for referring to the co-existence of different language communities in one geographical or geo-political area or political entity (6.orr).

Definizio hau oinarri hartuta, eleaniztasuna aztertzeko garaian, Cenoz eta Gorterrek (2010) hitzaren esanahiari lotutako hiru dimentsio interesgarri aurkezten dituzte: 1) *individual vs social dimension; 2) the number of languages involved and 3) the level of proficiency in the different languages* (402-403.orr).

Alde batetik, eleaniztasunak dimentsio indibidual eta soziala eduki dezake (*individual vs social dimension*): Izan ere, erreferentzia egin ahal dio banakako batek hizkuntzak erabiltzeko dituen gaitasunari eta aldi berean, gizarte mailan hizkuntza horren erabilerari. Dimentsio hauek oinarri hartuta, ikerlari eta instituzio batzuk bereizketa egiten dute ingelesezko *multilingualism* eta *plurilingualism* hitzen artean (baita gazteleraz ere), lehenak gizarte-eleaniztasunari erreferentzia egiten diolarik eta azkenak banakako hiztunari erreferentzia egiten diolarik. Hala ere, biak ala biak ere fenomeno berdinari erreferentzia egiteko erabiltzen dira kasu askotan; horregatik, tesi honen ingelesezko ataletan *multilingualism* hitza erabiliko da.

Bestetik, eleaniztasuna aipatzen dugunean, hizkuntza 'anitzei' erreferentzia egiten ari gara (*the number of languages involved)*, baina kopurua zehaztu gabe. Elebitasuna, bestalde, literalki bi hizkuntzen erabilerari erreferentzia egiteko erabiltzen den arren, eleaniztasunaren pareko termino gisa ere erabiltzen da, hau da, sinonimo gisa (ipar-amerikako testuinguetan, esaterako). Gurean bereizketa egingo dugu; elebitasuna erabiliko dugu zehazki bi hizkuntzen erabileraz hitz egiterakoan eta eleaniztasuna berriz, bi hizkuntza edo gehiagoz ari garenean, elebitasuna bere barne hartzen duen hitz gisa, hain zuzen.

Azkenik, eleaniztasunaz aritzean, hiztun eleaniztunak erabiltzen dituen hizkuntzetan duen maila (*the level of proficiency in the different languages*) aipatzen dute azken dimentsio gisa Cenoz eta Gorterrek (2010, 402–403.orr). Izan ere, eleaniztun batek ez du zertan maila berdina eduki erabiltzen dituen hizkuntza guztietan (Baker eta Wright, 2017, 3.orr). Honi lotuta, hizkuntzen mailaz ari garenean bestelako dimentsioak ere kontutan hartu behar dira, esaterako, testuinguru formal vs. informala edota hizkuntza idatzia vs. ahozko hizkuntza. Horren harira, hizkuntzak erabiltzeaz ari garenean, hizkuntza sortzeko eta jasotzeko gaitasunak bereizi behar dira, hiztunaren hizkuntza jabekuntza/ikaste-prozesu horretan gaitasun batzuk beste batzuk baino garatuagoak egon daitezke eta. Hauek denak kontutan hartzekoak dira eleaniztasunaz ari garenean.

3.1.2. Paradigma aldaketa eleaniztasuna eta hezkuntza eleanitza ikertzean

Ikusi dugu eleaniztasuna ulertzeko moduak forma ezberdina hartu duela azken urteotan. Honek, ondorioz, eragina izan du eleaniztasuna landu duten ikerketetan. Horrela, hezkuntza eta hizkuntzen ikaskuntzaren inguruko ikerketa arloan, aurretik aipatu ditugun ideia holistiko hauek islatzen dituzten teoriak sortu dira, ideia elebakarrak alde batera utziz. Cummins-ek (2007) *the two solitudes assumption* esamoldea ezagutarazi zuen, zeinak erreferentzia egiten zion irakasle eta eskolek hezkuntza elebidun edo murgiltze testuingurutan hizkuntzen arteko banaketa eta estrategia elebakarrei. Asko dira *two solitudes* deitzen dionaren aurka egin dutenak azken urteotan teoria holistikoagoak proposatuz eta testuinguru ezberdinetako praktikak islatuz. Aldaketa hau *the multilingual turn* (May, 2013) edo *paradign shift* gisa ulertu da, ikerketa eta teoria ugarik hizkuntzak erabiltzearen ikuspegi dinamikogo bat irudikatzen baitute gaur egun.

Egun, beraz, eleaniztasuna dinamikotzat hartzen dela dirudi (García, 2009a), eta hainbat izan dira eleaniztunen hizkuntza praktikak aztertu eta ulertzeko proposatu diren eredu teorikoak, bereiziki hezkuntza arloan, lehen aipaturiko purismo linguistiko *(linguistic purism)* horri aurre egiten dietenak eta hizkuntzen arteko mugak biguntzen dituztenak. Hoien adibide dira Hornberger-en (2003) *Continua of Biliteracy*, Cenoz eta Gorterren (2011, 2014, 2017b) *Focus on Multilingualism*, edo *Translanguaging* (García, 2009a; García eta Wei, 2014), batzuk aipatze arren. Azken hau hurrengo atalean aztertuko dugu sakonago.

Focus on Multilingualism eleaniztasuna eta batez ere hezkuntza eleanitza ulertzeko eta ikertzeko proposatutako eredu teorikoa da. Ikuspegi holistiko bat eskeiniz, 3 ardatz nagusiz osaturik dago: *hiztun-eleaniztuna*, *hizkuntza-errepertorio osoa* eta *testuinguru soziala*.

Cenoz eta Gorterren (2011, 2014) *Focus on Multilingualism* ereduak ikasleak eleaniztun gisa ikusten ditu, onartuz eleaniztunek hizkuntzen artean nabigatzen dabiltzala eta ez dutela hizkuntza bakoitza helburu eta egoera komunikatibo guztietan berdin erabiltzen. Horrela, hiztun eleanitzek beren hizkuntza aukerak erakusten dituzte beraien hizkuntza baliabide konkretuak erabiliz testuinguruaren arabera. Honi lotuta, Cenoz eta Gorterrek, ideologia elebakarrak alde batera utzita, ikasleen hizkuntza-errepertorio osoa hartzen dute kontutan.

Hizkuntza-errepertorio horri esker, eleaniztunen hizketa elebakarrengandik aldentzen da, beraien esku dauden baliabide guztiak erabil ahal dituztelako komunikatzeko garaian. Gainera, ikasle hauek hizkuntza berri bat ikasterako garaian lagungarri suertatuko zaizkien hizkuntza konparaketak egin ahalko dituzte, errepertorio linguistikoan dituzten baliabideak erabiliz. Eredu teoriko honen azken ardatza testuinguru soziala da. Izan ere, *Focus on multilingualism*-ek eskola barruko eta eskola kanpoko, hau da, gizarteko komunikazio praktiken arteko lotura egiten du. Teoria honek ulertzen du hizkuntzak ez direla modu isolatuan ikasten, eta beraz, testuinguruaren eragina garbia dela.

Dimentsio hauek guztiak kontutan hartuta, eredu honek curriculumeko hizkuntzat integratzeko beharra azpimarratzen du, hiztun eleanitzen beharrei hobeto erantzungo zuelako eta beraien errepertorio linguistikoko baliabideak hizkuntza berriak ikastean aktibatzeko. Besteak beste, aurretik ikasitako hizkuntzen kontzientzia metalinguistikoa eta komunikazio konpetentziak erabili daitezke hizkuntza berri hori ikasteko.

Atal honetan, labur azaldu ditugu eleaznitasuna egun ulertzeko moduaren nondik norakoak. Eleaniztasuna ulertzeko moduak jasan duen aldaketa ikusi dugu, eta teoria holistikoei begiratu. Jarraian datorren atalak teoria horietako batzuei buruzko informazio zabalagoa eskeiniko du.

3.2. Praktika eleanitzak izendatu eta sailkatuz

3.2.1. Praktika eleanitzak, code-switching eta translanguaging

Hiztun eleaniztunaren, hau da, hizkuntza bat baina gehiago erabil dezaketen pertsonen ezaugarrietako bat da hizkuntzen artean nabigatzen ibiltzea, edota egoera eta momentu konkretuen arabera hizkuntza aukera ezberdinak edukitzea. Kontua da, hizkuntza praktika malgu hauek deskribatzerako garaian termino edo kontzeptu ezberdinak erabili direla ikerketa arloan, esaterako *metrolingualism, heteroglossia, flexible bilingualism multilingual practices, code-switching* edota *translanguaging*, besteak beste. Guk azken bi hauetan jarriko dugu arreta, ikerketan gehien erabili direnak baitira.

Hiztunen arteko interakzioan hizkuntza bat baino gehiagoren presentzia azaltzeko *code-switching* edo kode-aldaketa terminoa oso ezaguna da. Duela urte batzuk Macarok (2005) honela definitu zuen *code-switching* terminoa:

> Codeswitching (switching between two or more languages) in naturalistic discourse occurs when a speaker and an interlocutor share more than one language or dialect. It occurs because the speaker finds it easier or more appropriate, in the linguistic and/or cultural context, to communicate by switching than by keeping the utterance totally in the same language. Codeswitching occurs frequently and is widespread throughout the world's bilingual language communities. The fact that bilinguals can codeswitch is an asset and a valuable addition to their array of communication strategies (63.orr).

Definizio honek jada erakusten du kode-aldaketa diskurtso naturalean gertatzen den zerbait dela, hiztunen artean hizkuntza edo aldaera bat baino gehiago baldin badaude. Interesgarria da, ikerlari honen hitzetan, hiztunak 'errazagoa' edo 'egokiagoa' den hizkuntza erabiltzen duela azaltzen baitu. Macaroren hitzak jarraituz, *code-switching*-ek hizkuntza batetik bestera pasatzearen fenomenoari egiten dio erreferentzia. Ildo beretik, Grosjean-ek (2010) dio: "(…) the speaker makes a complete shift to another language for a word, phrase, or sentence and then reverts back to the base language" (51-52 orr.). Azalpenean ikusten da, hizkuntza-aldatze hori hitz edo esaldi batean eman daitekela.

Bere lan ezagunean, Poplack-ek (1980) hiru *code-switching* mota bereizten ditu. Alde batetik, *tag-switching,* non hizketaldian beste hizkuntza bateko esalmolde labur bat sartzen den ('I mean' edo 'you know', esaterako). Bestetik, *inter-*

sentential, hizkuntzen arteko aldaketa esaldi barruan gertatzen denean, eta *intra-sentential*, esaldi eta sintagmen arteko mugak errespetatzen dituena. Garcíak (2009a), gainera, azpimarratzen du elebidunen artean espontaneoki gertatzen den fenomenoa dela. Termino honek, ordea, konnotazio negatiboak ekar ditzake bere gain, izan ere, pentsatu izan da, kode-aldaketa egitearen arrazoietako bat hizkuntza-maila eskasa izan daitekeela, beraz hiztuna errazagoa egiten zaion hizkuntzara pasatzen dela arazoak dituenean. Garcíak (2009a) argudiatzen du hiztun eleaniztunak code-switching egitean hizkuntza ezjakintasuna edo maila eskasarekin loturarik ez duela, askok pentsatzen duten bezala. Izan ere, hizkuntzen arteko aldaketak egiteko abilezia hori elebidun trebeen ezaugarri dela argudiatzen du (50.or).

Translanguaging termino berriagoa da, eta era berean, hiztun eleaniztunen praktikak deskribatzeko erabiltzen da. Fenomeno interesgarria den heinean, ikerlari eta autore ezberdinek ezberdin definitzen dute *translanguaging*, batez ere hizkuntzen banatzeari dagokionean. Hitzari eta fenomenoari argia eman dion autoreetako batek, Garciak (2009a), hiztun elebidunaren prozesu gisa ulertzen du, esaten duenean "translanguagings are *multiple discursive practices* in which bilinguals engage in order to *make sense of their bilingual worlds*"(45.orr). Beste lan batean, honela definitu izan dute:

> (…) for us, translanguaging is an approach to the use of language, bilingualism and the education of bilinguals that considers the language practices of bilinguals not as two autonomous language systems as has been traditionally the case, but as one linguistic repertoire with features that have been societally constructed as belonging to two separate languages (García eta Wei, 2014, 2.orr) .

Definizioaren oinarrietako bat dirudi hiztunaren errepertorio linguistiko bakarrak, nondik eleaniztunek komunikazio-helburua betetzeko aukeraketa estrategikoak egiten dituzten. Garcíarentzat translanguaging-ek ez dio erreferentzia egiten bi hizkuntza bananduei, ezta hizkuntza praktika ezberdinen nahasketa bati ere; translanguaging hizkuntza praktika mota berri bat dela defendatzen du (García eta Wei, 2014).

Oinarri beretik baina matiz batzuekin, Baker eta Wright-ek (2017) honako definizioa ematen du *Foundations of Bilingual Education and Bilingualism* lan ezagunean:

> Translanguaging is the process of making meaning, shaping experiences, understandings and knowledge through the use of two languages. Both languages are used in an integrated and coherent way to organize and mediate mental processes in learning" (280.orr).

Autore honek, hizkuntzen erabilera integratua translanguaging-en ezaugarri gisa azpimarratzen duen arren, eleaniztasuna ikuspegi holistiko batetik ulertzen baitu. Onartzen du 'bi hizkuntzak' erabiltzen direla prozesuan, beraz, kode-banaketa hori egiten du, Garcíak ez bezala. Blackledge eta Creese-k (2010, 19.orr), beren lanean, 'flexible bilingualism' erabiltzen dute praktika eleanitzei erreferentzia egiteko.

Kontua da, code-switching eta translanguaging sinonimo gisa erabili izan direla eta erabiltzen direla, (adibidez Gené Gil et al. 2012), eta egun *umbrella term* gisa ere erabiltzen direla bai bata eta bai bestea praktika eleanitzak deskribatzeko. Beste batzuk, ordea, bereizketa egiten dute. Izan ere, translanguaging-ek ere hizkuntza ezberdinen erabilera islatzen badu ere, code-switchingetaz aldentzen da eleaniztasunaren perspektiba holistiko baten fruitu delako. Izan ere, oso lotuta dago hizkuntzen arteko mugak biguntzearen alde egiten duten ikuspegi teorikoetatik, esaterako, lehen aipaturiko *Focus on Multilingualism* (Cenoz eta Gorter, 2011, 2014) edo *Continua of Biliteracy*-tik (Hornberger, 2003). Horregatik, Lasagabaster eta Garcíak (2014) honela bereizten dituzte code-switching and translanguaging:

> While code-switching states that the bilingual speaker uses two languages as two separate monolingual codes, translanguaging believes that bilingual speakers have a unique linguistic repertoire which they strategically use to choose elements that enable effective communication. Translanguaging, therefore, is the process by which bilingual students make use of the many resources their bilingual status offers. (558-559.orr)

Gauzak horrela, Garcíak (2009a) eginiko kontzeptualizazioan aipatzen du translanguagingek bere baitan hartzen dituela bai code-switching bai bestelako elebidunen hizkuntza erabilera mota ezberdinak eta hizkuntza praktikak deskribatzerakoan, hiztunaren perspektiba hartzen duela hizkuntzarena baino. Badirudi, beraz, translanguaging-ek hiztunen errepertorio osoa hartzen duela bere barne, ikuspegi holistiko batetik, code-switching-ek hizkuntzen arteko bereizketa argiagoa egiten duen bitartean.

Hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, hitzaren eta fenomenoaren inguruan eginiko ekarpenak handiak izan dira (ikus, besteak beste, (Cenoz eta Gorter, 2017b; García, 2009b; García eta Wei, 2014; Lewis et al., 2012). Esan beharra dago, hala ere, translanguaging-i buruzko definizio eta pedagogiek terminoaren esanahi ezberdinak islatzen dituztela, garatzen eta sakontzen ari den teoria eta pedagogia baita (Leung eta Valdés, 2019, 358.orr). Gure kasuan, hitza bera erabiliko dugu "to refer to both the complex language practices of plurilingual individuals and communities, as well as the pedagogical approaches that use those complex practices" (García eta Wei, 2014, 20.orr).

3.2.2. *Translanguaging* sailkatuz: espontaneoa eta pedagogikoa

Ikusi dugu hiztun eleaniztunek hizkuntza ezberdinak erabiltzeko gaitasuna dutela testuinguru ezberdinetan, eta hizkuntza hauek elkarrizketa batean 'nahastea' ere ohikoa dela. Eskola testuinguruak, ordea, ez du historikoki behintzat errealitate hori islatu. Izan ere, historian zehar oso ezaguna izan da hizkuntza ezberdinak ikaste prozesuan elkarrengandik argi bananduta mantentzeko idea, bai atzerriko hizkuntza testuinguruan bai H2 edo H3 ikaste-prozesuan. Eredu argia dira, Palmer et al.-ek (2014) aipatzen duten bezala, Ipar Amerikako *two-way immersion* programak, non ikasleek bi hizkuntzetan ikasten duten baina egun, edo denboraren arabera bereizita dauden hizkuntzak. Hain urrunera joan gabe, gurean ere curriculumean argi bereizita daude eskolako hizkuntza nagusia eta atzerriko hizkuntza(k), ordutegiko zati konkretu bat hartzen dutelarik. Horrela, hizkuntzak banunduta egon dira ikasgai, irakasle edo denboran zehar (Baker eta Wright, 2017). Eskola elebidun edo eleanitzetan ere, askotan hizkuntza ezberdinetako programazioak banunduta aurkezten dira/independente eta ez modu integratu batean, eta beraz, ez dituzte hizkuntzen arteko erlazioak sendotzen (Cenoz eta Gorter, 2011, 357.orr).

Ikerketa tradizioak eta eskola inguruko ideologiek, beraz, hizkuntzen arteko muga zorrotzak mantentzearen alde egin dute. Errealitatean, ordea, eleaniztunek hizkuntzen artean nabigatzen gabiltza (Cenoz eta Gorter, 2011), eta beraz, hezkuntza planteatzen den moduak eta errealitateak ez dute bat egiten. Izan ere, ideia hauek eleaniztasunaren ikuspegi elebakar bat dute oinarri, non hiztun eleaniztuna elebakar batzuen gehiketa gisa ikusten den. Hezkuntzan, hizkuntza ezberdinak erabiltzen ziren estrategia pedagogikoak sortu dira eleaniztasunaren ikuspegi holistiko horretan oinarrituz. Horietako bat aurreko atalean jada definitu dugun *translanguaging* da.

Hitzaren lehen erabilerari begiratuz, ikusiko dugu *Translanguaging* termino originala Galeseko testuingurutik datorrela, non Williams-ek (1994) lehen aldiz erabili zuen modu planeatuan bi hizkuntza erabiltzen zituen estrategia pedagogiko bati erreferentzia egiteko. Era honetan, ikasle horiek inputa hizkuntza batean jasotzen zuten (adibidez, ingelesez) eta gero informazio hori erabiliz outputa sortzeko beste hizkuntza bat erabiltzen zuten (galesa, esaterako). Terminoa garatuz, esanahi berriak hartuz eta munduan zehar hedatuz joan den arren, egun Galesko hezkuntza-sistema elebidunean ezaguna den estrategia izaten jarraitzen du translanguaging originalak (Lewis et al., 2012).

Egun, beraz, translanguaging-ek erreferentzia egin ahal dio elebidun/eleaniztunen praktika eleanitzak ematen diren prozesuari (eskolan zein gizartean) eta galeseko eskoletan aspaldidanik egiten diren eta bi hizkuntza sistematikoki erabiltzen diren estrategia pedagogikoari. Hurrengo atalak bi translanguaging "mota" hauen arteko informazio gehiago biltzea du helburu.

Cenoz eta Gorterrek (2017a), esaterako, translanguaging espontaneoaren eta pedagogikoaren arteko bereizketa egiten dute:

> Pedagogical translanguaging can also be referred to as intentional translanguaging or classroom translanguaging because it embraces instructional strategies that integrate two or more languages. In its origin, it was a planned alternation of the languages for input and output, but it has expanded to include other pedagogical strategies that go across languages. Spontaneous translanguaging is considered the more universal form of translanguaging because it can take place inside and outside the classroom. It refers to the reality of bi/multilingual usage in naturally occurring contexts where boundaries between languages are fluid and constantly shifting (4.orr).

Hortaz, translanguaging pedagogikoaren atzean aurretik planeatutako estrategiak daude, ikaslearen errepertorio linguistikoa biltzen dituztenak; translanguaging espontaneoak, ordea, ikasgela barruan ematen denean, funtzio ezberdinak izan ditzake. Horrela, translanguaging espontaneoak helburu pedagogikoa izan dezake, irakasle batek azalpena argi geratzeako H1a erabiltzen duenean, adibidez; beste kasu batzuetan, ordea, translanguaging espontaneoa komunikazio baliabide gisa erabiltzen da, irakasle eta ikasleen arteko interakzio naturalaren parte bezala. Moore eta Nikulak (2016) bereizketa egiten dute ikasgelako translanguaging-aren barruan, esanez, hizkuntza praktika

espontaneo horiek "orienting to language in content" (lehen adibidea bezala) edo "orienting to the flow of interaction" (bigarren adibidea bezala) izan daitezkela.

Laburtuz, esan dezakegu translanguaging ideiak lehen aipaturiko Cumminsen (2008) *the two solitudes assumption* ideiarekin amaitzen du, eta hizkuntzen arteko mugak arintzen dituela. Gaur egun bi zentzutan uler daitekeela ikusi dugu; bata, pertsona eleaniztunek modu naturalean erabiltzen dituzten praktika eleanitzei erreferentzia egiteko, bai eskolan baita eguneroko bizitzan ere; eta bestea, ikasleen errepertorio eleanitza erabiltzen duten estrategia pedagogikoei erreferentzia egiteko (Cenoz eta Gorter, 2017b). Hurrengo atalean gaia aztertu duten lan ezberdinetan jarriko dugu arreta.

3.3.   *Translanguaging* ikasgelan: ikerketak

Atzerriko, bigarren edota hizkuntza gehigarri baten ikaste eta irakaste prozesuan ama-hizkuntza erabiltzearena aspaldiko gaia da, hezkuntza eta ikerketa arloan landu eta eztabaidatu dena. Fenomenoa deskribatzeko erabili diren terminoak lehen aipaturiko *code-switching, language alternation, translanguaging* edota *H1aren erabilera* izan dira. Atal honetan, begirada bat botako diegu ama-hizkuntz(ar)en presentzia ikasgelan aztertu duten lanei CLIL testuinguruetan, terminologia ezberdina erabili duten arren.   Izan ere, translanguaginen atzean dagoen idea hiztunaren errepertorio bakarra den arren, oso zaila da hizkuntza praktikak deskribatzea terminologia tradizionala (H1, H2, H3) erabili gabe (Moore eta Nikula, 2016). Hortaz, translanguaging espontaneoa eta praktika eleanitzak aztertu dituzten lanei buruz arituko gara.

3.3.1. Ama-hizkuntz(ar)en presentzia ikasgelan

Aurreko atalean ikusitako ikuspegi elebakarrak direla eta, hizkuntzak elkarren artetik ban4nduta egon direnez, ama-hizkuntzaren presentzia hizkuntza berri bat ikasterako testuinguruan kontrobersia handia sortu duen gaia da. Izan ere, egun ikerketak H1aren paper lagungarria azpimarratu duten arren (Arteagoitia eta Howard, 2015; Luk eta Lin, 2015), oraindik nagusi dira xede-hizkuntza-bakarrik (*target-language-only*) edo hizkuntza-bat-egoera-bat (*only-language-at-a-time)* ideologiak eskola praktika eta politiketan (Li, 2018, 16.orr). Lasagabaster eta Garcíak (2014) azaltzen duten bezala, hizkuntzak banandduta mantentzearen atzean bi uste ezagun daude: bata, H1ak H2aren ikaste prozesuan eragin negatiboa izan dezakela (interferentzia); eta bestetik, gero eta esposizio gehiago eduki H2an, gero eta maila altuagoa lortuko dela (558.orr).

Testuinguru ezberdinetan egindako ikerketek, ordea, translanguaging naturalki gertatzen den prozesua dela eta oso ohikoa dela erakutsi dute (Lasagabaster, 2017; Lo, 2015). Ikusi da, beraz, ikaste eta irakaste prozesuan hainbat hizkuntza presente daudela, eta CLILen oraindik ohikoagoa dela. Atzerriko hizkuntza klase tradizioanak (*EFL*) eta CLIL testuinguruak alderatu dituzten ikerketek aztertu dute hizkuntzaren erabilera klasean nolakoa den, eta bi arlotako klase diskurtsoa alderatu dute. Horren adibide dugu, adibidez, Kontio eta Sylvénen (2015) lana, non konparaketa egiten duten EFL ikasgeletako eta ingeles bidezko tailer modukoetakoen (English-medium workshops) ama-hizkuntza eta atzerriko hizkuntza erabiltzeari dagokionez. Ikuspegi etnografiko baten bitartez, ikasleak-hasitako (learner-initiated) eta irakasleak-hasitako (teacher-impelled)

hizkuntza alternazioa aztertzen dute Suediako testuinguruan. Bestalde, Gené-Gil et al.-en (2012) ikerketa Espainiako testuinguru eleanitz batean kokatzen da, Balear irletan, non ikasleek katalana eta gaztelera dituzten ama-hizkuntza eta ingelesa berain atzerriko hizkuntza den. Lan honetan, galdetegi, elkarrizketa eta behaketen bitartez, hizkuntza erabilera aztertu zuten ingeleseko klaseetan (EFL) eta ingelesez ematen zen teknologiako klase batean (CLIL). Besteak beste, emaitzek erakutsi zuten atzerriko hizkuntza edukiarekin eta funtzio pedagogiko batekin lotzen zutela, eta ama-hizkuntzak berriz, eguneroko hizkuntzako gauzekin. Gainera, testuinguruak alderatuta, ikusi zuten CLILen ama-hizkuntzaren presentzia handiagoa zela ingeleseko klasean baino.

Gainera, CLILen kasuan, non askotan ikasle eta irakaslen H1a berdina den eta irakasleak berak ere xede-hizkuntzaren ikasle diren, oso interesgarria da praktika eleanitz horiei begirada botatzea (Moore eta Nikula, 2016, 223.orr). Testuinguru honetan, ordea, atzerriko hizkuntza da eskola-hizkuntza nagusia, eta beraz, ama-hizkuntzaren erabilera gehiegizkoak edukiko lukeen eraginaz eztabaida sortu da. Egun, ama-hizkuntzak CLILen joka dezaken paperaren inguruan iritzi ezberdinak daude. Alde batetik, H1aren presentzia onartzen dutenak baina gutxi erabili behar dela defendatzen dutenak (azalpenak argitzeko, esaterako), eta bestetik, beste funtzio pedagogikoak ere badituela defendatzen dutenak, esaterako hiztegia ikasterakoan edota kontzientzia metalinguistikoa lantzerako garaian (Lasagabaster, 2013).

Iritzi hauek CLIL klaseko hizkuntza-politiketan ere isla daitezke. Asiako testuinguru batzuetan, adibidez, non oso ohikoa bihurtzen ari diren ingeles-bidezko-programak, ingelesa-bakarrik (*English-only*) arauak ezartzen dira, Lin eta He-ren (2017) lanean bezala. Hong Kongeko bigarren hezkuntzako eskola batean egindako lanean, jatorri ezberdineko 13 ikasle eta beraien irakaslearen arteko interakzioak aztertu zituzten, non ikusi zuten, eskolak ezarritako arau elebakarrak alde batera utzita oso ohikoa zela translanguaging egitea momentu ezberdinetan. Ondorioztatzen dute:

(…) translanguaging may be interpreted as naturally occurring speech/action events during which participants of multilingual/multicultural backgrounds deploy their multilingual/multicultural resources (…) to contribute to mutual meaning making. With such a dynamic and interconnectivity view of translanguaging in multilingual classrooms such as CLIL classrooms, there need not be rigid stipulation of using only one language for instruction or interpersonal communication. Rather, it would be advisable to make full use of these multilingual resources (including the home language and cultural resources of the participants) to bridge communication disconnects, to activate creative thinking (…), to motivate learning, and to affirm learners' ethnic/cultural identities (Lin eta He, 2017, 242–243.orr).

CLILek, hain anitza izanik, inplementazio mota ezberdinak eduki ditzake testuinguruaren arabera. Hala ere, ikusi dugu praktika eleanitzak ohikoak direla klaseak atzerriko hizkuntza batean ematen direnean. Horrexegatik, Nikula eta Moorek (2016) dioten moduan, CLIL klaseak eredu ezinhobea dira translanguaging nola ematen den ikusi ahal izateko. Fenomenoaren azterketan, lehenik arreta jarriko dugu irakasleen hizkuntza erabilerari.

3.3.2. Irakasleen hizkuntza erabilera klasean

Kode-aldaketa edota translanguaging CLILen aztertzen duten ikerketen artean, gehiengoak arreta jartzen du irakasleak ikasleen ama-hizkuntzaren erabilerari. Izan ere, eduki konplexuak atzerriko hizkuntzaren bitartez azaldu eta ikasleek ulertu ahal izateko ikusi da ama-hizkuntzak laguntzen duela. Hainbatek H1aren funtzio pedagogikoa azpimarratu dute klaseak ematerakoan, baina aldi berean, ama-hizkuntzaren gehiegizko erabilpenak CLILen helburuetako bat (xede-hizkuntzan ikasleek duten esposizio handia) eta H1aren funtzio pedagogikoa zapalduko lukeela dioten ahotsak ere badaude (Lo, 2015; Nikula, Dafouz, et al., 2016).

Gai honi buruz ikertzean, ama-hizkuntza eta atzerriko hizkuntzaren erabilera modu kuantitatiboan ikertu izan da eta portzentai egokia ere zein litzateken esatera ausartu dira batzuk; Macarok (2005) esaterako %10-15ean kokatu zuen. Hala ere, nagusi dira H1aren erabilera nolakoa den, noiz egiten den eta zertarako azaltzen duten lanak, ikuspegi kualitatibo batekin. Jarraian ikusiko ditugunak horrelakoak dira.

Funtzioak

Interes handia piztu duen gaia denez, irakasleen H1 erabileren funtzioei jarri zaie arreta (Arocena Egaña, 2018; Gierlinger, 2015; Luk eta Lin, 2015). CLILeko diskurtsoa aztertzerako garaian, H1aren erabilerari dagokionean bi erregistro nagusi bereizi dira (Arocena Egaña (2018) eta Gierlinger (2015), esaterako): arautzailea eta hezitzailea. Gierlingerrek (2015, 350.orr) azaltzen duen moduan: "The former being the discourse to allow teachers and students to manage and organise the classroom's social world, the latter being the classroom talk through which the academic content and skills being learnt are communicated". Bi erregistro hauen barruan, ordea, hainbat azpikategoria bereizten ditu Arocena Egañak (2018, 40.orr) euskal testuinguruan egiziko lan batean: jokabideen/ikasgelaren kudeaketa eta soziala eta afektiboa kategoria arautzailearen barruan, besteak beste, jarraibideak ematea, diziplina mantentzea, edota ikasleekin harreman ona garatzea eta hizkuntza-antsietatea murriztea funtzio nagusia izanik. Bestetik, lexikoaren eta edukiaren transmisioa erregistro hezitzailearen barruan, ama-hizkuntza klaseko eduki eta terminologiari lotutako arazoak argitzeko erabiltzen denean. Bai Arocena Egaña (2018) bai Gierlingerren (2015) lanak ondorioztatzen dute irakasleek helburu jakin batekin erabiltzen dutela ama-hizkuntza, eta erabilera hori aurrez pentsatukoa dela.

Ildo beretik, beste ikerketa batzuk ama-hizkuntzaren erabilera sailkatu dute. Luk eta Linen (2015) lanean, ondorengo taulan azaltzen den sailkapena egiten dute (20-21.orr).

3.1 Taula. Ama-hizkuntzaren erabilera funtzioak ikasgelan. Luk eta Linen (2015) oinarritua.

Arloko edukiak barneratzeko funtzioak
- Gramatikako instrukzioak ematea - Ll erabilera lexiko mailan gerta daiteke, hitzaldi partzial batean edo hitzen segida batean
- Hiztegiari lotutako itzulpenak ematea
- Ikasleen ulermen eza/falta konpontzea
- Itzulpenak egitea eta ulermena ziurtatzea
- Gramatika azaltzea

Harremanak negoziatzeari lotutako funtzioak
- Enpatia edo elkartasunerako jarrera erakustea
- Ikasgela kudeatzea eta disciplina mantentzea
- Ikasleak parte-hartzeko motibatzea

Gai, zeregin edo klaseko faseren bat markatzeko funtzioak
- Egin beharreko zereginari buruzko argibideak ematea
- Gai-aldaketa edo zereginen trantsizioa nabarmen egitea

Lan honetan, Hong Kongeko eskola bateko zientzia klasetako praktikak aztertu nahi izan zituzten. Besteak beste, ikusi zuten, aztertutako bi irakasleen klaseetan ikasleek aukera gutxi zituztela parte hartzeko, ez bazen irakasleak planteatutako galdera zehatz bat erantzuteko edo klaseko ikasle 'azkarrenak/maila altuena zutenak' galdera bat egiten zutenean. Orokorrean ikusi zuten, irakasleak dominatzen zituela klaseak, beraz.

Lo-ren (2015) lanak Hong Kongeko CLIL irakasleen hizkuntza erabilera aztertu nahi izan zuen; alde batetik, kuantitatiboki hizkuntzen erabilera neurtuz eta bestetik, ikuspegi kualitatibo baten bitartez 'pattern' eta funtzio batzuk identifikatuz. Horretarako, bigarren hezkuntzako 5 ikastetxeko 12 klase ezberdinetatik lortu zituen datuak, osotara 12 irakasle eta 480 ikasleen hizkuntza erabilera aztertuz. Ikerketa honek erakusten du irakasleen ama-hizkuntza erabilera ohikoagoa dela ikasleen xede-hizkuntza maila baxuagoa denean. Alderantziz, ikasleek maila altuagoa dutenean, irakasleek termino konkretu batzuek itzulpenak egiteko soilik erabiltzen dute kantonera, ikerketa honetan parte hartu zuten ikasle guztien ama-hizkuntza, hain zuzen.

Aurreko lanak irakaslearen hizkuntza erabilera ikaslearen mailaren araberakoa izan litekela dio. Ez dugu ahaztu behar, ordea, CLIL testuinguruetako kasu askotan/gehienetan, irakasleek ez dutela xede-hizkuntza beren ama-hizkuntza, beraz hauek ere hizkuntzaren ikasle direla. Irakaslearen papera ezinbestekoa da CLILen, eman beharreko materian aditu izateaz aparte, atzerriko hizkuntzan maila altua/egokia erakutsi behar baitu; gainera, ikasleek ikasgaiari lotutako hizkuntza akademikoa ikas dezaten estrategia ezberdinak erabili behar ditu (Llinares et al., 2012). Hortaz, ezinbestekoa da CLILeko irakasleek prestatuak egotea CLIL aurrera eraman ahal izateko. Gainera, irakasle horien hitzak entzutea ezinbestekoa dugu eskola-praktikak hobeto ulertzeko.

Irakasleen ahotsak hizkuntza praktikei buruz

Ikaslearena ez den hizkuntza bat eskola-hizkuntza gisa erabiltzean, ikusi dugu hizkuntza praktika eta aukerak, bai ikasle bai irakasleenak, ikerketan atentzioa erakartzen dutela. Hizkuntza praktika hauek aztertzean, ordea, irakasleen iritzi eta pertzeptzioak dira beste ikerketa foku interesgarri bat. Izan ere, irakasleen iritziei buruz jakitean, irakasleen erabaki-hartze-prozesua ulertzen ere ari gara (Haukås, 2016). Horregatik, atal honetan eskolako hizkuntza praktikei buruzko iritziak biltzen dituzten ikerketei begirada bat botako diegu, batez ere ildo kualitatibo batetik lan egin dutenak, testuinguru ezberdinetan kokatzen direnak.

Méndez eta Pavón-ek (2012) lehen eta bigarren hezkuntzako 15 irakasle elkarrizketatu zituzten, Andaluziako bi eskoletan. Lan honetan frantsesa-gaztelera CLIL programan parte hartzen zuten eduki-irakasle, hizkuntza-irakasle eta "language assistant"-en iritzi eta hausnarketak bildu zituzten, eta besteak beste, ikusi zuten irakasleek onartzen zutela arazorik gabe erabiltzen zutela ikasleen ama-hizkuntza, adibidez, ideia zailak ulertzen laguntzeko. Ikerketa honetan aztertutako irakasleak, gainera, kontziente ziren hizkuntzen arteko konparaketak egitearen potentzialari buruz, eta aipatzen zuten CLIL ikasgela testuinguru ideala zela hizkuntza kontzientzia lantzeko. Hala ere, badirudi lan honetako irakasleek intuizioz eta aurreko esperientziatan oinarrituz erabiltzen zutela H1 beren ikasleekin, baina ez zutela H1aren erabilera pedagogikoari buruzko formakuntzarik eduki ezta jarraibiderik ere.

Austriako testuinguruan, aurreko atalean aipaturiko Gierlingerren lanean (2015), ordea, klaseko behaketa eta irakasleen ahotsak bildu ondoren, ikusi zuen irakasleek helburu zehatzekin erabiltzen zutela H1a, eta erabilera hori aurrez pentsatutakoa zela. Horregatik, honako hau ondorioztatu zuen: "code switching by teachers has a clear pedagogical orientation, is not carried out haphazardly nor unprincipled and neither does it primarily operate as an emergency tool" (363.orr). Bestetik, eta eskola praktiketan nabaritu ez zuen arren, elkarrizketetatik argi ikusi zuen, era batean edo bestean irakasle guztien ahotan zeudela jatorrizko-hiztuna ez izatearen kontuak sortzen zizkien intseguritateak. Gai horri helduz, irakasleen artean zeuden iritzi ezberdinak ere bildu zituen; adibidez, irakasle batek bere hizkuntza defizitei aurre egiteko erabiltzen zuen estrategia zela onartu eta ondo sentitzen zela azaltzen du testu-pasarteetako batean; beste irakasleetako batek, aldiz, H1aren erabilera printzipio zuzentzaile izatea ukatzen zuen.

Irakasleen arteko iritzien ezberdintasun horiek ere topatu zituen Lasagabasterrek (2013). Colombiako 35 irakaslen hausnarketak biltzen zituen bere lanean ikusi zuen orokorrean ama-hizkuntzaren erabilera funtzio ezberdinei lotzen zutela eta iritzi positiboa zutela ama-hizkuntzak erabiltzeari buruz, baina aldi berean bazirela irakasle batzuk H1aren erabileraren aurkakoak, argudiatuz hobe zela beste estrategia batzuk erabiltzea edota atzerriko hizkuntzan esposizio handiagoa edukitzea. Hala ere, irakasle guztiek onartzen zuten momenturen batean H1a erabiltzen zutela. Egoera ohikoenak, irakasle hauen hitzetan, (1) hiztegiari buruzko azalpenak, (2) instrukzioak ematea, (3) diziplina mantetzeko momentuak, (4) kontzientzia metalinguistikoa lantzea, (5) ikasleen maila baxua zenean izan ziren. Azken egoera hau irakasle ugarik

aipaturikoa izan zen, azpimarratzen baitzuten CLIL testuinguruan H1a erabiltzeak maila baxuko ikasleak hobeto eta gusturago sentiarazteko balio zuela.

Egoera berdin horiek Lasagabaster (2017) eta Doiz eta Lasagabasterren (2017) datuetan azaleratu ziren euskal testuinguruan eginiko lanetan. Eskola barruko erabakiak eta praktikei buruz jakitearren, Doiz eta Lasagabasterrek (2017) beren ikerketa fokua irakasleez gain, eskolako beste agenteetan ere jarri zuten. Bertan D ereduko hiru eskoletako irakasle eta zuzendaritza taldeekin 24 *discussion group* egin zituzten, CLIL ikasgelan ikasleen ama-hizkuntzaren erabilerari buruz zuten iritzi eta praktikei buruz jakiteko. Bilbo eta Vitoria-Gasteiz inguruko bigarren hezkuntzako eskoletan, non ikasle gehiengoen ama-hizkuntza gaztelera zen eta euskara H2a. Irakasle eta zuzendaritza taldeetako partaideen artean idea nagusia CLILen atzean dagoen ingelesa-bakarrik idearekin bat egiten zuten arren, H1/H2aren erabilerari dagokionean, malgutasuna aipatu zuten ezaugarri nagusi gisa, ez baitzuten H1/H2aren noizeanbehingo erabileran ezer txarrik ikusten. Hala ere, askok onartu zuten malgutasun hori esperientziak eman diela, CLILen lehen urteetan 'puristagoak' zirela eta ama-hizkuntzaren erabilera saihesten zutela aitortzen baitzuten. Azterketa edota lan idatziak eskatzerako garaian, ordea, hizkuntza malgutasun horri buruzko iritzi ezberdinak bildu zituzten lan honetan. Izan ere, eskola bateko partaideek ingelesa ez den hizkuntzen erabileraren kontra zeuden, CLILen helburuak hautsiko lituzkela argudiatzen baitzuten. Beste bi eskoletako irakasle eta zuzendaritza taldeek, ingelesaren erabilera ebaluazioan babestu arren, malgutasun gehiagorekin jokatzen zutela zioten, batez ere zailtasunak zituzten ikasleekin.

Ikusi dugun moduan, irakasleen kode-aldaketa praktikak aztertu dituzten lanen gehiengoak gaia ikertu dute elkarrizketa kualitatibo edo galdetegi kuantitatiboen bitartez nagusiki, klaseko hizkuntza praktikei erreparatu gabe. Lan mota hauek, irakasleen hitzak eta klasean ikus daitezken praktikak kontrastatzen ez dituztenez, ez dute ikasgelako hizkuntza praktika konplexuen errealitatea ongi islatzen (Gierlinger, 2015, 351.orr). Gure lan honetan, behaketen bidez lortutako eta irakasleekin edukitako elkarrizketetik ateratako datuekin, CLIL ikasgelako hizkuntza praktiken errealitatea ulertu nahi izan dugu.

Jarraian datorren atalean, ikasleengan jarriko dugu atentzioa. Era honetan, ikasgelako praktika eleanitzen beste protagonistei buruzko lanak izango ditugu ikergai.

3.3.3. Ikasleen translanguaginga: hizkuntza aukerak eta eskolako interakzioa

CLILen, kasu askotan, irakasle eta ikasleek ama-hizkuntza berdina dute/dituzte, beraz atzerriko hizkuntza atzerriko hizkuntza da bai ikasle bai irakasleentzat. Kasu horixe da Nikulak (2007) eginiko lana. Honek Finlandiako bigarren hezkuntzako CLIL ikasgeletan ingelesaren erabilera eta code-switching praktikak aztertu zituen bere lanean, non ikusi zuen irakasleen partetik gutxitan jotzen zutela finlandierara (klaseko ikasle gehiengoen ama-hizkuntza). Ikasleei dagokienez, atzerriko hizkuntza erabilera oso serio hartzen zutela dio Nikulak, ingelesa erabiltzen baitzuten egoera gehienetan, naturalki eta erraztasunez. Gainera, ingelesa erabiltzen zuten ez bakarrik edukiari lotutako gaiei buruz aritzerakoan baizik eta elkarren arteko klase-bukaerako elkarrizketetan ere, 13-15 urte soilik zituzten arren. Lau zientzia klasetako datuak aztertu ondoren, autoreak azpimarratzen du ikerketa honetako partaideek finlandiera (H1) erabiltzen dutenean (ez askotan) arrazoia ez dela ingelesez komunikatzeko abilezia falta edo hizkuntza arazoak. Izan ere, hauen hizkuntza erabilerak ikasgela eremu elebidun gisa ulertzen dutelaren seinale dela dio, eta ikasgelako egoera horrek elebidun bihurtzeko prozesuan dagoen pertsona gisa beren identitatea azpimarratzeko balio diela. Norvegiako testuinguruan egindako ikerketa berriago batean (Mahan et al., 2016) ere ikusi zen eskola-hizkuntzaren erabilera oso altua zela. Izan ere, zientzia eta matematika ingelesez ematen ziren klaseetan, bigarren hezkuntzako 3. eta 4. Mailan, ikusi zuten ingelesa erabiltzen zela denboraren %83-97 artean.

Beste testuingu batzuk, ordea, bestelako emaitzak erakutsi dituzte ikasleen xede-hizkuntza erabilerari dagokionean. Balear irletako eskola batean eginiko ikerketa batean, Gené-Gil et al.-ek (2012) erakutsi zuten ikasleek ez zutela atzerriko hizkuntza erabiltzen beraien artean hitz egiteko ezta irakasleari mintzatzeko ere. Ikasle hauek bigarren hezkuntzako hirugarren mailan zeuden, eta autoreek aipatzen dutenez, hitz teknikoak aipatzeko erabiltzen zuten ingelesa soilik, nahiz eta irakasleak puntuak eman atzerriko hizkuntzan mintzatzeagatik. Antzeko kasua erakusten du Temirova eta Westall-en (2015) lanak. Hauek ez zuten beren behaketetan ikasleen arteko ingelesezko elkarrizketarik topatu, haien artean ama-hizkuntzan egiten baitzuten, Valentzian kokatutako bigarren hezkuntzako ikastetxetik ateratako datuetan. Emaitzak labur azaldu arren eta testuinguruari buruz gutxi espezifikatzen den arren, autoreek aipatzen dute irakasle-ikasle arteko elkarrizketak egon bazeudela xede-hizkuntzan; bestalde, irakasleak

ingelesez hitz egin eta ikasleak ama-hizkuntzan erantzuten zuen adibideak ere topatu zituzten.

Izan ere, bat-bateko translanguaging-az ari garenean, nahiko ohikoak dirudite hizkuntza ezberdinak elkarrizketa batean erabiltzeko momentu horiek, non hiztunek beraiek aukeratutako hizkuntza hitz egiten duten. Fenomeno honi *receptive multilingualism* deitu izan zaio, eta beste adiera batzuekin, *intercomprehension*. Honela definitu izan da *receptive multilingualism*: "receptive multilingualism is a mode of interaction in which speakers with different linguistic backgrounds use their respective preferred languages while understanding the language of their interlocutor" (Blees eta ten Thije, 2015, 333.orr). Gizarte mailan, Europako Batzordeak *receptive multilingualism* bultzatzen du, Europan zehar komunikazioa eta mugikortasuna sustatzeko. Blees eta ten Thije-k (2015) dioten moduan, *receptive multilingualism*ek hizkuntza kontzientzia handia eskatzen du, besteak beste:

> On the level of the individual language user, receptive multilingualism requires language awareness: knowledge of the option to use this mode, basic receptive knowledge of the interlocutor's language, conscious activation of receptive competencies, and sensitivity to the interlocutor's level of comprehension and problems of reception during interaction. Conversely, gaining experience with LaRa will contribute to language awareness, as speakers are forced to apply the required linguistic and interactive skills in practice (335.orr)

Hezkuntzan, ordea, ez da fenomenoa sakonki aztertu, bere presentzia deskribatu den arren, lehen aipaturiko Temirova eta Westallen (2015) lanean bezala. Creese eta Blackledgen (2010) lanean ere ikusi zituzten *receptive multilingualism* adibideak, non irakasleak ikasle eta irakasleen translanguaging estrategiak aztertu zituzten eta kasu batzuetan, irakasleak Cantonese edo Bengali erabiltzen duen (eskola-hizkuntza), eta elkarrizketa berean, ikasleek ingelesez erantzuten duten. Blees eta ten Thije-k (2015), hala ere, translanguaging mota hau gehiago aztertu beharreko gaia dela diote, ikasleen gaitasun produktiboan zer nolako eragina duen ikusteko (342.orr).

Klaseko interakziora itzuliz, Andaluziako CLIL testuinguruan, Pavón Vázquez eta Ramos Ordoñezek (2018) lehen hezkuntzako 5.mailako ikasleek gizarte zientziak eta plastika ingelesez egitean ama-hizkuntza erabiltzen zuten momentuak aztertu zituzten. Hauen helburu nagusia zen ikustea ikasleek zer estrategia eta zer helbururekin erabiltzen zituzten estrategia horiek. Bideoz

grabaturiko zortzi klaseetako ikasle-ikasle eta irakasle-ikasle elkarrizketak aztertu ondoren, ikasleen estrategiak sailkatu zituzten honela:

> The examination of the different uses of the L1 by students reveals that the strategies present in the interaction during the lesson could be classified as: (1) asking for confirmation, (2) direct appeal for help (to teacher), (3) direct appeal for help (to classmates), (4) sentence-internal code-switching, (5) confirmation, (6) repetition, (7) message abandonment, (8) translation, (9) calling attention, (10) giving instructions to other classmates, (11) expressing emotions, (12) personal petitions, (13) asking for instructions, and (14) teachers' encouragement to use the L1 (Pavón Vázquez eta Ramos Ordóñez, 2018, 39.orr).

Ikerlari hauek ondorioztatzen dute ama-hizkuntzaren erabilera, aztertutako testuinguruan behintzat, lagungarria dela ikasleak ikasi beharreko edukiarekin konektatzen dituelako. Bestalde, erakusten du klaseko "interakzioa estrukturatzeko" ere beharrezkoa dutela ikasle hauek ama-hizkuntza. Kontutan hartu behar da, lehen hezkuntzako testuinguru honetan, ikasleak 10/11 urte dituztela, eta A1/A2 dela beren gutxi gora beherako ingeles maila.

Antzeko ondorioak ateratzen dituzte Moore eta Nikulak (2016) beren lanean, non edukiari lotutako hizkuntza momentuak, batetik, eta interakzioa errazteko erabiltzen diren hizkuntza momentuak bestetik, aztertzen diren. Hauek proiektu handiago baten emaitzak laburtzen dituzte beren lanetan (Moore eta Nikula, 2016; Nikula eta Moore, 2016). Herrialde ezberdinetako CLIL programak aztertu zituzten lanean (Austria, Finlandia eta Espainia) CLIL klase ezberdinetako interakzioa aztertu zuen modu kualitatibo batean, bai irakasle eta bai ikasleetan arreta jarriz, xede-hizkuntza (ingelesa) ez zelako irakasleen ama-hizkuntza inongo kasuetan, irakasleen hizkuntza erabilera ikasleena bezain interesgarria dela aipatzen dutelarik (6. or). Lan honetan ikuspegi holistiko bat erabiltzen da; horrela, integrazioaren ideia aztertu nahi izan zuten hizkuntza erabileratik ikusiz: "(…) we argue for the usefulness of translanguaging as a construct that helps make the coexistence and value of both L1 and L2 in CLIL more visible and highlight that in practice, we are dealing with integrating content and *languages*." (212.orr). Aztertutako CLIL ikasgeletako hizkuntza nagusia xede-hizkuntza den arren, praktika eleanitzen presentzia argia erakusten dute, eta adibideek islatzen dutenarekin translanguaging 'is meaningful and functional' (231.orr) ondorioztatzen dute.

CLIL klaseko testuinguru gehienetan behintzat ikusi dugu ikasleek ama-hizkuntza ere funtzio ezberdinetarako erabiltzen dutela, eta orokorrean (Nikularen (2007) kasuan ezik) ikasleek ama-hizkuntza erabiltzen dutela beren artean aritzeko. Gainera, Dalton-Pufferrek (2011) aipatzen duen moduan, ikasleen hizkuntza aukerak irakasleak ezarritako klaseko arauekin lotura estua dute. Kasu gehienetan, irakasleek translanguaging praktikak onartzen dituzte klaseko ahozko interakzioan, bai beraien artean bai irakasleei mintzatzeko, baina ez da ohikoa translanguaging idatzizko praktiketan erabiltzea (Canagarajah, 2011, 7.orr). Dena den, eta ikasleetan arreta ezarriz, bat egiten dugu autore honekin honako hau esaten duenean: "But apart from such local rules of use, one should also take into account the amount of CLIL in students 'weekly timetables as well as the wider sociolinguistic context in terms of affecting the status of the target language" (Dalton-Puffer, 2011, 191.orr). Izan ere, ikasleen ahozko hizkuntza erabilera ulertzeko ezinbestekoa da testuingurua ezagutzea, atzerriko hizkuntzan duen maila, esposizioa, edota pertsonalitatea bezalako faktoreak jakitea.

3.3.4. *Pedagogical translanguaging*: ikerketak eta interbentzioak

Aurreko atalean ikusi dugun moduan, translanguaging espontaneoa edo bat-batekoa ikasgela barruan naturalki gertatzen den fenomenoa dirudi, bai irakasle bai ikasleek beraien errepertorio linguistikoa erabiltzen baitute ikaste eta irakaste prozesuan. Aipatutako lan horietan, kasu batzuetan, ama-hizkuntzak aldamio gisa egiten duen arren eta funtzio pedagogiko bat duen arren, ez dugu ikusi irakasleek aurretik planeatutako eta errepertorio linguistiko osoa kontuan hartzen dituen estrategia pedagogikorik erabiltzen dutenik. Atal honetan, hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen dituzten estrategia pedagogikoei begirada botako diegu, Cenoz eta Gorterrek (2017a) translanguaging pedagogiko gisa izendatzen dutena. Bere barne har ditzake itzulpena, input-output estrategia, co-languaging, edota hitz sustraikideetan oinarritutako ariketak, besteak beste.

Translanguaging pedagogikoaz hitz egitean (termino originala) praktika hauen garrantzia eta potentziala azpimarratu da (Baker eta Wright, 2017; Cummins, 2007). Baker eta Wrightek (2017), esaterako, honen erabilera pedagogikoaren alde egiten du, eduki ditzaken onurak azpimarratuz. Honako onura hauek aipatzen ditu: lehenik, edukia hobeto eta sakonago ulertzeko aukera eman dezakela translanguagingek; bigarrenik, hizkuntza ahularen garapenean lagun dezakeela; bestetik, testuinguruaren arabera, etxea eta eskola arteko harremanak sor

ditzakela eta familiekin elkar-laguntza; azkenik, maila ezberdinetako ikasleen arteko integrazioa aipatzen du. Horrela, ikasleen hizkuntzak klasera eramaten dira (ikus baita ere Lewis et al. 2012). Izan ere, CLIL bezalako testuinguruetan edukia bi hizkuntzetan prozesatzeak ikaste-prozesua sendotu eta areagotzen du; esaterako, ikasleek inputa ondo ulertu eta prozesatu behar dute gaiari buruz hizkuntza batean hitz egiteko eta gai berdinari buruz beste hizkuntza batean idatzi ahal izateko, adibidez (Gallagher eta Colohan, 2014).

Lehen aipatu bezala, Galesko eskola batzuetan ingelesa eta galesaren erabilera sistematikoa azaltzeko erabilitako terminoa izan zen translanguaging (Williams, 1994), non ingelesa eta galesa erabiltzen ziren klaseko ariketen parte ezberdinak lantzeko. Esaterako, ikasleek zerbait irakurtzen zuten galesez eta ondoren ingelesez egin behar zituzten input horri lotutako ariketak, komentarioak edo idatziak. Era berean ulertu genezake, adibidez, ikasleek informazioa lortzeko erabiltzen dutela hizkuntza bat, eta informazio hori prozesatu ostean egin beharreko ariketak edo lanak beste hizkuntzean egitea. Galesko hezkuntzan praktika ezaguna den arren, egia esan ez da asko ikertu translanguaging bere jatorrizko adieran, hau da, hizkuntzen arteko alternantzia hori estrategia bezala erabiltzean (Lin, 2015).

Lewis, Jones eta Bakerren (2013) lanak Galesko lehen eta bigarren hezkuntzako eskoletan zentratuz translanguaging aztertu zuen. Datu bilketa eskola – behaketaz eta elkarrizketaz osatu zen, eta osotara 100 bat klasetan egon ziren. Autoreek dioten moduan, translanguaging ikuspegia ikusi zuten aztertutako klaseetako heren batean nagusi zela, batez ere lehen hezkuntza maila bukaeran. Identifikatutako translanguaging estrategien artean zeuden input/output, hau da, terminoa bere zentzu originalean, 18 klaseetan topatu zutena; eta itzulpena, 42 klasetan identifikatu zutena. Gainera, adibide ugari topatu zituzten non ikasleek bi hizkuntzak erabiltzen zituzten ulermena hobetu ahal izateko (651.orr), esaterako, interneten informazioa bilatzen zutenean ingelesez eta gero informazio hori galesez eztabaidatu.

Translanguaging pedagogikoaren barruan sar genezake Garciak (2009a; García eta Flores, 2012) *co-languaging* deitzen duena ere. Co-languaging estrategiarekin, irakasleak hizkuntza ezberdinak erabiltzen ditu bere materialetan, Powerpoint batean esaterako, kolore edo letra estilo ezberdinak erabiliz. Horrela, edukia hizkuntza bat baino gehiagotan dute ikasleek eskuragarri. Honela azaltzen dute García eta Floresek (2012) :

> The students are free to choose the language through which they make sense of the lesson, and to compare and contrast the ways in which the languages are written and concepts are expressed. Many bilingual books offer examples of co-languaging, as students decide which language to read the text in or to read in both or to go from one to the other, making their own comparisons (240-241.orr)

Co-languaging erabiliz, ikasleek erraz uler dezakete hizkuntza bat, bestea edo bien biak. Co-languaging gertatzen da ikasle gorrek hitzaldi bat zeinu hizkuntzaz ulertzen dutenean eta hitzaldi bera beste ikasleek entzunez ulertzen dutenean edota bideo bat ikustean ikasle batzuk entzun eta beste batzuk hizkuntza ezberdin bateak azpitituloak irakurtzen dituztenean (García, 2009a, 303.orr). Estrategia hau testuinguru ezberdinetako hezkuntza eleaniztunean eman daiteken arren, Garcíak dio estrategia hau, batez ere, hizkuntza profil ezberdinetako ikasleei bideratuta dagoela.

Antzeko ildotik, *preview-view-review* teknika ere translanguaging pedagogikoaren barruan sar genezake (García, 2009a; García eta Flores, 2012). García eta Floresen (2012, 241.orr) hitzetan, estrategia honekin hizkuntza ezberdinei funtzio ezberdina ematen dio irakasleak. Horrela, irakasleak erabaki dezake klaseko eduki nagusia aurkeztu aurretiko momentuetan (*preview*) hizkuntza bat erabiltzea, edukia bera (*view*) beste hizkuntzan aurkeztea eta azken errepasoa (*review*) berriro lehenengo hizkuntzan egitea. Prozesua alderantziz ere gerta daiteke, testuingurua eta irakasle/ikaslen hizkuntza beharren arabera alda baitaiteke.

Translanguaging pedagokioa ikertu duten lanen artean, Gallagher eta Colohan-en (2014) lana dugu aipagai. Nahiz eta interbentzio txiki bat izan (eskola batean, 2 klaseordutan). Italia iparraldeko eskola txiki batean bi talde hartu zituzten, Geografia ingelesez egiten zuten 14-15 urteko ikasleekin: kontrol taldea (29 ikasle) eta experimentu taldea (30 ikasle). Bertan, 'twisted-dictation' deitzen dioten ariketa bat aplikatu zuten, eta gero ikasleen iritziak bildu. Ariketaren oinarria zen irakasleak ingelesez diktatzen zituen esaldiak idaztea (ingelesez), esaldien itzulpena egitea italierara (ikasleen ama-hizkuntza) eta ondoren ariketa berak eskatzen zuena egitea, hau da, esaldi bakoitza zutabe konkretu batean kokatzea (klimari edukiari lotuta/geografia). Horrela, ariketak bi helburu zituen: edukiari lotutakoa, klimari buruzko sailkapen bat egin behar zutelako, eta hizkuntzari lotutakoa. Irakasleak diktatutako esaldi horietan, gainera, aditzondo ugari zeuden, estrategikoki jarrita, italieraz aditzondoen posizioa oso ezberdina

izan daitekelako. Kontrol taldeak, bestalde, ez zuen itzulpenik egin behar, beraz, entzundakoa idatzi eta zutabe egokian jartzea zen beraien egin beharrekoa. Emaitzek erakutsi zuten itzulpen ariketa egin zuten ikasleek bi hizkuntzen arteko sintaxia eta hitzen ordenaz jabetu zirela itzulpen ariketa egiterakoan; kontrol taldeko ikasleak, bestalde, esaldien esanahi eta edukian zentratu zirela soilik. Gainera, ikasle gehienek onartu zuten *twisted-translation* ariketa erronka bat izan arren, ariketa motibagarria iruditu zitzaiela. Ondorioztatzen dute traslanguaging oso tresna eraginkorra izan daitekeela hizkuntzak irakatsi eta ikasteko, "particularly as a technique to develop a way of 'noticing' and raising awareness of certain features of the language of instruction" (Gallagher eta Colohan, 2014, 494.orr).

Horixe bera defendatzen du Cumminsek (2007) ere. Itzulpenean oinarritutako ariketa batzuk egin ondoren, ikasleen iritzi batzuk biltzen ditu bere lanean, non ikasleen ahotsek erakusten duten ama-hizkuntzaren presentzia ariketa horretan lagungarri izan zitzaiela hizkuntzen arteko ezberdintasunez jabetzeko (urdu eta ingelera). Horregatik, ondorioztatzen du ama-hizkuntzatik beste hizkuntzara edota alderantzizko itzulpenak egitea hizkuntza gaitasuna eta kontzientzia metalinguistikoa lantzeko tresna ona dela. Gainera, irakasleek ere jabetze momentu horietan beste modu batean parte har dezaketela dio, honako adibide hau emanez:

> For example, if the teacher is explaining the meaning of the term *predict* in science (taught in English) within a French immersion program, it makes sense to explain the meaning of the root (from the Latin *dicere* meaning 'to say') and the prefix (meaning 'before') as well as drawing students' attention to the fact that the root and prefix operate in exactly the same way in the French word *prédire* (Cummins, 2007, 233.orr).

Hizkuntzen konparaketa hori oinarri duten ikerketa lanetako batzuk hitzen morfologia aztertzean jarri dute arreta. Horietako batzuk erakutsi dute esplizituki hitz sustraikideak irakastean, emaitza positiboak lortzen direla. Horietako bat da Arteagoitia eta Howard-en (2015) lana, ama-hizkuntza gaztelera zuten eta Estatu Batuen bizi ziren 230 ikasle parte-hartzaile dituena. Interbentzio honetan gaztelerazko eta ingelesezko sustraikideak landu ziren ariketa ezberdinetan, eta ondoren irakurmenean eta hiztegia barneratzerakoan eragin positiboa ote zuen neurtu nahi izan zuten. Kasu honetan, emaitza positiboak izan ziren, bai ikasleek emaitza hobeak atera baitzituzten ingelesezko hiztegi eta irakurmen gaitasunak neurtzean. Kanadako murgiltze testuinguruan,

Lyster eta bere kideek (2013) ere interbentzio bat inplementatu zuten, kasu honetan, ingeles eta frantseko aurrezki eta atzizkietan oinarritzen zena. Ikasleen iritzi positiboez gain, 'morphological awareness test'-ean emaitza hobeak lortu zituzten esperimentu taldeak kontrol taldeak baino. Horrelako estrategiekin, ikasleek beren aurre-ezagutza erabil dezakete beste hizkuntzako hitz tekniko edo akademikoak identifikatu eta asmatzeko (Arteagoitia eta Howard, 2015).

Gure testuinguruan, aipagarri ditugun lanak dira Leonet et al.-enak (2017, 2019). *Focus on Multilingualism* ereduan oinarritutako eta euskal eskola batean egindako proiektu baten emaitzak aurkezten dituzte bertan. Proeiktu eleaniztun bat zen hau, non interbentzio bat egin zen hizkuntzen arteko mugak arindu eta horien arteko erlazioak sendotzen zituena. Lehen lanean (Leonet et al., 2017) euskara, gaztelera eta ingelesa biltzen zituzten ariketez osaturiko interbentzio bat egin ostean, irakasleen iritziak jaso zituzten. Lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleekin egindako interbentzioa izan zen, zeinak ikasleen kontzientzia metalinguistikoa eta linguistikoa garatzea zuen helburu. Orokorrean, irakasleek hiru hizkuntzak biltzen zituen interbentzio hau positiboki baloratu zuten. Hala ere, euskararen egoera beste bi hizkuntzen egoera soziolinguistikoarekin konparaezina dela diote, beraz, hizkuntza gutxituarekiko kezka erakutsi zuten. Bigarren lan batean (Leonet et al., 2019) interbentzio ondoren jasotako datu kuantitatiboak azaltzen dira, ikasleei morfologian oinarritutako testak egin ondorengoak. Emaitzetan ikusi zen interbentzio pedagogiko honek eragin positiboa izan zuela kontzientzia morfologikoaren garapenean.

Izan ere, halako interbentzio eta praktiketan ezinbestekoa da testuinguruari egokitutako praktikak ezartzea (Ballinger et al., 2017), are gehiago hizkuntza gutxitu bat tartean dagoenean, Euskal Autonomia Erkidegoan bezala. Blackledge eta Creesek (2010) translanguaging praktikak kontuz erabiltzearen alde egiten dute, testuinguruaren garrantzia azpimarratuz:

> Although we can acknowledge that across all linguistically diverse contexts moving between languages is natural, how to harness and build on this will depend on the socio-political and historical environment in which such practice is embedded and the local ecologies of schools and classrooms (107.orr)

Dena den, ikerketa gehiago behar da ama-hizkuntza eta ikasleen errepertorio linguistiko osoan oinarritzen diren praktika eta interbentzio hauen eraginkortasunaz ondorioak ateratzeko (Cenoz eta Gorter, 2017b).

3.4.   Kapituluaren laburpena

Kapitulu honetan eleaniztasuna eta hiztunen praktika eleanitzetara hurbildu gara. Lehenik eta behin, sarrera bat egin dugu eleaniztasuna ulertzeko modua nola aldatu den ikusteko. Izan ere, duela urte batzuk, bi hizkuntza erabiltzeko gai zen pertsona bi elebakarren batura gisa ikusten zen. Gaur, ordea, eleaniztasuna ulertzen dugu modu holistikoago batetik.

Modu holistigo horretan, non hizkuntzen arteko muga zorrotzak arintzen diren, eredu teoriko batzuk ikusi ditugu. Horietako bat, *Focus on Multilingualism* (Cenoz eta Gorter, 2011, 2014, 2017b). Labur esanda, *Focus on Multilingualism*ek ulertzen du eleaniztunak hizkuntzen arten nabigatzen dutela, eta bere hizkuntza-errepertorio oso bat dutela (eta ez errepertorio bat hizkuntza bakoitzeko) testuinguruaren arabera erabil dezaketena. Proposatutako teoria hauek kontutan hartuta, hezkuntzarekin lotura egitea ezinbestekoa da. Izan ere, ohikoa da eskoletan hizkuntzak elkarrengandik bananduta ikastea, curriculumeko ordu konkretuak hartzen dituztela hizkuntza bakoitzak. Eredu honek eta bestelako eredu holistikoek, hizkuntzen arteko muga horiek arintzearen alde egiten dutela ikusi dugu, baita eskola testuinguan ere.

Hiztun eleaniztunen praktikak aztertzera jo dugu ondoren. *Code-switching* eta *translanguaging* terminoekin aritu gara, eta ikusi dugu, batzuetan sinonimo gisa erabiltzen diren arren, konnotazio ezberdinak eduki ditzaketela. Dena den, biek erreferentzia egiten diete hiztunaren errepertorioko baliabide ezberdinak erabiltzen diren momentuari, hizkuntza ezberdinak tartekatzen direnean. *Translanguaging* terminoa erabili dugu gurean, eleaniztasuna ulertzeko modu holistikogo bati lotuta dagoelako, eta ikusi dugu, bi aldaera bereiz daitezkela (Cenoz eta Gorter, 2017a): *spontaneous translanguaging* eta *pedagogical translanguaging*. Lehenak, modu espontaneoan gertatzen diren translanguaging momentuei egiten die erreferentzia; bigarrenak, ordea, aurretik planeatutako eta ikasleen errepertorioko baliabideak erabiltzen dituzten estrategia pedagogikoei.

Azken atalean, hizkuntza praktika eleanitzei eta translanguagingen inguruan egindako ikerketan murgildu gara, eta besteak beste, irakasle zein ikasleen hizkuntza aukeraketak aztertu dituzten lanak ikusi ditugu.

Tesi honen atal teorikoari amaiera emateko, jarraian datorren kapituluak testuingurura gehiago hurbilduko gaitu. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren nondik norakoak ikusiko ditugu, bai eta ingelesa irakas-hizkuntza duten esperientziak aztertu gure testuinguruan.

ELEANIZTASUNA ETA HEZKUNTZA-SISTEMA ELEANITZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

4.1. EAEko gizarte elebiduna: egoera soziolinguistikoa EAEn

Euskal Herria (Basque Country) dugu Euskararen lurraldeari erreferentzia egiten dion terminoa. Bere barne hartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE aurrerantzean) hiru probintziak (Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba), Nafarroa, eta 'Pyrénées Atlantiques' departamentuko hiru probintziak (Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa). Bertako egoera soziolinguistiko ezberdinak eta ikerketa egin den testuingurua EAEn barruan kokatzen dela kontutan hartuta, atal honetan EAEko egoera soziolinguistikoa aztertuko dugu, bai eta bertako hezkuntza-sistema ere.

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) da Euskal Herriko populazio handiena biltzen duena. Izan ere, hiru probintzia hauek 2.207.776 (Instituto Nacional de Estadística, 2019) biztanle inguru biltzen dituzte. Espainiar legepean egon arren, EAEk autonomia du bertako hezkuntza-sistema eta hizkuntza-politikak gestionatzeko. Bi hizkuntza ofizial daude, gaztelera eta euskara, eta hortaz, hezkuntza-sistemak errealitate hori islatzen du. Gainera, atzerriko hizkuntzen garrantzia dela eta, EAEko hezkuntza-sistemak hezkuntza eleaniztuna proposatzen du bere eskoletan.

Euskara, gure hizkuntza

Euskara jatorri indo-europearra ez duen hizkuntza da. Gainera, jatorri ezezagunekoa. Denbora luzez ahozko hizkuntza izan zen, eta salbuespenak salbuespen, XVI. mende arte euskara ez zen idatzi (Igartua eta Zabaltza, 2012). Tipologikoki bere inguruko hizkuntzez aldentzen da, erromantzea ez delako, gaztelera, frantsesa, portugesa edota katalana bezala. Euskararen aldaera linguistikoei euskalkiak deitzen zaie, eta aldaera estandarra ere badu, Euskara Batua. Euskararen oinarri garrantzitsua, euskara batua, literaturan, hedabideetan, administrazioan edota hezkuntza-sisteman erabiltzen da nagusiki.

Gizarteari begira, EAEn bi hizkuntza ofizial egon arren, gaztelania da hizkuntza nagusia, eta euskara hizkuntza minorizatu kontsideratzen da (Cenoz, 2009). Izan ere, EAEko euskaldun guztiek dakite gazteleraz, hortaz, elebidunak dira; bestalde, asko dira euskaraz ez dakiten biztanleak. Kontutan hartu behar da historian zehar euskara bi hizkuntza indartsuen inguruan bizi izan dela, gaztelania eta frantsesaren artean, hain zuzen.

Cenozek (2009) aipatzen duen moduan, azken hiru mendeetan izan du euskarak atzerakada handiena, batez ere, 20. mendean. Hiru arrazoi nagusi laburtzen ditu ikerlari honek bere lanean:

- Frankoren diktadurapean (1939-1975) euskara esparru publikoan eta hezkuntzan erabiltzea debekatua izatea eta gaztelera soilik erabiltzeko aukera izatea. Erabilera murriztu eta gainera, milaka gaztek gazteleraz ikasi behar izan zuten.
- Industrializazioaren eraginez, 1950-1970 hamarkadetan Euskal Herrira eta EAEra konkretuki gaztelera-hiztun langileen iritsiera. Biztanle hauen gehiengoak ez zuen euskara ikasi ez bertako euskaldunekin komunikatzeko gaztelera erabil zezaketelako. Egungo biztanleriaren heren bat dira hamarkada horietan iritsitako pertsonak.
- Komunikazio eta komunikabideen garapenak mobilizazioan eragina izan, eta ondorioz, hizkuntza 'handien' presentzia handitzea.

Dena den, 1980ko hamarkada inguruan euskararen normalizazio prozesuan lehen urratsak eman ziren. Lehen esan bezala, 1979ko Euskal Autonomiako Estatutuan (Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre) euskara (gaztelaniarekin batera) EAEko hizkuntza ofizial izatera pasa zen, eta bertan aitortzen zen biztanleriak bi hizkuntza ofizialak jakiteko eskubidea zutela. Lege honek, gainera, EAEko instituzio ezberdinei eskumena eman zien normalizazio prozesuan pausoak emateko. Ondoren, 1982. urtean, *Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko legea* plazaratu zen, non, besteak beste, EAEko ikasle guztiei euskaraz nahiz gazteleraz ikasteko eskubidea aitortu zien. Gainera, lege honek euskal eskola normalizaziorako tresna garrantzitsu bihurtu zuen.

Euskara biziberritzeko emandako pauso hauek eragin positiboa izan dutela dirudi. Eusko Jaurlaritzak publikatu duen azken inkesta soziolinguistikoan ikusten da (Eusko Jaurlaritza, 2016b) euskaldun kopurua hazi egin dela. Datu hauek 2016ko apirila-maiatza tartean bildu ziren 16 urtetik gorako pertsonei bideratutako 4.200 inkesten bitartez. Bertan ikusten da, EAEko biztanleriaren

%33,9 dela euskalduna, %19,1 euskaldun hartzailea, hau da, ulertzen duena, eta %47a erdaldun elebakarra dela.

Datu honek gora egin duela ikusten da, 1991ko datuekin alderatuz gero (4.1 irudian ikus daitekeen bezala). Bertan ikusten da, egun euskaraz dakiten pertsonen kopurua 212.000 hazi dela geroztik. Ehunekoetan, 1991ko euskaldunen kopurua %24,1ekoa zen, eta 2016an, berriz, %33,9koa, ia 10 puntu gehiago.

4.1 Irudia. Euskararen bilakaera EAEn, 1991-2016 (%)

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritza, 2016b).

Euskara dakiten biztanleen artean, datu interesgarriak eskaintzen ditu inkesta soziolinguistikoak adin-tarteei buruz. Izan ere, euskaldunen adinari erreparatzen jarriz gero, ikus daiteke ehuneko handiena gazteen artean dagoela. 16-24 adin tartean, % 71,1ek daki euskaraz, eta 25-34 adin tartean, berriz, ia %50ak. Grafikoan ikus daitekeen moduan, ehuneko hori bera doa adinak gora egin ahala. Hala ere, 1991eko datuekin alderatuz, bilakaera oso esanguratsua da. Garai hartan, 25-34 urtekoen artean %22,7 soilik zekien euskaraz; 16-24 adin tartean, bestalde, %25ak bakarrik.

4.2 Irudia. Euskararen bilakaera adinaren arabera EAEn, 1991-2016 (%).

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritza, 2016b).

Grafiko honek erakusten du, hortaz, euskaldun kopuruaren hazkundea gazteen taldeetatik ari dela zabaltzen, eta EAEko gazteak gero eta euskaldunagoak direla.

Hau jakinda, interesgarria iruditzen zaigu begirada bat botatzea euskaldun hauek hizkuntza non ikasi duten erreparatzen dien datuei. Inkesta soziolinguistiko honek erakusten duen moduan, duela 29 urte, ia %80a euskaldun zaharra ziren, hau da hizkuntza etxean jaso zuten lehen hizkuntza gisa. Gaur egun, ordea, egoera guztiz aldatu da, eta elebidunek eta euskaldun berriek pisu handia hartu dute. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, 16-24 urtetako euskaldun gazteen erdiak baino gehiago dira euskaldun berriak. Honek esan nahi du euskara etxetik kanpo ikasi dutela, hala nola, eskolan.

4.3 Irudia. Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera EAE, 2016 (%)

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritza, 2016b).

Atal honetan, EAEko egoera soziolinguistikoa labur aztertu dugu. Jarraian, ezinbestekoa zaigu EAEko hezkuntza-sistema eleanitzari begirada bat botatzea, besteak beste, egoera soziolinguistiko honekin erlazioa bilatzeko.

4.2. EAEko hezkuntza-sistema eleanitza: elebitasunetik eleaniztasunera

4.2.1. EAEko hezkuntza-sistemaren ezaugarri nagusiak

Atal honek EAEko hezkuntza-sistema eta bere ezaugarri nagusiak deskribatzea du helburu. EAEko hezkuntzaren egitura, Espainiako komunitate erkidego guztietan bezala, 2006ko *Ley Orgánica de Educación* (LOE) eta 2013ko *Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad Educativa* (LOMCE)-k zehazten du. Horrela, unibertsitate-aurreko ikaskuntza honelako mailetan sailkatzen da:

Haur Hezkuntza: bi ziklotan banatzen da eta ez da derrigorrezkoa. Lehen zikloa 0-3 adin-tartean ematen da, eta bigarrena 3-6 urteetan. Legez derrigorrezkoa izan ez arren, ikasle gehiengoa joaten da eskolara haur hezkuntzan, batez ere bigarren zikloan (3-6 urte). Hala ere, EAEko haurren %90a 2 urterekin eskolatuta daude jada (Eusko Jaurlaritza, 2019b).

Eskolatzea derrigorrezkoa da 6-16 urte artean, eta doakoa Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik aurrera. Derrigorrezko hezkuntza honen helburua da oinarrizko gaitasunak lortzea.

Lehen Hezkuntza: espainiar hezkuntza-sistemaren barruan, derrigorrezkoa den lehen etapa. Sei maila hartzen ditu bere baitan, hiru ziklotan banatuta. Ikasle hauek 6-12 urte dituzte.

Bigarren Hezkuntza: bigarren hezkuntzaren barruan daude honako hauek:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH): derrigorrezkoa den bigarren eta azken fasea. Lau mailetan banatzen da (DBH1, DBH2, DBH3, DBH4) eta ikasleek 12-16 urte dituzte.

Batxilergoa: goi-mailako ikasketetarako bidea ematen du etapa honek. Bi mailatan banatzen da, eta ikasleak 16-18 urte izan ohi dituzte.

Oinarrizko Lanbide Heziketa (OLH): derrigorrezko bigarren hezkuntza ostean egin daitekeen heziketa mota, Erdi mailako lanbide heziketa eta Goi mailako lanbide heziketa hartzen ditu bere baitan. Lehenera DBHko ikasketak egin ostean sar daiteke; bigarrenera, berriz, batxilergoko ikasketak egin ostean.

Ikastetxe motak

EAEko hezkuntza-sistema bi eskola-saretan banatzen da: publikoak eta intunpekoak. Lehenak, EAEko hezkuntza sailaren menpe daude, eta publikoak diren heinean, doakoak dira. Itunpeko ikastetxeek kanpo-finantzazioa izan ohi

dute, baina Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak ere jaso ditzakete. 2019-2020 ikasturtearen matrikulazio datuen arabera, EAEko ikaslegoaren %52,22ak ikasten du ikastetxe publikoetan, eta %47,78ak ikastetxe pribatu edo itunpekoetan. Dena den, ikastetxea publikoa edo pribatua izateak ez du aurretik aipatutako hezkuntza egitura aldatzen, eta aldi berean, hizkuntza-ereduak errespetatzen dituzte, jarraian ikusiko dugun bezala.

Ereduak

Aurreko atalean aipatu dugun bezala, euskararen egoerak aldaketa handiak izan ditu gizarte mailan, eta hizkuntzaren normalizazio prozesuan hezkuntza ezinbesteko tresna izan da gizartea euskalduntzeko eta horrela, elebitasuna lortzeko bidean.

1980 hamarkada hasierako *Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko legea*n zehazten zen EAEko ikasle guztiek euskara eta gaztelania irakurtzeko eta idazteko ahalbidetu behar zituela, eta helburu hori betetzeko, EAEko gurasoei beraien seme-alaben irakas-hizkuntza aukeratzeko aukera eman zitzaien, eredu ezberdinak eskainiz. Eredu horiek, 138/1983 dekretuan zehaztu ziren eta gaur egun arte iraun dute. Honako hauek dira: **A eredua**: gaztelera da irakas-hizkuntza nagusia, eta euskara ikasgai gisa soilik eskaintzen da; **B eredua**: gaztelera eta euskara dira irakas-hizkuntzak; **D eredua**: euskara da irakas-hizkuntza, eta gaztelera ikasgai gisa soilik eskaintzen da.

Hiru ereduetan, gainera, ingelesa irakasten da 4 urtetatik aurrera, beraz gutxienez hiru hizkuntzekin lan egiten dute ikasleek EAEko sisteman. Hala ere, atzerriko hizkuntza eta eleaniztasuna bultzatzeko ekimenak aurreko atal batean aztertuko ditugu.

EAEn D eredua da nagusi unibertsitate aurreko ikaskuntza programetan bai ikastetxe publiko zein itunpekoetan. Izan ere, EAEko ikasleen %66,45ak D ereduan ikasten du, %15,19ak A ereduan, eta %17,76ak B ereduan (Eustat, 2019). Datu hauek beren baitan hartzen dituzte Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergorako programak, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta maila guztietako Lanbide Heziketa programak ere. D ereduak hizkuntza-desorekaren aurka egiten duenez (euskara da hizkuntza nagusia D ereduko eskoletan) elebitasuna lortzeko hurbilen egon daitekeen eredua dirudi. ISEI-IVEI-k (2018) argitaratutako azken txostenean, non DBHko 2.mailako eta Lehen Hezkuntzako 4. Mailako ikasleen diagnostiko frogen emaitzak aztertzen dituzten, argi ikusten da hezkuntza-sistemak, bakarrik, ezin duela elebitasuna

bermatu (77.orr). Elebitasun maila neurtzeko ISEI-IVEI-k (2018) erreferentzia gisa hartzen du ikasleek oinarrizko hezkuntza amaitzean (DBH-ko 4.maila amaitzean, hain zuzen) B2 maila lortu beharko luketela euskara eta gaztelanian. Datu hauek erakusten dute elebitasuna ez dela lortzen ez DBH-ko 2.mailan ezta Lehen Hezkuntzako 4. mailan ere, nahiz eta Lehen Hezkuntzako emaitzak pixka bat hobeak izan. Jarraian datorren grafikoan, ISEI-IVEI-k argitaratutako DBHko datuak agertzen dira laburtuta, eredu bakoitzean elebitasuna lortzen duten ikasleen portzentaia erakusten du.

4.4 Irudia. DBH-n elebitasuna lortzen duten ikasleen portzentaia (%)

Iturria: Ebaluazio Diagnostikoa 2017 Txosten exekutiboa oinarrizko hezkuntzaren egoerari buruz (ISEI-IVEI, 2018). Egokituta.

Izan ere, DBHko datuei erreparatuz gero, honako hau ikus daiteke: A ereduko ikasleen %11,8ak soilik du lortzen elebitasun maila hori; B ereduan, pixka bat igotzen da portzentaila %32,25-ra; eta azkenik, D ereduko ikasleen artean % 61,95ak lortzen du elebitasuna bi hizkuntza ofizialetan.

Lan hau DBH eta Batxilergoko ikasgelatan zentratzen denez, komenigarria zaigu begirada bat botatzea ereduen egoerari maila konkretu hauetan. Portzentai horiek gora egiten dute DBHn eta Batxilergoan. Izan ere, 2019/2020 ikasturte honetan, DBHn matrikulatutako ikasleen ia %70ak ikasten du euskaraz (ikus 4.4 irudia).

4.5 irudia. DBHko eta Batxilergoko matrikulazioak ereduaren arabera, 2019-2020 ikasturtean

Iturria: Eustat. 2019-2020 ikasturteko matrikulazioak: datuen aurrerapena.
http://www.euskadi.eus/web01-

Batxilergoko bi mailei dagokienez, antzeko datuak ikusten dira D ereduaren nagusitasunari buruz. Kasu honetan, ikasleen %66ak egiten du Batxilergoa euskaraz.

Cenozek (2009) eta Zalbidek (2007) azaltzen duten moduan, eredu hauek helburu linguistiko ezberdinak ez ezik, ikasle populazio talde oso ezberdinei bideratuta sortu ziren. A eredua gaztelera ama-hizkuntza zuten eta giro ez-euskaldunean bizi ziren ikasleentzat sortu zen; B eredua, berriz, etxean euskara ama-hizkuntza izan ez arren euskara-gaztelera elebidun izan nahi zutenentzat; eta D eredua, azkenik, ama-hizkuntza euskara zuten eta giro euskaldunean bizi ziren ikasleentzako sortu zen. Gauzak, ordea, asko aldatu dira geroztik eta gaur egun, D ereduak ama-hizkuntza euskara duten eta gaztelera (edo beste hizkuntza batzuk) ikasleak biltzen ditu. Inguru erdalduna duten ikasleak D ereduan gero eta gehiago dira, guraso erdaldun askok beren seme-alabak euskaraz ikastearen alde egin dute-eta (Cenoz, 2009). Horrek esan nahi du, H1 euskara duten ikasleentzat mantentze programa gisa jokatzen duela D ereduak (duela 40 urte bezala) eta aldi berean, ama-hizkuntza euskara ez duten ikasleentzat murgiltze modukoa dela.

4.2.2. Hezkuntza-helburuak eta erronkak: Heziberri 2020

Hezkuntza-sistemaren egitura eta hizkuntza-ereduak ikusi ondoren, hezkuntza planteamendua aztertzea du helburu atal honek, EAEk martxan duen plan pedagogikoari begirada bat emanez.

Heziberri 2020 planaren barruan argitaratutako *Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoak* (Eusko Jaurlaritza, 2014a) EAEko hezkuntza-sistemak jarraitu beharreko ildo nagusiak aurkezten ditu. Atal honetan, ildo hauek aztertuko ditugu: konpetentzien araberako hezkuntzaren ikuspuntua; adierazpenezko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak irakatsi eta ikastea; eleaniztasuna garatzea, euskara ardatz hartuta; eta irakatsi eta ikasteko prozesuetan IKTak txertatzea.

Konpetentzien araberako hezkuntzaren ikuspuntuak oinarri hartzen du hezkuntzak bizitzarako prestatu eta edukien transmisio hutsetik haratago joan behar duela. Hezkuntzaren ikuspuntu berri honek diziplina anitzetako ekarpenak hartzen ditu bere baitan, hala nola, hizkuntzalaritza, psikologia naturala, psikologia kognitiboa eta abar. Konpetentziek honako Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak betetzen lagundu behar dute (Eusko Jaurlaritza, 2014a, 8.orr):

- Kulturaren oinarrizko elementuak eskuratzeko prozeduretan alfabetatzea – dimentsio guztiak modu orekatuan integratuz, euskaldunetik unibertsalera–, eta jakintza horiek modu kontziente eta integratuan erabiltzea, bizitzaren maila guztietako egoerak eta problemak konpontzeko, eta hobekuntzak egiteko aukera berriak emateko.

- Pertsonaren garapen integrala, maila guztietan: garapen fisikoa, kognitiboa, komunikatiboa, soziala, kulturala, morala, afektiboa nahiz emozionala, estetikoa eta espirituala.

- Ikaslea helduarorako prestatzea, bizikidetza harmonikoago bat lortzeko eta gizarte justuago eta ekitatiboago bat eraikitzeko konpromisoa duen gizabanako gisa bete-betean bizitzeko gai izan dadin, gizarte anitz eta global bateko kide aktibo gisa, eta naturaren kontserbazioarekin eta garapen jasangarriarekin konprometitutako pertsona gisa.

- Ondoren ikasten jarraitzeko eta/edo lanean hasteko prestatzea, behar bezain ongi.

- Motibatzea eta prestatzea, bizi osoan zehar ikasten eta prestatzen jarraitu ahal izan dezan.

4.6 irudia. Oinarrizko konpetentziak Heziberri 2020an zehaztuak

Iturria: *Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa*, Eusko Jaurlaritza (2014a). Egokituta.

Irudian ikus daitekeen moduan, EAEko hezkuntza-sistemak, Europako herrialde gehienak bezala, bi oinarrizko konpetentzia mota bereizten ditu, bizitzeko beharrezkoak direnak: orokorrak edo zeharkakoak eta espezifikoak edo diziplinartekoak. Orokorrak dira 1) ikasten ikasteko konpetentzia; 2) Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, eta teknologia digital eta mediatikoa erabiltzeko konpetentzia; 3) Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia; 4) Norberaren autonomiarako konpetentzia; 5) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia. Diziplinarteakoak, berriz, 1) Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia; 2) Matematikarako konpetentzia; 3) Zientziarako konpetentzia; 4) Teknologiarako konpetentzia; 5) Arterako konpetentzia; 6) Motrizitaterako konpetentzia; 7) Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia. Markoan azaltzen den moduan, biak erlazionatzea komeni da, "oinarrizko zehar-konpetentzien bitartekaritza beharrezkoa baita diziplina baitako oinarrizko konpetentziak eskuratzeko" (Eusko Jaurlaritza, 2014a, 10.orr).

Konpetentzietan oinarritutako ikuspuntu hau klasetara eramateak metodologia aldaketak ekarri behar ditu derrigorrez. Gainera, honako hau dio Markoak (Eusko Jaurlaritza, 2014a):

> Konpetentzien araberako ikuspuntuak, gainera, irakasleen rol eta zereginak aldatzera ere behartzen gaitu, eta alde horretatik, ikasleak askoz aktiboago bihurtzen ditu. Horrek irakasleen lana bera ere aberastu egiten du, konpetentziak garatzea hartu behar izaten baitute oinarri, eta ez ezaguerak transmititzea eta buruz ikasaraztea (28.orr).

Hortaz, badirudi EAEko hezkuntza-sistemak planteatzen duen konpetentzietan oinarritutako ikuspuntu honetan irakasleak ikasleen ikaste prozesuan bideratzaile edo bitartekari bilakatzen direla.

Adierazpenezko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak irakatsi eta ikastea da proposatzen den beste ildoetako bat. Adierazpeneko edukiak ikasgaitan antolatzen diren jakintza teorikoak dira. Jarrerazko edukiak, berriz, ikasten diren ohitura eta jarrerak dira, jakintzak eta sinesmenak beren barne hartzen dituztenak, esaterako. Azkenik, prozedurazko edukiak aurreko biak (adierazpenezko eta jarrerazko edukiak) eskuratzeko estrategiak dira (15.orr). Eduki mota hauek, banandu ezinak dira ikaste prozesuan, eta horrela, konpetentzien ikuspuntuan oinarrituta, ikasgaietatik abiatu beharrean, konpetentziak lortzeko behar diren edukiak aukeratu behar dira orain. Izan ere, hezkuntzaren funtzioak konplexuagoak dira gaur egun, eta ikasleak alfabetatu

eta edukiak transmititzeaz aparte, eskolak pertsona osoki garatzen laguntzeko eta herritar arduratsuak izateko tresna izan behar du.

Irakatsi eta ikasteko prozesuetan IKTak txertatzea ere azpimarratu beharreko ildoa da. Horrela, konpetentzia digitalaren beharrezko lekua onartzen du curriculumean. Konpetentzia hau jakintza-arlo gisa landuko da (IKTez ikastea), baina multimedia edukiekin lanean aritzeko (IKTetatik ikastea) eta ikaste prozesuan erabiltzeko tresna bezala ere izango du papera (IKTekin ikastea) (34.orr).

Azkenik, EAEko testuingurua kontutan hartuz, marko honek eleaniztasuna garatzea, euskara ardatz hartuta du azken puntua. Gure garaiari zuzen lotuta dagoenez, atal berri batean azalduko dugu.

4.2.3. Eleaniztasuna garatzea, euskara ardatz

EAEko hezkuntza-sistemak argi dauka eskolak herritar eleaniztunak sortu behar dituela, eta hizkuntza ofizialez gain, atzerriko hizkuntza bat edo gehiago jakin behar direla. Hortaz, euskara eta gaztelaniaz elebitasuna bermatuko da, betiere bi hizkuntza hauen arteko desoreka soziala kontutan hartuz (gaztelera da hizkuntza nagusia kalean), eta euskararen erabilera bultzatuz (Eusko Jaurlaritza, 2014a, 31.orr).

Egun gai garrantzitsua eta erronka handietako bat da eleaniztasuna lortzearena. EAEko hezkuntza-sistema hobetzeko Planean, 2016-2018, jasotzen den ildo estrategietako bat da "elebitasuna hezkuntza eleaniztun baten barruan" garatzea (Eusko Jaurlaritza, 2016a). Horretarako, hobetzeko arloak azpimarratzen ditu dokumentu honek (41-42.orr):

1. Ikasleen hizkuntza-konpetentzia hobetzea euskaran eta ingelesean
2. B ereduaren eskaintza Batxilergoko etapara hedatzea eta bertan D ereduaren eskaintza sustatzea.
3. A ereduan euskararen irakaskuntza areagotzea.
4. Ingelesezko irakaskuntza areagotzea eta zabaltzea.
5. Atzerriko bigarren hizkuntzaren ikaskuntza areagotzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
6. Euskararen erabilera handiagoa ahalbidetu eta erraztea, barruko nahiz kanpo jardueretan eta eskolako jardunetan oro har.
7. Ingelesa eta ingelesez irakasteko konpetentzia duten irakasleen kopurua handitzea, eta euskara eta euskaraz irakasten duten irakasleen hizkuntza-eguneratzea bultzatzea.

8. Irakasleek hizkuntzen didaktikan duten konpetentzia hobetzea, eta hizkuntzak irakasten dituzten irakasleek koordinatuta lan egiteko antolaketa-bideak ezartzea, hizkuntzen tratamendu integratuaren ikuspegia aplikatuz.

9. Hizkuntzakoak ez diren arlo eta ikasgaietako irakasleek arlo eta gai horren erabilera espezifikoei dagokien hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia modu integral eta sistematizatuan lantzeko beharrezko prestakuntza eskaintzea.

10. Euskal hizkuntza eta literaturako irakasleek, baita hizkuntzakoak ez diren arlo eta gaietako irakasleek ere, euskal kultura espezifikoari lotutako edukiak barnean hartzeko beharrezko prestakuntza eskaintzea.

11. Ikastetxe guztiek Hizkuntza Proiektua landu eta dinamizatuko dutela ziurtatzea.

Bestalde, interesgarria da EAEko hezkuntza-sistemak eleaniztasuna ulertzen duen moduari erreparatzea. Metodologiari dagokionez, *Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoak* (Eusko Jaurlaritza, 2014a) erreferentzia egiten dio 'ikuspuntu eleaniztuna' deitzen dionari, eleaniztasuna ulertzeko modu holistiko bati hain zuzen. Honela dio:

> Ikuspuntu eleaniztunean, pertsona baten esperientzia hedatu ahala hizkuntza baten kultur inguruneetara –familiaren hizkuntza, gizarte osoarena, beste herri batzuetako hizkuntzak...–, pertsonak ez ditu hizkuntza eta kultura horiek gordetzen buruko konpartimentu bereizitan; aldiz, bere komunikaziorako konpetentzia osatzen dute hizkuntza-jakintza eta -esperientzia guztiek, eta hizkuntzak elkarrekin harremanetan daude. Ikuspuntu horrek erabat aldatzen du hizkuntza baten irakaskuntza. Kontua ez da bi edo hiru hizkuntza eskuratzea, zein bere aldetik. Aldiz, hizkuntza-gaitasun guztiak biltzen dituen hizkuntza-bilduma bat garatu nahi da (Eusko Jaurlaritza, 2014a, 31.orr).

Ikuspuntu eleaniztun honetan oinarrituz hezkuntza markoak hizkuntzen trataera integratua eta integrala defendatzen du.

Agerikoa da hizkuntzen irakaskuntza integratuaren premia. Izan ere, bi hizkuntza edo gehiago dakizkiten ikasleen egitura kognitibo eta emozionaleko elementu dira, bai dakizkiten hizkuntzak, bai hizkuntza horien bidez ikasi dituzten ezagutzak. Horrez gainera, hizkuntzak ikasteko prozesuaren elementu ugari komunak dira hizkuntza guztietan, eta hizkuntza batetik bestera erabil ditzakete bi hizkuntza edo gehiago dakizkiten pertsonek. Azkenik, kontuan izan behar da hiztunen jardun-esparru guztietan erabiltzen direla hizkuntzak, eta hiztunek erabaki behar dutela beren hizkuntza-errepertorioko zer hizkuntza erabiliko duten komunikazio-egoera bakoitzean.

Arrazoi horiengatik ezarri behar da hizkuntzen ikuspegi integratua; eta, ildo horri jarraituta, hiz- kuntzen ezaugarri bereizgarriak eta hizkuntza guztien alderdi komunak landu eta partekatu behar dira, hizkuntza guztiak behar bezala erabiltzeko. (Eusko Jaurlaritza, 2015, 97.orr)

Argi uzten da, errespontsabilitatea ez dela hizkuntza-irakaslearena bakarrik, baizik eta edukiak ematen dituzten irakasleena ere bai. Izan ere, "eskolan, curriculum-arloak irakatsi eta ikasteko prozesuak dira hizkuntza erabiltzeko eremurik eta egoerarik ohikoenak eta naturalenak; beraz, hizkuntza eta edukia integratzea komeni da" (Eusko Jaurlaritza, 2014a, 32.orr). Horrela, edozein arlotako irakasleei hizkuntza eta edukia integratzeko eskatzen zaie, hizkuntza-konpetentzia garatzearren.

Atal honetan, beraz, ikusi dugu EAEko hezkuntza-sistemak zeren alde egiten duen eta zein diren bere ezaugarri eta ildo nagusiak. Ikusi dugu eleaniztasuna dela horietako bat, eta horregatik, hurrengo atalean atzerriko hizkuntzen irakaskuntzarako egindako esperimentu eta proiektuetan jarriko dugu arreta.

4.3.   Ingelesa EAEko hezkuntza-sisteman

4.3.1. Esperimentu eta esperientzia eleaniztunak EAEko hezkuntza-sisteman

EAEn, munduko herrialde askotan bezala, ingelesa da atzerriko hizkuntza nagusia. Cenozek (2009) aipatzen duen moduan, "English is becoming increasingly important for Basque citizens as a medium of intra-European and international communication" (19.orr). Gizartean presentzia gutxi duen arren, biztanleria kontziente da atzerriko hizkuntza bat maneiatzeak dakartzan onuretaz. Gainera, hezkuntza-sistemaren helburua da "ikasleek bi hizkuntza ofizialak era egokian eta eraginkorrean eta atzerriko hizkuntza nahikotasunez erabiltzeko gaitasuna lortzeko helburua duen hezkuntza-sistema eleaniztuna" lortzea (Eusko Jaurlaritza, 2019a, 32.orr).

Esan bezala, ingelesa da euskal ikasleen atzerriko hizkuntza nagusia, hau da, kasu gehienetan, horien H3a da. Ikastetxe askok bigarren atzerriko hizkuntza ikasgaia ere eskaintzen dute.

EAEko hezkuntza-sistemako curriculumean derrigorrezkoa da atzerriko hizkuntza, eta ikasle hauen kasuan gehiengoak du ingelesa. EAEko ikasleak 4 urterekin hasten dira ingelesa ematen eta oinarrizko hezkuntzako mailaren arabera atzerriko hizkuntzan eman beharreko orduak aldatu egiten dira. Esaterako, Lehen Hezkuntzako lehen bi urteetan astean atzerriko hizkuntza ikasgaia astean bitan ematen da; 3., 4., 5. eta 6. mailan, astean 3 ordutara luzatzen da. DBHko ordutegiari dagokionez, 3-4 ordu izaten dituzte astean, eta Batxilergoan, gutxienez 3 ordu.

Horrela, azken urteetan hezkuntza-sistemak ahaleginak egin ditu elebitasunetik eleaniztasunerantz mugitzeko. Jada 1996an, Hezkuntza Sailak **Ingeles hizkuntzaren sarrera goiztiarra** jarri zuen martxan, 4 urtetik aurrera, 13 eskoletan. Gainera, esperientzia honen barruan beste bi modalitate ere bazeuden: alde batetik, **INEBI** deitu zena, Lehen Hezkuntzako ingeles ikasgaiaren ordutegia handitzea (2 ordu izatetik 5 ordura) edukiak ingelesez emateko eta bestetik, **BHINEBI**, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ingeles hizkuntza bakarrik ez baizik eta arloetako edukiak ere ingelesez emateko.

2003an **Esperientzia Eleaniztuna** 18 eskoletan jarri zen martxan, Batxilergoan curriculumaren arloak atzerriko hizkuntzan emateko. Antzeko ildoa jarraituz,

2010-2014 kurtsoetan zehar **Hezkuntza Marko Hirueleduna** deiturikoak Lehen hezkuntzako 4.mailan eta DBHko 1.mailan edukiak ingelesez emateak zuen eragina ikusi nahi izan zuen, emaitza positiboak lortuz (Eusko Jaurlaritza, 2016a, 38.orr).

2014tik martxan dago **Eleaniztasunerantz** deialdia, zeinak hizkuntza proiektu eleaniztunak bultzatzen dituen, eskola bakoitzaren egoera soziolinguistikoa kontutan harturik eta euskara ardatz izanik. Gure ikerketan parte hartzen duten ikastetxeak Eleaniztasunerantz deialdian parte hartzen dutenez, honen nondik norakoak azaltzea komeni da hurrengo atal batean.

Laburtuz, EAEko hezkuntza-sisteman abiapuntutzat euskara hartuta, ikasle elebidunak lortu behar dira, egoera komunikatibo eta akademikoetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko gai izan behar dutenak. Honi, gainera, lehen atzerriko hizkuntzan (ingelesa) komunikatzeko gaitasuna lantzeko dute EAEko ikasleek ingeleseko ikasgaia. Azken urteotako egitasmoen ondorioz, eta ikusita ingelesa edukien bitartez ikastean ikasleen maila handitzen duela, CLIL proiektuak (beste izen batzuekin) bultzatzen ari direla ikusi dugu. Honek esan nahi du, gure ikasleak, orain arte ikasi duten atzerriko hizkuntza beste modu batean landu behar dutela, hau da, edukiak edo arloak ikasteko erabili behar dutela eta hortaz, hizkuntzaren erabilera akademikoa landu. Zirkunstantzia honetan, laburtu dezakegu, Cumminsek (2008) proposaturiko BICS eta CALP hartuta, EAEko ikasleei euskara, gaztelania eta ingelesezko erabilera komunikatiboak (BICS) lantzeko eskatzen zaiela, eta aldi berean, euskara, gaztelera eta ingelesaren erabilera akademikoa (CALP) ere lantzera bultzatzen zaiela. Gauzak horrela, ondorioztza dezakegu EAEko hezkuntza-sistema nahiko zorrotza dela hizkuntzen ikaste prozesuari dagokionez.

4.3.2. Eleaniztasunerantz eta hizkuntza proiektua

Esan bezala, Eusko Jaurlaritzak 2014-2015 urtean atera zuen **Eleaniztasunerantz** egitasmoa, baliabideak eskainiz parte hartu nahi zuten ikastetxeei. Honen helburu nagusia ikastetxe bakoitzak Hizkuntza Proiektu propioa garatzea da, euskara ardatz hartuz eta eleaniztasunerantz pausoak emanez. Bi modalitate ezberdintzen dira urtero deialdietan: alde batetik, atzerriko hizkuntza irakasgaiaz gain beste irakasgai bat ingelesez emateko laguntzak; eta bestetik, irakasleek atzerriko hizkuntza-maila hobetzeko laguntzak.

Egitasmo honen bitartez, curriculumean ingelesez emandako orduen kopurua handitu nahi da, Eleaniztasunerantz-en azaltzen den bezala, lotura estua dagoelako ingelesez emandako ordu kopurua eta lortzen den ingeles mailaren artean (Eusko Jaurlaritza, 2017, 2.orr). Ikerketa egin zen urtean, 2017-2018 ikasturtean, 117 ikastetxe publikok hartu zuten parte deialdian, horietatik 51 DBHko ikastetxeak izanik.

Horrela, ikastetxe bakoitzaren erabakia izango da ikasgai bat edo gehiago ingelesez ematearen aukera ematea. Ikasleei dagokienez, aukeratu ahal izango dute eta ez dute hizkuntza-eskakizunik bete beharko ingelesaren bidez emango den ikasgai horretan matrikulatzeko (Eusko Jaurlaritza, 2015, 23.orr).

Kontua da helburu hau bete eta ingelesez klaseak eman ahal izateko, prestatutako irakasleak behar direla. Horregatik, Eleaniztasunerantz deialdiak irakasleentzako formakuntza eskaintzen du ingeles maila hobetu dezaten. 2019an publikaturiko datuen arabera (Eusko Jaurlaritza, 2019a), 2018an EAEko eskola publikoko irakasle guztien %13,3ak soilik daukate ingelesez klaseak emateko behar den maila, B2a, eta %8ak soilik C1 edo C2a.

Hizkuntza proiektuan hizkuntzen lotutako erabaki guztiak jaso behar dira, hizkuntzak erabili eta irakastearekin lotutako guztia, hain zuzen. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak *Hizkuntza Proiektua egiteko Gida* argitaratu zuen 2014an, dokumentu honen nondik-norakoak azaltzeko. Helburu orokor bat planteatzen da: "Hizkuntza Proiektuak balio behar du, beraz, ikasleek hizkuntzak hobeto ikasi eta erabiltzeko, euskararen erabilera sustatzeko eta hizkuntzen arteko bizikidetza-jarreretan aurrera egiteko" (Eusko Jaurlaritza, 2014b, 8.orr).

Hizkuntza proiektu eleaniztun hauek garatzeko, ikastetxe bakoitzak bere egoera soziolinguistikoa aztertu behar du, "metodologia-, prestakuntza- eta antolaketa-alderdiak hizkuntzen tratamendu integratu eta integralaren inguruan zehatz ditzan eta hizkuntzen irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien neurri guztiak planifikatu ditzan" (Eusko Jaurlaritza, 2017, 2.orr). Gainera, dokumentu honetan hizkuntzen erabilera eta irakastearekin lotutako erabaki guztiak egon behar dira, bai eta ikastetxearen egoera soziolinguistikoaren azterketa sakona, irakasle eta ikasleen beharrak eta ikastetxe bezala dituen hizkuntza-helburuak eta planteamenduak (Eusko Jaurlaritza, 2014b).

4.4.   Kapituluaren laburpena

Kapitulu honek ikerketa hau testuinguruan kokatzea izan du helburu. EAEko hizkuntza egoerara hurbildu gara, eta ikusi dugu, gaztelera hizkuntza nagusi den arren, euskara hiztunak irabazten ari dela eta hiztun horietako askok euskara ez dutela etxean ikasten, eskolan baizik. Izan ere, D eredua, euskarazko irakaskuntza, nagusi da EAEko hezkuntza-sisteman, eta hortaz, D ereduko eskoletan ama-hizkuntza euskara duten ikasleak eta erdara duten ikasleak biltzen direla egun.

Euskara ardatz duen eta konpetentzietan oinarritzen den hezkuntza-sistema dugu gurea. hezkuntza-sistemaren helburu nagusietako bat da ikasle elebidunak lortzea, bi hizkuntza ofizialak egoera komunikatibo eta akademiko ezberdinetan erabiltzeko ahalmena izan dezaten. Gaur egun, atzerriko hizkuntzak jakitea beharrezkoa da, eta EAEko hezkuntza-sistemak elebitasun horretatik hezkuntza eleaniztunera aldatzen ari da. EAEko curriculumean derrigorrezkoa dute ikasleek atzerriko hizkuntza bat jakitea (gutxienez), eta hori gehienetan ingelesa da. Atzerriko hizkuntzako klaseetaz aparte, EAEko hezkuntza ahaleginak egiten ari da pixkanaka CLIL programak bultzatzeko, hau da, edukiak eta arloak ingelesez emateko. Ekimen horietako bat Eleaniztasunerantz da, ikastetxeei baliabideak eskaintzen dizkiena ikasgai bat edo gehiago ingelesez emateko eta irakasleen ingeles maila hobetzeko. Izan ere, egoera berri honen aurrean, arloetan espezialistak diren eta ingeles maila dezente bat duten irakasleen beharra dago.

Eleaniztasuna du helburu beraz, EAEko hizkuntza sistemak, eta ikusi dugu eleaniztasuna ulertzeko modu holistiko bat deskribatzen dela ofizialki, non onartzen den hizkuntzak ez direla konpartimentu itxiak eta elkar elikatzen direla. Era berean, hizkuntzen irakaskuntza integratu eta integral bat defendatzen da EAEko hezkuntza-sistematik, hizkuntza batean ikasitakoa beste hizkuntzak ikasteko erabil dezaketela azalduz.

RATIONALE AND METHODOLOGY

5.1. Rationale, research questions and brief context of the study

5.1.1. Rationale for the present work

As explained in the introduction of this thesis, this study looks at the way Content and Language Integrated Learning (CLIL) programs are being implemented in secondary schools in the Basque Autonomous Community (BAC). The education system in the BAC has made efforts to implement programs to foster multilingualism and improve students' foreign language skills, but research has mainly focused on language and content outcomes (Gallardo del Puerto eta Gómez Lacabex, 2013; Lasagabaster, 2008; Ruiz de Zarobe, 2010). In contrast, there is much less information about the process itself, that is, about the way English-medium classes are taught in Basque schools. This study aims at shedding some light on the way content and language are integrated and input is provided in the FL as well as on translanguaging in CLIL. In addition, it looks at the differences between teachers with a content-teaching background and those with a language-teacher background when teaching CLIL, an aspect that has received scant attention in the research literature.

Through a qualitative perspective, we aim at looking at aspects that have been recurrent in the literature on CLIL or on programs where a foreign language is used as the medium of instruction to teach content.

One of these aspects is related to the way teachers understand their role and integrate content and language in their teaching practices. Research in other contexts have shown how teachers find it difficult to understand their role as content and language facilitators, and therefore, their pedagogies do not reflect the double aim in CLIL. We are interested in analyzing the voices and practices of Basque teachers using English as the medium of content transmission in their classes.

Another aspect that has been a topic of debate in CLIL is how to give students the input for learning if using a foreign language. Teachers need to be aware of their students' English proficiency and skills and adapt their teaching to their

class. For that reason, we feel the need to explore how the four teachers in this study transmit content to their students and the strategies they use to make content comprehensible.

Finally, recent research has been exploring the presence of the mother tongue in CLIL settings. Our setting is great to analyze this phenomenon: secondary schools in the Basque Country where students have at least three languages in the curriculum and multilingual practices are common outside the classroom. This way, the presence of languages other than the target language in CLIL (English) will be interesting to look at so the way they are used in our schools will be explored.

5.1.2. Research questions

As it has already been said in the introduction, the aim of this thesis is to provide insights on CLIL classroom practices in secondary education in the BAC, especially focusing on the attempts to integrate language and content, teachers' strategies to make content comprehensible, and the role of the other languages of the classroom in the subject taught through English.

This study will analyze data from four secondary school classrooms and teachers, with which we will answer the following research questions:

RQ1. How do teachers shape their classrooms when it comes to integrating language and content?

- How do teachers understand their role as language and content facilitators?
- How do CLIL teachers shape their classrooms when it comes to methodologies chosen and output opportunities?
- Is there an explicit focus on language in these classes?

This question lies on the idea that integration of language and content is the main feature of the CLIL approach, and teachers may show different attempts to integrate these two elements. Within this research question, we will analyze how teachers see their roles as CLIL teachers and how they plan their CLIL subjects, looking if there are language objectives presented in the CLIL subject or specific activities with language aims. In addition, we will see if classroom dynamics offer students opportunities to use the foreign language. We will also take into consideration focus on form instances (if any) where teachers draw attention to

language forms and corrective feedback episodes in both classroom interaction and students' written production. All those will be described for each case and analyzed taking into account the variables that may change the way teachers integrate language and content, such as the subject itself, the teacher's profile (language teacher or content teacher) or the conceptualization and understanding of CLIL for schools and teachers themselves. In essence, this question will describe the way language and content is fused when English is the language of instruction and the role language plays in these CLIL settings taking into account factors such as the teacher's profile and understanding of CLIL or the subject itself.

The data used to answer the first research question were obtained through classroom observations, document analysis (syllabi of the courses and other classroom materials) and the semi-instructed interviews to the teachers at the end of the observation period.

RQ2. How do teachers provide input in a comprehensible way in CLIL?

- What kind of input do teachers give in their CLIL lessons?
- What strategies do teachers use to make input comprehensible?

This second research question deals with the main input provided by teachers in the CLIL classroom (teachers' explanations or talk and materials used) and the way this input is given. This RQ aims at exploring how this input looks like and the challenges that teachers may encounter in giving that input using the foreign language. It is also related to the idea that teachers need to make input comprehensible and at the same time give students opportunities to use academic language for students to acquire knowledge and fulfill language and content objectives. We will describe the strategies used by the different teachers when explaining concepts, giving instructions or reacting to understanding difficulties in the class. We will also check whether the input other than the teachers' speech (classroom materials such as texts or videos) is adapted to the students' level as a strategy for comprehensible input. Once again, the field notes from the observation, the interviews with the teachers and the classroom documents will provide data to answer this question.

RQ3. How do teachers and students make use of their multilingual repertoire in CLIL?

- How do teachers use English, Basque and Spanish in their discourse?
- How is classroom interaction and students' language use in CLIL?
- Do teachers use students' multilingual repertoire for pedagogical purposes?

This study takes place in a multilingual context where students master at least two languages (Basque and Spanish) and have been learning the third one (English) for several years. Obviously, all the teachers participating in this study are multilingual speakers as well, and are accredited to teach content through English. The first subquestion aims at exploring how teachers' use the language of instruction and the official languages of the community (if they do), while looking at how they feel with that language use. We also seek to understand interactions in the classroom especially those of teacher-student, in relation to how teachers understand CLIL and their perceptions of language use in the CLIL classroom. The third part of this question will try to see if there are instances of pedagogical translanguaging, i.e., if languages other than English are used in the CLIL classroom with pedagogical functions.

Three collection instruments (recordings and field notes from observations, interviews and analysis of classroom documents) were used to collect the data for this research question.

5.1.3. Context of the study

The schools from which the data were taken from this study are entirely state-funded D model schools. As explained in the previous chapter, D model schools are schools in which the language of instruction is Basque. The two schools, named from now on School A and School B, offer Secondary Education (compulsory grades 1-4) and Upper Secondary Education/Baccalaureate (grades 1-2). The schools are similar in terms of size and organization, with around 600-700 students and 80-100 teachers in total distributed in more than one building. They are also both located in similar socioeconomic settings with a very high percentage of Basque speakers in the area.

Seikkula-Leino, J. (2007). CLIL Learning: Achievement Levels and Affective Factors. *Language and Education*, *21*(4), 328–341. https://doi.org/10.2167/le635.0

Serra, C. (2007). Assessing CLIL at Primary School: A Longitudinal Study. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, *10*(5), 582–602. https://doi.org/10.2167/beb461.0

Skinnari, K., eta Bovellan, E. (2016). CLIL teachers' beliefs about integration and about their professional roles: Perspectives from a European context. In T. Nikula, E. Dafouz, P. Moore, & U. Smit (Arg.), *Conceptualising integration in CLIL and multilingual education* (145–167.orr). Multilingual Matters.

Somers, T., eta Surmont, J. (2012). CLIL and immersion: how clear-cut are they? *ELT Journal*, *66*(1). https://doi.org/10.1093/elt/ccr079

Stake, R. E. (1988). Case study methods in educational research: Seeking sweet water. In R. M. Jaeger (Arg.), *Complementary methods for research in education* (253–300.orr).

Stake, R. E. (2006). *Multiple Case Study Analysis*. Guilford Publications.

Swain, M. (1985). Communicative Competence: Some roles of Comprehensible Input and Comprehensible Output in its Development. In S. Gass & C. Madden (Arg.), *Input in Second Language Acquisition* (235–253.orr). Newbury House.

Swain, M. (1995). Three functions of output in second language learning. In G. Cook & B. Seidlhofer (Arg.), *Principle and Practice in Applied Linguistics*. OUP Oxford.

Swain, M. (1998). Research and Practice in Immersion Education: Looking Back and Looking Ahead Selected Conference Proceedings. *Dual-Language Immersion Programs: A Cautionary Note Concerning the Education of Language Minority Students, June 1996*. https://doi.org/10.3138/cmlr.52.4.529

Swain, M., eta Lapkin, S. (1998). Interaction and second language learning: Two adolescent French immersion students working together. *Modern Language Journal*, *82*(3), 320–337. https://doi.org/10.1111/j.1540-4781.1998.tb01209.x

Tan, M. (2011). Mathematics and science teachers' beliefs and practices regarding the teaching of language in content learning. *Language Teaching Research*, *15*(3), 325–342. https://doi.org/10.1177/1362168811401153

Tavares, N. J. (2015). How strategic use of L1 in an L2-medium mathematics classroom facilitates L2 interaction and comprehension. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, *18*(3), 319–335. https://doi.org/10.1080/13670050.2014.988115

Tedick, D. J., eta Cammarata, L. (2012). Content and Language Integration in K-12 Contexts: Student Outcomes, Teacher Practices, and Stakeholder Perspectives. *Foreign Language Annals*, *45*(S1), 28–53. https://doi.org/10.1111/j.1944-9720.2012.01178.x

Tedick, D. J., eta Wesely, P. M. (2015). A review of research on content-based foreign/second language education in US K-12 contexts. *Language, Culture and Curriculum*, *28*. https://doi.org/10.1080/07908318.2014.1000923

Temirova, F., eta Westall, D. (2015). Analysis of First and Foreign Language Use in Content and Language Integrated Learning (CLIL) Classrooms. *Procedia - Social and Behavioral Sciences*, *178*, 217–221. https://doi.org/10.1016/j.sbspro.2015.03.184

Tragant, E., Marsol, A., Serrano, R., eta Llanes, À. (2016). Vocabulary learning at primary school: a comparison of EFL and CLIL. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, *19*(5), 579–591. https://doi.org/10.1080/13670050.2015.1035227

Turan, Z., eta Akdag-Cimen, B. (2019). Flipped classroom in English language teaching: a systematic review. *Computer Assisted Language Learning*, 1–17. https://doi.org/10.1080/09588221.2019.1584117

van Kampen, E., Admiraal, W., eta Berry, A. (2018). Content and language integrated learning in the Netherlands: teachers' self-reported pedagogical practices. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, *21*(2), 222–236. https://doi.org/10.1080/13670050.2016.1154004

van Kampen, E., Meirink, J., Admiraal, W., eta Berry, A. (2017). Do we all share the same goals for content and language integrated learning (CLIL)? Specialist and practitioner perceptions of 'ideal' CLIL pedagogies in the Netherlands. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 1–17. https://doi.org/10.1080/13670050.2017.1411332

Wannagat, U. (2007). Learning through L2 - Content and Language Integrated Learning (CLIL) and English as Medium of Instruction (EMI). *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, *10*(5), 663–682. https://doi.org/10.2167/beb465.0

Westhoff, G. J. (2004). The art of playing a pinball machine. Characteristics of effective SLA-tasks. *Babylonia, 12*(3), 58–62. Hemendik eskuratua: https://dspace.library.uu.nl/handle/1874/29514

Williams, C. (1994). *Arfarniad o ddulliau dysgu ac addysgu yng nghyd-destun addysg uwchradd ddwyieithog, [An evaluation of teaching and learning methods in the context of bilingual secondary education]* [University of Wales, Bangor].

Xu, D., eta Harfitt, G. J. (2019). Teacher language awareness and scaffolded interaction in CLIL science classrooms. *Journal of Immersion and Content-Based Language Education, 7*(2), 212–232.

Yin, R. K. (2009). *Case Study Research: Design and Methods* (4th arg.). SAGE. https://doi.org/10.1097/FCH.0b013e31822dda9e

Zalbide, M. (2007). *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. Hemendik eskuratua: https://www.euskaltzaindia.eus/es/3503-qeuskararen-legeak-hogeita-bosturte-eskola-alorreko-bilakaera-balioespen-saioaq-liburuaz

APPENDIX 1/1. ERANSKINA: EXAMPLE OF SEMI-STRUCTURE INTERVIEW/ELKARRIZKETA EREDUA

Noiz hasi zineten ingelesa irakas-hizkuntza gisa erabiltzen?

3 urte eskeintzen aukerako ikasgaien artean inglesez arlo bat. Hasi ginan 2. Edo 3. Mailan, eskaini genitun lehen aldiz, eta batxilergo 1. Mailan. Duela 2 urte ya eskeintzen dugula ekonomia inglesez, 4. DBHn. 1.mailan hautazkorik ez dagoenez… baina beste mailatan bai.

Ikastetxeak pauta modukoak ezarri zituen klaseak inglesez emateko edo?

Ez, hor egin zen hautu nagusia izan zan garbi ikusi genun derrigorrezko arlo baten kokatu beharrean hautazkoetan kokatu behar genuela, hori bai genuela argi. Hori izan zen erabaki garrantzitsu bat ba horren inguruan. Baina nola eman ikasgaia, alde batetik, 2. eta 3. mailako arloetan ingleseko mintegiak hartu zun ardura, ordun nolabait bermatzen zan hizkuntzaren ezagutza maila bat eta gero literatura unibertsalekoa beharrazko maila, tituloak eta baditu C2koak, ordun horrekin ere bermatuta zegon… 4. mailan bai egia da ekonomia eskeintzen dugula eta ez dagoela irakasle finko baten eskutan baizik eta ordezko baten eskutan. Ordun hor bai galtzen dugu kontrola batzutan ba ez dakigulako nor etorriko zaigun, eta printzipioz B2 batekin nahikoa da. eskolak eskatzen du perfil hori, bueno baina ezin deu gehiago eskatu, eskatzen duguna da ingleseko gaitasuna edukitzea eta hor B2kin printzioz nahikoa da. Hor bai erabaki genun ikasgai motaren arabera, eta batez ere genituen baliabideen artean, 4. mailan ez genuelako beste bolondresik, ordezkoen bitartez egiten da.

Zailtasunak eduki dituzue CLIL egiteko?

Ez, bueno, klaustro aldetik beti dago… beldurrak sortzen dia. Ikaslego eta familien aldetik ez, harrera ona izan da eta galdetegiak pasatzen ditugun aldiro, aurten ere galdetu diegu zer iritzi duten ikastetxeak hori eskeintzeari buruz eta denak oso erantzun positiboak eman dituzte. Aldiz klaustroan, hasieran batez ere, ba beldur handia ez? Batez ere ea suposatuko zuen plaza konkreturen bat perfilatzea inglesez, eta horrek nolabait betirako baldintzatzea, eta bueno ba normalak dian beldurrak. Egia da ere beldurrak izan arren azkenean onartu zala, eta klaustroak onartu zuela.

Aldaketak egin behar dira hurrengo kurtsora begira? Eskeintza handitu edo?

Ez. Mantentzea erabaki dugu, maila bakoitzean arlo bat, baldintzak aldatu ez direlako, prest gaude irakasle berdinak ematea hautazko hauek eta esan deguna, 4.mailan perfilatuko da plaza inglesez eta hor ez da… esan bezela galdetegiak pasa ditugu eta emaitzak positiboak izan dianez ba ez daukagu arrazoirik ba aldaketa berezik egiteko. Iaz egin genun aldaketa bat, ta izan zan ordurarte 4.mailan balio etikoak inglesez eskaini genun urte betez ekonomia beharren, baina hor talka egiten zun araudiarekin, ze orduan erlijioa ere eskaini beharko genuke eta ez geneukan erlijioko irakaslerik atzerriko hizkuntzan trebatuta ba erabaki genun ikasgaia aldatzea, ordun bai, baino legedi asuntoangatik eta ez ikasgai egokia ez zelako.

Zer ikasketa dituzu?

Aleman filologia ikasi nuen eta gero goi mailako ziklo bat atzerriko merkataritzan.

Irakasle gisa esperientzia eta esperientzia CLILen?

Oso gutxi, printzipioz ni hasi nintzen enpresa munduan eta gero 2010en edo hasiko nintzen eta 2012an aterako nitun oposaketak. Hasiera batean tokatu zitzaiten ordezkapenen bat

alemanekoa, bainoa gero ya inglesekoak. Gaztelania ere tokatu zait. Eta orain ba digital eta community ematen ditut inglesez.

Zenbat denbora ikastetxe honetan?

2012tik

Zer klase ematen dituzu eta ze mailatan?

DBH 1en inglesa, DBH2n digital communication, eta DBH3n community manager workshop.

Formakuntza CLILen edo kurrikulum integratuan? Eskolatik edo kanpotik?

Eskolatik kanpo egin non bat British Councilen baino hoi zen gehie effective English teaching edo horrelako zerbait, orain apuntatu naiz beste baten uda hontarako baino 21. nago itxaron zerrendan. Ordun ez dut uste aukera edukiko dudanik. Asmo non iteko Bilbon bat hori bai zala CLIL, urrian, beste bat British Councilekoa. Baina ez dut uste onartuko nautenik, ordun ba bueno, hurrengoan. Eta donostiko kurtso edo master hori…

Zer hizkuntza maneiatzen dituzu?

Inglesa, alemana, gaztelera eta euskera. Frantsesa oso oso gutxi dakit.

Eta ingelesa nola ikasi zenuen? Noizbait CLIL jaso duzu, hau da jaso dituzu klaseak zurea ez den hizkuntza batean?

Batez ere eskola garaian partikularreta joatea gustatzen zitzaidan inglesa ikasi nahi nulako, eta gero ba 5 urte jarraian joan nintzen irlandara famili berdinera eta udak aprobetxatzen nitun hobetzeko edo. Batez ere ordun, ze gero ya karreran ere ikasi nun, nahiz eta filologia alemana egin, baino gutxiago, eta gerora bueltatu naiz tarteka irlandara beti. Bai. Bai.

Eskolatik kanpo erabiltzen duzun hizkuntza bat da?

Oso gutxi, aukera gutxi ditut, ikusi ditzaket pelikulak eta baino erabili, erabili, aukera gutxi.

Ingelesez klaseak ematerakoan, eduki ala hizkuntza irakasle sentitzen zara? Ala biak? Batzutan rol hori hartzen duzu (hizkuntza irakaslearena)? Eduki-irakasle edo ingeleseko ere bai? Non kokatuko zenuke zure burua? Zergatik?

Saiatzen naiz transmititzen komunikazio tresna bezela, kultura berri baterako tresna dela transmititzen, pixka bat hori. Eta batez ere ikasteko grina. Hautazko horietan gehiago da nolabait nik irakatsi nahi diet eduki konkretu bat eta eduki hori da aitzakia hizkuntza erabiltzeko. Ordun, bi gauzak, ordun tarteka saiatzen naiz inglesarekiko kontzientzia har dezaten hizkuntzari buruz eta hizkuntzaren erabilerari buruz, baina beti eduki horiek transmititzeko aitzakiarekin. Zerbait berria ikasten deu eta bidea, edo tresna, edo hizkuntza ba baitare saiatzen naiz horrekiko grina pizten.

Zein da zure konfiantza/segurtasun maila ingelesez klaseak ematean? (Euskaraz izango balira bezala, gustora sentitzen naiz, inseguridadea, ez naiz gustora sentitzen…)

Urduriago ez naiz jartzen ze klaseak beti horrela eman behar izan ditut, gero eta trebatuagoa sentitzen naiz klaseak ematen baina hizkuntzak ez nau horrenbeste baldintzatzen, ez. Bai gertatzen zaidana da iruditzen zaitela neri hizkuntza bera barrera bat dela nire ikasleengana iristeko. Iruduitzen zait ikaslegoarengana iristeko traba bat daukadala nik segun ze mailatan. Hori bai, baino ni eroso nago. Eroso bai nago. Batzutan pentsatzen det eta gero konturatu naiz tarteka euskararekin ere pasa zaidala, osea hizkuntza ez dela horrenbesteko traba, ze euskaraz ere traba batzuk sortzen zaizkizu. Ordun ba beti belduz hori eduki det, jo ba igual ez naute beti ulertzen eta ez naiz iristen beraiengana, ea berdin iritsiko dan mezua oraindik maila ez dutelako edo nik ez detelako nahikoa egokitu ingles maila beraien mailara edo.

Zure irakasteko metodologia aldatu behar izan duzu klaseak ingelesez emateko edo euskaraz izango balira bezala ematen dituzu? Ariketa mota ezberdinak prestatzen dituzu? Maila jeistea tokatu zaizu?

Ez det uste. Euskeraz izango balitz metodologia ez nuke aldatuko. Aldatzen dana da euskeraz emango banu, ez nuke tarteka… gustatzen zait tarteka hizkuntzari begiratzea, eta nolabait beraiei fokoa hor jartzea tarteka, ba baliadibe hori ere eskeintzea. Euskeraz ba ez nuke egingo behar bada. Hau justu da prentsa tailer digital bat eta asko idatzi behar dugu ta adierazmenari asko erreparatu behar zaio, ordun hizkuntzari etengabe ari gea erreparatzen. Euskeraz izango balitz euskarari, euskal hizkuntzari erreparatu beharko nioke eta hor nik ez nuke holako gaitasuna edukiko, ez nago hain prestatuta.

Iruditzen zaizu inglesez delako maila baxuagoa dela?

Edukiena? Ez, ez. Prentsa tailer bat da, digitala eta hizkuntzak ez digu hortan mugatzen.

Materialak eta ariketak diseinatzerakoan, hizkuntza aukerak aztertzen dituzu? Atzerriko hizkuntzan maneiatu beharreko terminoak kontutan hartzen dituzu edota atzerriko hizkuntzan garatu litezken arloak kontutan hartzen dituzu?

Hori daukat beti buruan, nik uste dut gehiago egin beharko nukeela. Baino saiatzen naiz. Eta batez ere hiru hizkuntzetan konparatzen saiatzen naiz, transferentzi hori egiten, tarteka, aitzakiaren bat baldin badaukat, saiatzen naiz.

Programazioa diseinatzerakoan, edukiari lotutako helburuak bakarrik hartzen dituzu kontutan edo hizkuntza-helburuak ere bai? Ebaluazio atalean atzerriko hizkuntzak badu bere tokia?

Hizkuntzari lotutakoak ere bai. Adibidez infografia bat sortzen badugu, adibidez Google bilaketak egiteko modu aurreratuak, ba infografia hori denoi ailegatzeko modu horretan edo saiatzen naiz 3 hizkuntzetan izatea. Bai.

Bai, badu bere eragina ze hor badaude sortu behar dituzten jarduera batzuk inglesez eta adierazmena lortzen dana. Adibidez, taldeko blog bat sortzen dute eta hor konpetentzia digitala ere neurtzen da baina blog sarreran neurtzen da momentu batean bakarrik adierazmena. Edo adierazmena gehi IKT baliabide batzuk nola sartu dian baino adierazmena bereziki. Baino hor dihoan nota gehiengoa hizkuntzaren inguruan dijoa. Badaude jarduera batzuk bete betean, normalean konpetentzia digitalarekin batea, baino bai, hizkuntza komunikazio gaitasuna bai, bai.

Lan karga handiagoa suposatu dizu klaseak ingelesez prestatu behar izanak? Ze aldaketa suposatu dizu zure ikasgaia ingelesez emateak?

Ez, horregatik ez. Alderantziz gai honen inguruan material asko dago inglesez.

Zer da zure ustez ikasleei gehien kostatzen zaiena? (Testu eta material originalak ulertzea, azalpen edo aurkezpenak ingelesez egitea, idaztea…?)

Adierazmena. Egia da kurtso hasieratik bukaerara gero ta gehiago trebatzen badituzu ba progresio bat badagola baino bueno nik ustet inglesen egingo duten arren (ingeles asignaturan) gurean osatzeak ba nik ustet gero ta gehiago egin, ba gero ta gehiago trebatzen ditugula.

Ahozkoan, idatzizkoan edo orokorrean?

Adierazmena orokorrean. Ze entzumena adibidez kostatzen zaie tarteka… ba igual informazio bat bideo formatuan entzutea ta apunteak jasotzea eta… a ver beraien mailara egokitutako bidioak dialako ez? Baino okerrego ikusten ditut adierazmenean.

Zer estrategia erabiltzen dituzu ikasleek zerbait ulertzen ez dutenean? (Euskara edo gazteleraz azaltzen diet, azalpena errepikatzen dut, beste hitz batzuekin azaltzen saiatzen naiz, arbela, eskemak… erabiltzen ditut.)

Bueno nik azalpenak inglesez… inglesez jasotzen duten input guztia da nire azalpenak aplikazio berri baten inguruan, edo tutorial batean bideo bidez, ulertzen ez dutenean aukera dute beti ere galdetzeko edo berriz entzuteko bidio hoiek edo informazio hori lortu behar dutena nahi adina aldiz entzuteko. Ez ulertu esan nahi duzu komunikazio arazo bat dagoenean? Bueno saiatzen naiz alde batetik sinonimoak edo erabiltzen hizkuntza berean

eta gero beste batzutan inongo arazorik gabe jotzen det beste hizkuntzetara baita ere. Bi eratara. Aprobetxatzen det sinonimoak erabiltzeko, beraiek ere ba lotura hori egin dezaten. Baino bai, momentu batean transferitzen det beste hizkuntza horretara ta gainera saiatzen naiz espresio hau ba horrela esaten da gazteleraz edo horrela euskeraz.

Materialak egokitu egin behar izaten dituzu ulergarriagoak izateko?

Ez da literatura bat bezela. Nik bai egin behar detela egokitu behar dudana da, ba adibidez, tutorial baten bidez ikasi behar baldin badeu zerbait egiten inglesez, ba saiatzen naiz tutorial egokia aurkitzen, beraien mailara egokitua dagoena. Bai. Adibidez orain dela gutxi ikasi genun storytelling edo nola sortu istorio laburrak eta 2.mailan adibidez ipuin bat sortu behar izan dute inglesez, ba hori ikasteko ba tutorial/bidio batzuk ikusi genituen marrazki bizidun formatuan non esplikatzen zitzaigun pertsonaia bat nola sortzen dan, gero istorio batek ze atal eduki behar dituen nahi ta nahi ez, ordun guzti hori aurkitu nitun materialak beraien mailara egokituta zeuden. Orduan beraiek esaten zuten, bueno ez zen errexa eh, baino gero apuntek ikusten bazenitun behar zuten informazioa ondo hartu zuten. Ordun claro, dena ez zuten ulertu, noski, baino behar zuten informazioa hartzeko gai izan zian. Nik behintzak hori egin behar det beti.

Hizkuntza oztopo da batzuetan? Hizkuntza arazoek denbora kentzen dizutela iruditzen zaizu?

Nik ustet erlazio pertsonaletarako gehiago, edo iristeko ikaslearengana izan daitekeela oztopo. Baino gero ta gutxiago. Egia da maila gero eta maila altuagoa izan errexago. Nei tokatu zait DBH1en ematea inglesa eta hor ikusten da oztopo handina, aldiz 3. mailan ba gutxiago. Hor alde handia nabaritu det. Baino bai izan daiteke batzutan.

Hizkuntza arazoek denbora kentzen dizutela iruditzen zaizu?

Ez, ez, nire ikasgaian ez.

Behar denean, hizkuntzari buruzko azalpenak ematea beharrezkoa zaizu, gramatika, hiztegiari lotutakoak? Edo orokorrean ez dira beharrezkoak?

Orokorrean ez dira beharrezkoak baina gustatzen zait ematea, hau da, blog sarrera hori zuzentzen dudanean adierazmena beti saiatzen naiz zuzen dagoena esan beharrean ba araua azaltzen edo zergatik dagoen oker eta beraiek deduzitu dezatela zer dagoen gaizki… batzutan ematen diet azalpena zer dagoen gaizki, eta zer legoken ondo, batez ere hasieran eta hortara ohitu dianean ya bukaera aldera gehiago ya juten naiz bakarrik esatea gaizki daola baina ez zuzentzea, beraiek zuzendu dezatela. Ordun bai, zentzu horretan gustatzen zait beraiek erreparatzea hizkuntzari eta ikustea zergatik dagon gaizki, batez ere adierazmeneko frogetan edo jardueretan.

Ikasleek egiten dituzten akats linguistikoak zuzentzen saiatzen zara? Bai hitz egiterakoan bai idatziz?

Hitz egiterakoan saiatzen naiz ezetz. Nik uste dut joera dela zuzentzea belarriko mina egiten digulako, baino saiatzen naiz hitz egiterakoan ez zuzentzen. Idazterakoan ba testu digitalak zuzentzen ditudanez ba Google docs-ek aukera ematen du komentarioak jartzeko eta komentari hoietan beti saiatzen naiz azalpena ematen zergatik dago gaizki, edo sinonimoak erabili behar badituzte ba erabili hauek, edo lokailuak edo azalpen horiek ematen saiatzen naiz. Beraiek zuzendu dezaten gero. Orduna 2 zuzenketa daude, hasiera batean doa dena komentarioekin, beraiek zuzentzen dute, berriro zuzentzen dut nik, hor bai ya zuzenean gaizki zuzendu badute ondo zuzentzen diet. Behin da berriz ez naiz hasiko. Ez, normalean behin aholkuak eta bigarrenean ya zuzenketa zuzena zerbait geldituko balitz, baino normalean zuzentzen dute.

Ikasleek egiten dituzten akatsak notetan eragina dute? Zergatik? Edo zenbateko garrantzia ematen diezu akats gramatikalei, ortografiari, hiztegiari…?

Bai, gurean adierazmenak badu bere balorea. Jarduera batzuk neurtzen dia hizkuntza-maila, baina beti ere ez lehenengo emaitzarekin baizik eta… hau da, lehenengoan akatsak daude, nik jarri dizkizut oharrak, horri nota bat ematen diot bai? Eta gero oharren ondoren beste nota bat normalean hobea izaten dena jartzen det. Baloratzen da beraiek zuzendu izana.

Baduzu hizkuntza araurik klasean? English only edo horrelakoak… hori argi esaten diezu ikasleei edo nabarmenduarazi?

Bueno, kurtso hasieran bai esaten dieguna da ba helburuetako bat dela inglesa ikastea dala, de hecho beraiek taldeka lan egiten dute eta beraien talde plana egiten dutenean ba helburuetako bat askok jartzen dute inglesean hobetzea. Ordun beraiek esakatzen duten zerbait da, asko horregatik apuntatu dia, ordun nik ustet denok dugula kontzientzia hori aldan neurrian ingo degu inglesez, eta batez ere gelako jardun hori, gure komunikazio-hizkuntza ingelesa izan dadila. Gero jardueraren arabera denez, prentsa tailer bat denez, eta guk sortzen dugun hori ikas komunitaterako dan ba batzutan albisteak euskeraz dihoaz. Ordun albiste hori euskeraz dijoa, beste batzutan elkartrukean etorri direneai, ba elkarrizketa inglesez egingo diegu, nahiz eta gero euskal hiztunen komunitate bati eskaini, ba bueno azpitituloak euskera jarriko ditugu. Hor aitzen gea 3 hizkuntzak lantzen ez? Baina bai lehentasuna ematen diogula ba gure komunikazio gaitasuna hobetzea gure eguneroko jardun hortan, ordun ni bai saiatzen naiz, esaten diet nik emango ditudan azalpenak ahal den neurrian inglesez izan daitezela, (inongo arazorik gabe aldatzen naiz euskerara momentu batean), baina bai lehentasun hori jarrita daukagula eta nik uste dut hori ongi baloratzen dutela beraiek edo eskatzen dutela.

Eta arau internorik? Hau da, nola iruditzen zaizu emango beharko zenituzkela klaseak? Zergatik?

Hobetzeko proposamenak bezela? Bai, hobetzeko baditut gauzak. Adibidez, joera gehiago edo gutxiago egon daiteke euskarara jotzekoa. Orduan esan deguna, jarri behar degu lehentasun bezela inglesez aritzea, gure eguneroko jardun hortan ba gogoratu behar det nik etengabe ez aldatzea euskerrara, beraiek dute joera hori, nik ere, eta orduan daukagu markatuta ba ahal bada aber itzultzen den inglesera… eta gero bestetik nik bai daukat hobekuntza bezela hori, tarteka zuzenketetan bai aipatu det asko erreparatzen diogula hizkuntzari zerbait sortzen degunean inglesez, batez ere blogerako, taldeko blogerako, ze eskatzen dena da ausnartzea saio bakoitzan egin duguna zer egin dugu? Nola egin dugu? Zertarako erabiliko dugu ikasitakoa etorkizunean? Ta nola sentitu gara? Ba hor badago zer idatzi inglesez baino gero ekintza asko ez dia inglesez sortzen ditugun gauzak. Ordun hor bai tarteka gustatuko litzaidake sartzea hizkuntzari erreparatzen dioten momentuak. Edo momentu batean sortzen dugun hori hizkuntzarekin bakarrik zerikusia izatea. Bai, hor igual gehiago sartzea, hori bai. Eta gero hiru hizkuntzen transferentzi horrena ere hori gogoratu in behar naiz, ze gaia ez da baino tarteka sartzearena uste det egin beharko zala. Eta igual gehiago egin dezakeguna da sortzen dugun hori gehiago partekatu beste ikasleekin edo, ez dakit.

Nola deskribatuko zenuke euskarak eta gaztelerak duten papera zure klasean? Ze egoeratan erabiltzen dira? (Ikasleen artean erabiltzen dute, nik erabiltzen dut askotan azalpenak emateko, materialetan presente daude, ariketa konkretu batzuetan erabili behar dituzte…)

Ba beraien artean euskeraz egiten dute, eta saiatzen dia tarteka inglesez ere egiten. Gero ebaluaketaro albiste bana gutxienez sortu behar dute euskeraz ikastetxeko webgunerako edo sare sozialetarako, twitter edo facebookerako, ordun hor presentzia du. Tokatu zaie antenak programa, dela [ikerketa herriko] udalak gazte informazioarako duen tabloia kudeatzea, horrekin dirua lortu deu Londreseko bidaiarako eta hor adibidez ere sortu behar zituzten albisteak horretarako euskeraz zian. Hor berriro euskeraz sortzea tokatu zaie. Ustet hoik

diala momentu esanguratsunak. Inglesez lehen esan deuna, izan beharko luke gelako hizkuntza berez, inglesez jasotzen dute nire instrukzioa eta gero classroom bat daukagu non kudeatzen deun erabiltzen deun material guztia, hoi guztia inglesez dao, nik hor ere ematen dizkiedan instrukzioak zer egin, nola egin dena inglesez dijoa idatziz eta gero ikasteko, edukiak ikasteko, hau da tutorialak edo horrelakoak saiatzen naiz bidio formatuan egotea eta saiatzen naiz atzerriko hizkuntzan inputa jasotzeko hau da entzumen frogak izango balira bezela, pixka bat beraiek entzumenean trebatzeko, eta beste ahoskera batzuk entzun ditzaten natiboenak edo ez natiboenak, baino desberdinak, eta hor saiatzen naiz aukeraketa egokia egiten beraien mailara egokitzeako eta batez ere hizkuntza aldetik asko erreparatzen diot bidioari. Eta gero baita ere eduki aldetik ez dadin oso luzea izan, guk behar dugunerako egokitua izan dadila. Eta gazteleraz saiatzen gera guk sortzen dugun horretan nola gure komunitatean badauden gaztelaniako hiztunak ba hor ere tarteka sortzea gaztelaniaz zerbait.

Nola deskribatuko zenuke zure hizkuntzaren erabilera? (ahalik eta ingeles gehien erabiltzen saiatzen naiz, arazo gabe jotzen dut ikaslearen hizkuntzetara, euskera arazorik gabe erabiltzen dut, gehiena euskaraz, batzuetan ingelesez…)

Lanak, aurkezpenak… ingelesa ez den hizkuntza batean entrega ditzakete? Hori nola ebaluatzen duzu, hau da, onartzen duzu beste hizkuntza batean?

Batzutan entregatu behar dituzte. Kasu honetan da gehiago nori zuzendua dihoan… baino berez inglesez egin beharrekoa norbaitek eskatzen badizu euskeraz egitea… ez, hor adibidez blog sarrera saioa deskribatzen ez? Norbaitek esan izan du 'ahal det euskeraz sortu hau euskeraz?' eta ez, gure taldeko bloga inglesez idazten den zerbait da.

Zein da zure iritzia zerbait ingelesez galdetzen baduzu eta ikasleek euskaraz erantzuten dutenean? (ez dizu molestatzen, ez diozu garrantziarik ematen, normala irudizten zaizu…?) Edo zein da zure iritzia ikasleek edo zuk hitz egiterakoan hizkuntzaz aldatzen duzuenean?

Ez daukat eragozpenik, hombre etengabe balin bada, ba joera aldatzen bazaigu euskerara klaseko jardun horretan pasatzea eta nola lehentasuna dan inglesez aritzea ba ni saiatzen naiz bideratzen berriro ere inglesera, baino ez dut holako… ez dit molestatzen. Komunikazioa erraztuko badu eta gero aldatzen badu gero inglesera ez dago problemik. Puntuala baldin bada bueno.

Ikasleen hizkuntzak erabiltzen dituzu modu pedagogiko batean ingelesez klaseak emateko? Adibidez, loturak egiten dituzue hizkuntzen artean, edo informazioa bilatu behar dutenean euskaraz/gazteleraz egiten dute ariketa ingelesez egiteko, edo hiztegia lantzeko… ?

Modu pedagogiko bakarra da ba bueno transferentzia egitea, zerbait ikasten dugunean ba nola esaten da ba? Batez ere guk daukaguna da lexiko aldetik lexiko berezia da ze dauka digitalizazioakin zerikusia ta ordun bai saiatzen naiz ba aplikazio berri bat ikasten ditugunean komandu desberdinak orain gorde edo orain hau publikatu eta bestea ez dakit zer… hor badago hizkuntza bat edo lexiko bat oso esklusiboa dana ba digitalizazio mundukoa saiatzen naiz hiru hizkuntzatan adierazten. Nola esaten dan hiru hizkuntzatan. Hor bai irudizten zait jakin behar dutela. Ordun bai, batzutan beraiek aplikazioa izaten dute euskeraz eta nik inglesez, ordun 'zuei nola agertzen zaizue hau?' 'nei agertzen zaitena espresio hau hemen zuei nola agertzen zaizue.?' Ba adibidez insert table of contents zuei nola agertzen zaizue, ba edukien aurkibidea txertatu, ba bida instert txertatu, eta insertar gazteleraz. Hoiek saiatzen naiz ze azkenean da aplikazio guztietan agertzen den terminologia bat da, eta oso berezia da hizkuntza bakoitzean, eta saiatzen naiz horiek azaleratzen. Konpetenteak izan daitezen edozein hizkuntzetan erabiltzen dutenean. Eta ulertu dezaten nora jo.

Orduan espontaneoak dira momentu hoiek?

Ez da espontaneoa eh, nik oso garbi daukat hizkuntza hori dominatu behar dutela, ze beti da berdintsua sortu duten produktu digital hori partekatu, embed the code, embed zer da? gazteleraz incrustar eta euskeraz da kapsulatu, ba oso desberdinak dia, kapsulatu, incrustar edo embed oso desberdinak dia, eta kode hoiek non dauden oso garrantzitsua da aurkitzea aplikazio bakoitzean, orduan, batzutan euskeraz irekitzen dituzte aplikazioak, baino beste batzutan inglesez. Embed the code edo incrustar el codigo edo kapsulatu kodea edo kapsulatze kodea zein den aurkitzea, hori lantzen saiatzen naiz eta ez da espontaneoa ez, aldiro aldiro aplikazio berri batean funtzio berri bat ikasten dugunean hiru hizkuntzetan erakusten saiatzen naiz.

Eduki irakaslea bazara, baduzue koordinaziorik ingeleseko departamentuarekin? Jasotzen duzu laguntza ingeleseko irakaslearen partetik?

Nire kasuan erabatekoa, egia da nire mintegikideekin momentu gutxi ditudala gauzak partekatzeko, nik kudeatzen det beste irakasle batekin batera, nire mintegikide honekin bai asko, beste guztiekin gutxiago, baino bueno zalantzaren bat edo balin badugu ba saiatzen gara beraiekin konsultatzen.

Ikastetxeak arauak edo jarraibideak ezartzen ditu klaseak ingelesez egiterako garaian? Manual modukoren bat baduzu eskura? Ikasleek zure ikasgaian sartzeko filtrorik badute? Maila zehatzik eskatzen da? Zein da ikasleen perfil nagusia? (Ingeles maila ona dutenak, hobetu nahi dutenak, denetarik dago…)

Perfila oso anitza da eta ikusten ari gara urtetik urtera. Orokorrean inglesa hobetu nahi dutelako da, edo gustoko dutelako eta hobetu nahi dutelako. Hori gailentzen da. baina baita gertatzen ari zaigu gaia gustatzen zaielako dala edo dauden aukeren artean gehien gustatu zaiena delako dala. Eta gero kasuren batean, eta hori pena bat da, beraien lehen aukera izan beharrean bigarrena da. eta lehenengoan lekurik izan ez dutelako. Kasu hoietan beti ez da beraien gustokoena eta ordun bai zailagoa da hor engantxatzea… edo beste norbaitek motibatu ditu inglesez hartzea ba kasu horretan ez da gomendagarria ez? Aukerako ikasgaia hori beharko luke ez? Aukeran zuk duzun beste interes bat jorratzeko. Baino bai egia da inglesez izateak askok horrek motibatzen ditula, gehiengoari esango nuke. Denetatik.

Ikasgai hau euskaraz egiterik badago? Euskaraz egiten bada, eduki berdinak lantzen dira? Zertan esango zenuke aldatzen dela? Ez. Horregatik gerta daiteke batzui gaia gustatzea ingelesa bigarren plano batean gera daiteke igual apuntatu dianean, apuntatu dia gehiago prentsa digitala gustatzen zaielako, baina normalean inglesa hobetzeko helburua ere badute, nahiz eta bigarren maila batean dagoen helburu bat izan beraientzat.

Zer zailtasun eduki dituzu klaseak atzerriko hizkuntzan egiterakoan? (Material egokiak ez topatzea, ikasleen maila eskasa, formakuntza falta, laguntza falta ikastetxearen aldetik, koordinazio falta…)

Zailtasun berezirik ez atzerriko hizkuntzan izateagatik, beste gauza bat da beraiek zailtasunak dituztela adierazmenean hobetzen dihoaztela. Baina nik prestatzeko edo emateko instrukzioak saiatzen naizela beraien mailara egokitzen eta listo. Baino zailtasunak horrela ez.

Ze alde on eta txar ikusten dizkiozu zure ikasgaia ingelesez egiteari?

Nik uste dut arloa oso egokia dela inglesez emateko. Justu digitala dan guztia, artefakto digitalak eta sortzeko aplikazioak ba gehiengoa dago inglesez, ta hor hizkuntza gailentzen dena da inglesa. Terminologia guzti hori dominatzea inglesez ba behar duten zerbait dela ikusten dute. Ze askotan ikusten zaie aplikazio bat erabiltzen hasten direnean ba inglesez dagola eta hoiek menperatzea ondo datorkiela. Zentzu horretan lotura handia du hizkuntzak eduki horiekin. Alderdi hortatik egokia iruditzen zait. Gero ez dia eduki zailak, ez dute suposatzen buruz ikasi beharra, ez dago frogarik bukaeran, baizik eta asignatura

guztia dago pentsatuta gauzak sortzeari, taldean sortzeari, orduan taldean lan egiteak asko laguntzen du ba komunikazio gaitasuna landu behar dalako, egia da askotan euskarara jotzen dugula baina inglesera jotzeko ere eskatzen dute baina beraiek talde lanean ari direnean inglesez aritzea eskatzen diegu. Ordun ba taldean egiteak ya laguntzen die hortan, bakarka egingo balute ez lukete inglesez hitz egin beharko, baino kasu honetan hemen taldeka lan egin behar dute, ordun hori horrela planteatu da hizkuntza erabili ahal izateko gelan. Eta gero bestealde, arloa bera nei oso egokia iruditzen zait, erabat lotzen dute hizkuntza horrekin. Zentzu hortan ona, nei iruditzen zait. Txarra, txarra ez dakit. Gero askotan tokatzen zaigu euskeraz gauzak sortzea, baino hori askotan guretzat aitzakia da ba albiste bat nola sortu. Azalpen horiek ematen ditudanean hiru hizkuntzetan ematen ditut, hiru hizkuntzetan albisteak nola sortzen dira. Testu mota horrek ze forma du edo nola egiten da hizkuntza bakoitzean? Hori aztertzen dugu lehenengo. Gero gehienetan euskeraz sortzen dugula adibidez albistea, ba bai, baina bueno tarteka tokatu zaigu albiste hori inglesez idaztea eta hor bai transferentzia lantzen dugula hiru hizkuntzetara eta… nei egokia iruditzen zait hizkuntzari erreparatzeko eta… prentsa tailer bat denez ba hizkuntzarekin lotura zuzena du eta beste alde batetik lotura zuzena du digitala dalako, aplikazioekin eta artefaktu digitalekin.

Ze alde on eta txar ikusten dizkiozu edozein ikasgai ingelesez egiteari?

Nik uste beldur handiena dela edukiak ez hartzea edo edukiak ez barneratzea komunikazio arazo batengatik. Gurean hori ez da arazo handia esan dudanagatik, gehiago da komunitateari eskeintzen dizkiogun gauzak sortzea, eta gehiago lantzen dugu egitearen hori edukiak buruz ikasteari baino. Egia da ezagutza batzuk barneratu behar dituzula ze ez badezu ulertu artefaktu digital bat nola egiten den edo nola erabiltzen den ba zaila egingo zaizu egitea eskatu zaizun hori. Baino buruz ikasi behar ez danetik ezer, iruitzen zait arazo asko saihesten ditugula. Gero adierazmenean sortu behar duten hori gehiago da kontsumo internorako, da gure taldeko bloga, eta da gehiago metakognizioa egiteko eta hausnartzeko aritu geanari buruz, pixka bat jabetzeko zer ikasi dugun eta hori dena…. Ordun hor ez du kalte berezirik egiten, gehiago da entrenamentu bat gure adierazmena hobetzeko eta orduan gurean, horregatik aukeratu genuen gai hau, hain zuzen ere saihesteko eduki ditzaken alderdi negatiboak edo ondorio negatiboak. Eta nik uste dut ondo saihesten diala planteatu dan bezela. Ez dio ikasleari sufrimentu bat suposatzen, ez du ezer galtzen ezagutza aldetik. Ez zait iruditzen.

Zer egingo zenuke ezberdin (zure esku balego), edo zer aldatuko zenuke hobetzeko testuinguru honetan? (hobetu behar dela pentsatzen baduzu)

Aurten sartu dugun gauza berria izan da ba londresera ikasbidaia egitea DBH 3ko ikasleekin ba pixka bat ikasteko grin horretan ba nolabait ekarpen bat egiteko eta ikusteko asko dakitela ya eta ikusteko beraiek gai direla horrelako ingurune batean aritzeko eta komunikazio gaitasuna badutela ikusteko eta orduan hori izan da aldaketa bat. Egin ondoren balorazioa oso positiboa izan da, alerdi negatiboa da kostu handia duela ekonomikoki, baina egia da ere saiatu garela hortan ere ikasleak konprometitzen eta beraiek ere ekarpen ekonomikoak egiterako garaian mugitu dira… aldatu gehiago ba esan detena ba hizkuntzaren inguruan momentu gehiago hartu hizkuntzari erreparatzeko, tarteka. Eta hiru hizkuntzei erreparatzeko modu konszienteago batean, beraiek konszientego izan daitezen eta aldi berean besteekin elkarbanatzeko. Igual ba sortzen dituzten material hoietan hiru hizkuntzak gehiagotan erabili, edo…

Nolakoa da zure ustez CLIL irakasle ideala?

Izan beharko luke nire ustez pertsona bat osssso ondo menperatzen duena atzerriko hizkuntza. Eta hor nik adibidez garbi daukat prestakuntza… denok dakigu hizkuntzak mantendu behar direla eta mantentze hortan ba formatzen jarraitu behar dugula ta nik uste

maila altuan mantentzearena ezinbestekoa dala. Ezinbestekoa. Hori iruditzen zait oso garrantzitsua. Gero CLIL egiten ari geanen egia da ba eduki batzuk ere erakusten ditugula eta ordun oso ondo menperatu behar ditu eduki horiek eta oso ongi menperatu behar du terminologia hori atzerriko hizkuntzan. Terminologiaz gain soltura hori ez? Ahozkotasunean eta azalpenak ematerakoan hizkuntza oso ondo menperatu behar duela. Horrek ziurtasuna ematen du ze iruditzen zait bestela ziurtasunn hori gabe ba arazo handiak sor daitezkeela. Eta gainera transmititzeko ere hizkuntzarekiko gaitasuna ere eta grin hori ere ba horrela ere egiten dala. Bi gauzak, edukiak oso ondo jakin behar ditu ba ekonomia ematen duenak ekonomiari buruz, baina batez ere hizkuntza oso ondo menperatu behar dula.

Ikasgai batzuk ingelesez egiteak euskararekiko eragin negatiboa eduki dezakeela uste duzu?

Ez luke behar ondo diseinatuz gero, hau da, oso garbi eduki behar da zein kontestutan ari garen lanean, ezer diseinatu aurretik eta ezer diseinatu aurretik. Guk garbi geneukan ze ikastetxe mota gean, ze ikasle motakin ari gean lanean, eta hori ezinbestekoa da kontutan edukitzea. Hortik, hori abiapuntutzat hartuta, gure ikaslegoa egia da gehiengoak euskera maila polita dula, ze herri txikitatik datoz, beraien ama-hizkuntza euskera da, badago beste zati bat atzerritarrena ez dena oso altua, bajua ere ez, %9 ustet dala, baina ingurune euskaldunetatik dator gehiengoa. Taldearen arabera, hori ere kontuan eduki beharko litzateke. Baino ikastetxe bezela datu hori kontutan hartu behar da. Ni egon naizen jardunaldi batzuetan esaten zuten hori ba kasu honetan euskal giro batean bizi den ikasle batek ya nahikoa input jasotzen du gizartetik gero euskerako saioak dituzte, hoiek bermatuta daude, eta aldiz atzerriko hizkuntzan gure inguruan oso input gutxi jasotzen dute. Nik uste frogatuta daola gero eta ordun gehiago atzerriko hizkuntzan eman, ba alde handia dagola beraiek atzerriko hizkuntzan lortzen duten ezagutzetan. Gaztelanian adibidez input asko jasotzen dute, telebista, irratia, segun ze familiarteko edo laguneki komunikatzen dia gazteleraz, orduan gutxiena atzerriko hizkuntzan dute. Guk planteatu dugun eran, aukerako ikasgaiak izanda, ikasleak aukeratuta, ez zait iruditzen euskerari inongo kalterik egingo dionik. Debatea oso oso interesgarria da baina gurean nik uste det ondo pentsatuta dagoela aukerakoetan kokatze hori. Adibidez derrigorrezkoetan kokatuz gero, arrisku batzuk ikusten ditut nik hor, batez ere derrigorrezko ikasgaiak eta segun ze zailtasun maila dun ikasgaiak ba iruditzen zait zama handia litzakela eta euskerari kalte egiteaz gain, ba ikasleari zama handia ezartzea izango litzakela.

Zein da zure iritzi orokorra CLIL metodologiari buruz?

Ondo zaindu behar dala ba nola ematen dian klaseak eta nork ematen dituen esan deun bezela, bermatuta egon behar du irakaslearen hizkuntza-maila, hori, abiapuntua ona balin bada eta gero edukiak noski ondo aukeratzen badira esan ditugun irizpideak jarraituz, kontutan hartuz gero ze ikaslekin ai gean, ze ikasgai mota dan eta gero ikaslearen prestakuntzari erreparatzen badiogu, hoi dena bermatzen badugu, nei iruditzen zait emaitza oso intergarria dala, batez ere familia eta ikasleei eskaintza interesgarria egiten zaiela. Nik uste ikastetxe bezela kotutan hartu eta eskaini beharrekoa. Nik ondo pentsatu ezkerao eta beti ere ondo aztertuz urtero urtero ea aldaketarik egin behar dan… ondo hausnartuz gero, bai, idea interesgarria da. galdetegiak pasa ditugu ikasleei eta asko entzun behar zaie ikasleei zentzu horretan zer ikasi duten, zer espektatiba duten, zer espero duten hortik… eta gero zenbatek eskatzen duten. Adibidez, aurten nik dakidala hurrengo urtera begira 2. mailan talde bat atera da, eskaera egon da talde baterako, 3. mailan beste talde baterako eta aldiz hurrengo urterako bina talde atera dira. Eskaera izugarri handitu da hurrengo urtera begira. Aurten ya ikasle asko ziren, 2. mailan 15 eta 3. mailan 23 ikaslekin aitu gea talde bakarrean, eta hori hautazko bateako asko da. eta hurrengo urteari begira 2 talde, 40 pertsona 2. mailan

eta beste 40 3. mailan edo… hori ya datu bat da, badago eskaera. Nei horrek ematen dit bueno ilusioa edo, gauzak hobetu behar ditut beti, eta urtero saiatzen naiz, baina hori ya datu bat da eta beste daatu bat da ikasgaiataz zer aldatuko luketen eta horrelako galderak egiten dizkiegu, orduan hori kontuan hartzea da bestea. Baino bai, aukera polita dela uste dut beraientzat. Eta eskatzen ez dutenean gizartea aldatu delako, ze ez dauka zerikusirik orain edo hemendik 10 urtetara hor uste det gure lana egokitzea dela, beharren arabera. Hori aldatu daiteke asko, ez badago beharrik atzerriko hizkuntzan ordu gehiago emateko hemendikan 10 urtetara ba hori aldatu ingo da, baino momentu hontan eskaintza hori interesgarria dela esango nuke eta beharrezkoa esango nuke. Beharrak ikaslearen arabera, horregatik kokatu ditugu hautazkoetan. Oraintxe etorri berri bat atzerritik, euskera menperatzen ez duena ba lehentasuna ez da ordu gehiago inglesez egitea, garbi dago, ordun horri zuzendutako ikasgai bat ez da. egia da lehen perfila galdetu didazunean apuntatu zaizkigu ikasleak inglesa suspenditu dutenak, eta onartu ditugu ze beti egiten dute aurrera, beti datorkie ondo, eta ikasgaia dana delakoa eta edukiak dianak dialako ba ez dute zailtasun berezirik inglesa hain ondo menperatzen ez dutelako. Alderantziz, trebatzeko balio die. Zentzu horretan nik uste bide politta dala momentu hontan zentzua baduna baino urtero urtero ondo aztertu behar dana eta ondo diseinatu behar dana beti ere barruan ditugun baliabideak kontuan edukita. Ze gu egokitu gea ikaslego motara eta daukagun irakaslegoarekin.

Besterik gehitu nahi baduzu…

Oso interesgarria iruditu zaidala zu gure saiotan egotea, alde batetik pertsona bat hor egotea beide, behatzen ematen dizulako holako ondo egin behar da, egia esan presioa ez det bizitu, oso lasai egon naiz. Baino bai, oso gustoa egon naiz eta espero dut hemendik gero jasotzea ere asko.